

Goienkaria

2008ko urriaren 17a > Egubakoitza > VIII. urtea > 349. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Matxismoa bultzatzen duten rol sexistak deuseztatu behar ditugu"

Xabier Odriozola Maskulinitasun mugimendua > 09



G2a

Irlandako The Commitments, Elgetan > 43

GOITB Programazio berriaren inguruan jakin beharreko guztiak > 02-05

ARTZAIN ESKOLA Gomiztegiko instalazio berrietan hasi dute ikasturtea > 33

SASKIBALOIA Hondarribia-Irunek irabazi zuen Euskal Kopa Eskoriatzan > 40-41

POLITIKA > IBARRETXEREN GALDEKETA

Galdeketaren aldeko sinadurak batuko dituzte aste bukaeran

LAUKOA Urriaren 25ean egitekoa zen galdeketaren aldeko kanpaina hasi dute EAJ, EA, Ezker Batua eta Aralarrek

SINADURAK Bergaran, Oñatin, Antzuolan eta Elgetan mahaiak jarriko dituzte bihar, zapatua, eta etzi, domeka

LEGUTIORA Galdeketaren egunean Legution egingo duten ekitaldira joateko autobusak ipiniko dituzte > 06

Gaur hasiko da Danbaka

Elgetako Espaloia, 22:30
5 euro, Gazteketxa, 3 euro

- > Mery May
- > Damudot
- > The 5 Twisters
- > Ymotek

DANBAKA))))

HEZKUNTZA > ARGITALPENA

Prebentzio aldizkaria bailararako

Bailararako herri gehienetan gurasoentzako prebentzio-aldizkari bat sortzeko proiektuarekin aurrera egingo du Mankomunitateak. Gaur egun, herri bakoitzak bere aldizkaria dauka, eta hori bateratu egingo du erakundeak. Aldizkariaren lehenengo zenbakia Aste Santu garaian banatuko da. > 07

ANTZUOLA > ZERBITZUAK

Inauguratu dute gizarte etxea

Udaleko eta Foru Aldundiko hainbat ordezkari izan ziren astelehenean > 36

Errege Seminarioa erosiko du milioi bat eurotan Bergarako Unedeko Patronatuak

Madrilgo Gobernuak, Errege Seminarioaren jabeak, saldu egingo dio eraikina Uned-Bergara Patronatuari, milioi bat eurotan. Operazioarekin pozik azaldu dira Agurte Barruso Bergarako alkatea eta Juan Jose Alvarez Uned-Bergarako zuzendaria. "Historikotzat" jo dute. > 15



POZIK Agurte Barruso, Bergarako alkatea, eta Juan Jose Alvarez, Bergarako Unedeko zuzendaria. ENKO AZKARATE

AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-08
- Elkarrizketa > 09
- Iritzia > 10-11
- Gutunak > 12
- Herriak > 15-39
- Kirola > 40-41
- Kultura > 45
- Sailkatuak > 46
- Eskelak > 47
- Berri-zakua > 48
- Gazteak > 50
- Komunikazioa > 51
- Telebista-Irratia > 52
- Non-zer > 54-55

Sciocco berria

Mugak norberak jartzen ditu

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa



- PVC
- ALUMINIOA
- ERREZEL HORMAK
- RPT ALUMINIOA
- AROTEGI MIXTOA

Zigarrola, 1 8. Pabilioia • Tel. faxa: 943 77 11 30 • Tel.: 943 79 62 18
20500 ARRASATE

Ahalegin handiak egin dira GOITBn denboraldi berriari begira

'GOIENA MAGAZINEA' Nobedade aipagarriena da astelehenetik egubakoitzera, iluntzean, egiten duten zuzeneko 'Goiena magazinea'

INBERTSIOAK 2008/2009 denboraldian Goienak 262.000 euroko inbertsioak egingo ditu material eta azpiegitura berrietan

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Goiena Telebistak garai berrietara egokitzen dihardu. Pisuzko berrikuntzekin ekin dio dagoeneko denboraldi berriari. Horiek ez dira programazioaren edukietara bakarrik mugatzen; izan ere, azpiegitura teknikoetan ere inbertsio handiak egin dira azken hilabeteotan.

Ikus-entzuleendako nobedade aipagarriena joan den urriaren 6a ezkerro astegun iluntzetan emittzen den zuzeneko *Goiena magazinea* da. Larraitz Zeberio kazetariak gidatzen du formatu berria, aurretik arratsaldeetako albistegiko aurkezlea izandakoa. Saioa 19:45ean hasten da eta hainbat zatitan dago banatuta.

Hala, egunero debagoiendarren bat eroaten dute platora. Ikus-entzuleen zuzendari Iban Arantzabalen arabera, horrek albisteak sakonago lantzeko aukera ematen du. Gainera, azpimarratu du askotariko solaskideak izatea dela helburua eta horretan dihardutela. Orain arte platotik pasa direnen artean, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren bisita nabarmen daiteke.

Elkarrizketaz gain, egun bakoitzak tarte bat du astero osasun arlokoekin, nekazari mundukoekin eta alkateekin, esaterako

Egunero agerkari digitalaren erreposoa egiten dute eta Pello Zabalak eguraldiaren iragarpena egiten du Arantzazutik

Horretaz aparte, beste askoren artean, Iñaki Arriola, Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusia; German Gallastegi, Maritxu Kajoi Komisiñokoa; Tere Irastortza, Idazle Eskolako zuzendaria; Danbakako koordinatzaile Iker Barandiaran; Haizea Gaztañaga ikertzailea, Nerea Ruiz de Azua eta Naroa Zalakain, Huheziko ikasleak; eta Patxi Uribarren euskaltzain osoa izan dira.

TARTE FINKOAK

Egun bakoitzak tarte bat du astero-astero. Astelehenetan, Txomin Madinak Debagoieneko elkarten ordezkariak gonbidatzen ditu, bere jardunaren gaineko informazioa eskaintzeko. Martitzenetan, berriz, Arritxu Barrusok osasun arloko profesionalekin egiten du berba; eta eguaztenetan, nekazari munduari lotutakoekin gauza bera egiten du Miren Arregik.

Eguenetan, Eneko Azkarate Goienako Informazio kudeatzaileak, bailarako herrietako alkateekin solasalditxoak du. Azken tarte horren garrantzia azpimarratu gura izan du Arantzabalek: "Uste dugu herritarrek gustura



Irudian, Goiena Telebista osatzen duten zuzendariak, kazetariak, teknikariak eta publizistak.

entzungo dituztela herrietako alkateak, eta, nahi izanez gero, telefonoz ere sartu ahal izango dira zuzen-zuzenean; telefonoa erabiltzaileak bidaliz edo baita *skype* bidez ere". Egubakoitzetan, azkenik, aste bukaerako kultura agendaren berri ematen du Jon Berezibarrek.

Gainera, egunero agerkari digitalaren erreposoa egiten dute; Euskal Herri zein nazioarte mailako albisteak jorratzen dituzte tarte horretan. Eguraldiaren iragarpenik ere ez da falta: Arantzazun dagoen Pello Zabalarekin konexioa egiten dute webcam bidez, zer eguraldi egin behar duen jakiteko. Kasu horretan ere,

Zabalarri zuzenean galdetzeko aukera dute debagoiendarrek. Azkenik, egunak berak dakarrenean gaineko informazioak tokia du magazinean, hala nola erakusketak, zozketak, eguneko albistegia eta zinema proposamenak.

Goiena magazinea 19:45ean hasten da. Zuzenean ikusteko aukera ez duenak errepikapenak izango ditu ondoren ikusgai: 21:00etan eta 23:00etan, hain zuzen.

ALDE TEKNIKOA

Garai berrietara egokitzeko, inbertsio garrantzitsuak egiten dabil azkenaldian Goiena Telebista. 2008-2009 ikasturtean, 262.000 euroko inbertsioa egingo

MILAR ELKORO

Gu ere digitalizazioan murgilduta

Olarte 1, Arrasate, 943 79 74 49
elkoro@milar.es



Larraitz Zeberio *Goiena Magazinea* gidatzen du.



Usoa Agirre.



Eneko Azkarate.



Oihane Isasi eta Monika Montero, errealizazio mahai berrian.

Magazineak egunero dituen atalak

Astelehenetan

Debagoienean ezagun diren eta ez diren elkarten ordezkariek izango dira platoan, Txomin Madinarekin batera

Martitzenetan

Osasun arloarekin lotutako lagunen txanda da. Medikuek azalpenak eskainiko dituzte, Arritxu Barruso ondoan dutela.

Eguaztenetan

Nekazari mundua da protagonista. Baserritarrez gain, azokako postuetan ibiltzen direnak datoz, Miren Arregirekin.

Eguenetan

Ikus-entzuleek herriko alkateei galdetzeko aukera izango dute, Eneko Azkaratek gidatzen duen *Alkateekin zuzenean* tartearen bidez.

Egubakoitzetan

Aste bukaeran Debagoienean dagoen kultura eskaintzaren berri emango du Jon Berezibar lankideak.

du material eta azpiegituran. Arantzabalek jakinarazi du horiek hiru fasetan egingo direla: "Helburua da telebista guztia digitala izatea, kalitatean irabaztea eta lana modu optimizatuan egitea. Inbertsio horiekin, digital arorako prestatuta egongo da GOITB, eta profesionalen lana efizienteagoa izango da".

Berrikuntzak joan den abuztuan hasi ziren. Lehenengo fasean platoan eta errealizazio mahaietan egin dira aldaketak. Platoko kamera digital berriak jarri dira. Kamera horiek orain dela hamabost urte Arrasate Telebistan erabiltzen zituzten kamera analogikoak ordezkatu dituzte,

aro digitalerako zaharkituta zeudelako. Kamera robotizatuak dira gaur egungoak. Hala, mugimendu guztiak zuzenean errealizazio mahaitik kontrolatzen dira, eta, horrenbestez, ez dute kamera teknikaririk behar.

ERREALIZAZIO MAHAI BERRIA

Platoko kameraren aldatzeak, gainera, errealizazio mahai berria jarzea ere eragin du. Hori ere digitala da eta aurretik zegoena baino aukera gehiago ematen dituela jakinarazi du Arantzabalek.

Magazinea saiorako plato berria ere gertatu behar izan da. Etxeko Monika Monterorekin eta Oihane Agirrerekin batera, Jabi

Ulla argiztari eta diseinugileak jardun du. Magazinearen grafismoa Monika Monterorena da.

Bigarren eta hirugarren faseak urte amaiera bitartean egingo dituzte. Lehenik eta behin, artxiboa berrituko dute. Azken hamabost urteetako irudiak eta soinuak zintatan artxibatuta daudela esan du Arantzabalek: "Hori, egunen batean, pasatuko dute artxibo digitala izatera. Hemendik aurrerakoa, baina, disko gogorretan biltzen joango gara". Telebistako kazetariak, gainera, tresna berriak erabiliko dituzte. Aldaketa horiekin guztiekin azken produktuaren kalitatea hobetzea bilatzen dute.


IparProject
www.iparproject.com

Etxebizitzen ekipamendu integrala Merkatuen lehen markak
Mota askotako estiloak **Gremioen koordinazioa**



Etxean ekoiztutako eta kanpotik ekarritako saioak, guztiek dute tokia

Goienak eginikoez gain, tokiko beste telebista batzuek ekoiztutako eta ETBri erositako saioak daude programazioan

Martitzenetan eta eguenetan Danbakan parte hartzen dutenen kontzertuak ikusi ahal izango dira telebistan



Iker Barandiaranek *Ilunpean* egiten jarraituko du.



Goiatz Arana.

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Adin guztietarako askotariko programak ikus daitezke GOITBn. Batzuk Goienak berak ekoiztutakoak dira eta beste batzuk, berriz, tokiko beste telebista batzuek eginikoak dira. Tartean, ETBri erositakoak ere badaude.

Etxean zortzi saio egiten dira egun. Tartean, Danbaka musika lehiaketaren jarraipena egiten duen programa. Jakina denez, gaur, hilak 17, hasiko dira kontzertuak Elgetako Espaloian. Aurreko edizioetan egin den moduan, GOITBko lankideak zuzeneko kontzertu horiek grabatzera joango dira, ikusleek, gero musika emanaldiak jarrai ditzaten astero.



Julen Iriondo, kalean, kamera bizkarrean duela.



Xabier Urtzelaik *Harmailatik* saioa aurkezten du.

GOIENKARIA

'MUSIKANTOI'-KATSEDEN HARTU DU

Danbakak irauten duen bitartean, atsedenaldia hartuko du *Musikantoi* saioak. Mainer Arregik egingo ditu aurkezle lanak, bai Espaloian joko duten taldeak eta baita telebistan martitzenetan eta eguenetan egingo den saioa aurkezten ere. Danbakak, gainera, bere tartea izango du astero magazinean, kontzertuetako zati batzuk emitituz eta lehiaketan ibiltzen den norbait elkarrizketatuz. Dagoeneko Danbakako koordinatzaile Iker Barandiaran, esaterako, maganizean izan da.

Bestalde, martitzenetan emititzen den *Ilunpean* programa dago. Ikusle asko dituen programa da eta Euskal Herriko zazpi telebistatan ikusten da, Tokiko



Muka Muka marrazki bizidunak.



Mainer Arregik (ezkerrean) Danbakaren gaineko berriak emango ditu.

ARGAZKIAK: GOIENKARIA




1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

www.multiopticagipuzkoa.com

Eskaintza honen balioa 08/09/01etik 08/10/31ra artekoa da. Beslay 1.5 lente organiko gogortuak; zilindroa, +2; esfera, +2tik -4ra. Eskaintzaren balioa betaurreko bietan graduazio berdina izatekotan da, eta ezin da metatu beste promozioetara.

J. Carlos Guerra 1 Tel. 943 79 29 95 ARRASATE	Ibargarai 16 Tel. 943 76 15 75 BERGARA	C/ Nueva 15 - GROS Tel. 943 32 66 49 DONOSTIA	Bidebarrieta 2 Tel. 943 20 05 22 EIBAR	Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 ERRETERIA	Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Enp. Tel. 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 TOLOSA
--	---	--	---	---	--	--	---

R.B.S. Nº 190/04 L.L.G.

Telebisten Elkartearen bidez. Dagoeneko 170 gonbidatutik gora pasa dira platotik. Iker Barandiaranek jarraituko du denboraldi honetan programa egiten; 21:45ean hasiko da eta 45 minutu inguru iraungo du. Datorren martitzenean, Josu Loroño kazetaria ikusi ahal izango da Ilunpean-en.

SOLASALDIA ETA KIROLAK

Berbaire-n ere lehen zeuden aurpegiez gain berriak ikusi ahal izango dituzte ikusleek. Julen Iriondok egunean dagoen eztabaidagaiak galdetuko die hiru edo lau gonbidatari. Denboraldi honetan egunetan izango da, 21:45ean, eta ordubete inguru iraungo du.

Harmailatik kirol saioari dagokionez, Xabier Urtzelaik jarraituko du Debagoiengan ger-

tatzen diren kirol albisteen berri ematen. Bailarako taldeen jarraitpena ere egingo du, orain arte egin duen moduan. Gainera, denboraldiarekin zerikusirik ez duten debagoiendarren jardueren gaineko erreportajeak ere eskainiko ditu. Ikus-entzunezko zuzendari Iban Arantzabalen arabera, "Debagoiengan kirolaz egingo den telebista saiorik osatuena da".

Oihana Elortzak *Zaharrak berri* egiten jarraituko du. Erretiratuei zuzendutako ordu erdiko saioa da hori. Pertsona nagusiendako interesgarriak diren ekintzen berri ematen du. Datorren eguaztenean, esaterako, Bergarako San Josepe elkarteak antolatutako duen kultura hamabostaldiaren barruan dagoen eskulanean erakusketaz jardungo du. *Zaharrak berri* 20:30ean hasten da.

Horrekin batera, Goiena Telebistak bailaran gertatzen denarekin albistegia egiten du egunero; eta astero gaurkotasuna duen gai baten gaineko erreportajea ekoizten du.

TOKIKO TELEBISTAK

Tokiko beste telebista batzuek ekoiztutako artean, Erlo Telebistako *Gure saltsan* izeneko programa emitituko da. Etorkinekin euskara hutsean eginiko sukaldaritza saioa da. Hainbat herrialdetako platerak egiten ikasteko aukera eskaintzen du horrek. Platerak gertatzen dituzten bitartean, bertako egoerez eta hemen goaz hitz egiten dute. Ttipi-Ttapatik eta Oizmenditik *Eltze beroa* sukaldaritza saioa eta erreportajeak hartuko ditu eta Goierri Telebistatik, berriz, *Solaskide* elkarrizketa programa eta *Blogth*, Interneten gainekoa.

Xaloak nekazaritzaren gainean ekoiztutako *Ur eta Lur* programa eta *Ikusten* izeneko erreportajea ez dira faltako; ezta 28. Manaleko *Mugaz kanpo* bidaia saioa eta *28 klip* musika saioa ere.

ETBri ere hainbat produktu erosi dizkio: *Muka muka* eta *Katagorriak* marrazki bizidunak, *Goazemank* umore saioa, *Trikitraka* *Trikitron* umeendako pailazoak eta *Perretxikoen mundua* programa, hain zuzen.



Julen Iriondok aurkeztutako saioan kolaboratzaileen lana beharrezkoa da.

GOIENKARIA

ESANAK

"Debagoiengan kirolaz egingo den telebista saiorik osatuena da Xabier Urtzelaik aurkeztu duen 'Harmailatik'"

Iban Arantzabal > Zuzendaria

DATUA

8

SAIO

Zortzi saio egiten dira egun etxean: *Goiena magazinea*, *Harmailatik*, *Ilunpean*, *Danbaka*, *Berbaire*, *Zaharrak berri*, *Erreportajea* eta *Berriak* albistegia.

170

GONBIDATU

Ilunpean saioak ikusle asko ditu. Euskal Herriko zazpi telebistatan ikusten da. Dagoeneko 170 gonbidatutik gora izan ditu.

Kolaboratzaileen laguntza beharrezkoa da telebistan

Goiena telebistak, askotariko iritziak jasotzeko ahaleginean, politikariak, abokatuak eta soziologoak gonbidatzen ditu platora

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Goiena Telebistaren denboraldi berriak hainbat berritasun izango ditu; tartean, baita kolaboratzaile berriak ere. Telebistaren nahia ikusleari ikuspuntu ezberdinak eskaintzea da. Horregatik, askotariko kolaboratzaileak ditu GOITBk.

Hainbat kolaboratzaile eza-gunak izango dira ikusle gehientzat; izan ere, azken urteotan GOITBn ibili dira kolaboratzaile lanetan. Beste batzuk, ostera, berriak dira eta ilusioz beteta ekingo diote Goiena Tele-

bistako denboraldi berriari. Iban Arantzabal ikus-entzunezkoen zuzendariak esan digu telebistako "lankideek kolaboratzaileekin batera" egiten dutela telebista; eta aurrerantzean ere hala jarraitu gura dutela.

ASKOTARIKO IRITZIAK

Julen Iriondo kazetariak aurkeztu duen *Berbaire* saioan, astero, hiru edo lau kolaboratzaile izaten dira. Askotariko iritziak jasotzeko ahaleginean, politikariak, soziologoak, abokatuak eta beste hainbat lagun gonbida-

tzen ditu Iriondok. Aipatzekoak dira, politikarien artean, Elgetako alkate Oxel Erostarbe, Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga eta Aretxabaletako alkate Inaxio Garro. Arrasateko alkate ohi Xabier Zubizarreta ere eta Aretxabaletako alkate ohi Anjel Bergaretxe *Berbaire*-ko kolaboratzaileak dira. Bestalde, Larraitz Ugarte abokatua eta Urko Lopez ETEOko irakaslea dira telebistako aniztasunaren adibide.


OSASUNAREN TARTEA

Goiena magazinea-n, martitzenean Arrixu Barruso kazetariak osasunaren tartea izango du. Laguntzaile izango ditu Amaia Iriarte, Jone Beitialarrangoitia, Aitor Odriozola, Arantzazu Ugarte eta Arrate Bengoa.

ETXETRESNAK
Soinua, telebista, hozgailuak...
Matxiategi 3
943 76 12 22

Herran
BERGARA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Vegasa banatzaile ofiziala
Matxiategi 4
943 76 37 53



POLITIKA > HERRI GALDEKETA

Galdeketaren aldeko sinadura bilketa egingo dute bihar eta etzi

Bergara, Oñati, Antzuola eta Elgetako kaleetan izango dira sinadura bilketak

EAJ, EA, Aralar eta EBk hilaren 25ean Legutiora joateko dei egin dute

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Ibarretxe lehendakariak proposatutako herri galdeketaren aldeko sinadura bilketa egingo dute bihar ibarreko hainbat herritan. Ekimena EAJ, EA, Ezker Batua eta Aralarrek bultzatu dute.

Eguaztenean Bergarako kultura etxean egindako prentsurrekoan eman zuten horren berri Bergarako EAJko eta EAko kideek. EAJko Mikel Letek egin zuen berba: "Zapatuan hiru mahai jarriko ditugu Bergarako kaleetan; frontoi inguruan, Irala kalean eta merkatuan, Santa Marinaran". Ekimenaren helburua kontsultaren aldeko sinadura bilketa egitea da. "EAJ, EA, Ezker Batua eta Aralarrek bultzatutako ekimena da. Ekimenarekin lortu gura duguna da herritarrek, nolabait, alderdiek aurrera eraman gura duten ekintzei babesa adieraztea", azaldu zuen Letek. Modu horretan, herritarrek bat egingo dute Ibarretxek euskaldunen eskubideak aldarrikatzeko Europako Giza Eskubideen Epaitegiara joateko duen asmoarekin.

MAHAIK KALEAN

Bergaran zapatu goizean jarriko dituzte mahaiak, 10:00etatik



Jose Antonio Etxeberria, German Muruamendiaraz, Lauri Azkargorta eta Mikel Lete, deialdi egunean.

ARANTZAZU EZKIBEL

14:00etara. Esan bezala, hiru tokitan egingo dira mahaiak: frontoi inguruan, Irala kalean eta Santa Marinaran. Mahaietan ekimenaren bultzatzaileak diren lau alderdietako kideak egingo dira.

ESANAK

"Alderdiek aurrera eraman gura dituzten ekintzei herritarrek babesa ematea da helburua"

Mikel Lete > Bergarako EAJ

Antzuolan, Elgetan eta Oñatin ere jarriko dituzte galdeketaren aldeko mahaiak. Antzuolan, zapatuan eta domekan jarriko dituzte. Antzuolako plazan egongo dira 11:00etatik 13:00etara. Elgetan domekan jarriko dituzte mahaiak, plazan, 11:30etik 13:30era. Oñatin ere zapatuan eta domekan jarriko dituzte: zapatuan plazan eta Olakuan, eta domekan plazan eta Arantzazun. Bi egunetan ordutegia 11:00etatik 13:00etara izango da.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Eguazteneko prentsurrekoan, gainera, urriaren 25ean Legutiora egin behar duten ekitaldiaren berri eman zuten. "Berez, konsul-

ta eguna izan behar zuen urriaren 25ak; baina ez denez egingo, Legebiltzarrean kontsulta babestu dugun alderdiek *Hitza* hitz ekimena antolatu dugu", esan zuen Letek. Ibarreko ordezkariak Legutiora joatea egokitu zaie. Han, erabakitze eskubidea aldarrikatzeko, herritarrek, *Euskal Herria*, *Bakea*, *Erabakia* eta *Bai* berbak osatuko dituzte.

Legutiora joateko autobusak jarriko dituzte ibarreko herrietan. Oraindik zehaztu barik dagoen arren, horren berri emateko martitzenean prentsurrekoa egingo dute Oñatiko kultura etxean, 18:00etan. Han izango dira lau alderdietako alkate, zinegotzi eta ordezkariak.

KANPAINA BERRIA

Aransgi, 'Gizarte irisgarri baten alde'

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Aransgik, Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkarrekin, sentsibilizazio kanpaina berria aurkeztu zuen atzo, *Gizarte irisgarri baten alde* leloarekin. Helburua pertsona gorrendako eta gor-itsuedako gizarte irisgarria eratztea da. Horretarako hainbat ekintza egingo dituzte; besteak beste, hitzaldiak, kontzertuak, antzerki emanaldiak eta kongresua. Era berean, Donostia, Tolosa eta Bergarako egoitzetan kanpainaren kartelak jarriko dituzte.

Bestalde, enpresa pribatuetara, museoetara, zinematara eta erakusketetara kanpaina berriko liburuxkak bidali dituzte.

> ETXEBIZITZAK

Etxebideko eskaerak berritze azken eguna astelehena da

Etxebiden duela lau urte edo gehiagoz izena emanda dutenek eskaera berritu behar dute astelehena baino lehen. Eskaera berritzen ez dutenei, automatikoki Etxebizitzaren Eskatzaileen Erregistroan baja emango diete.

Eskabidea berritze Etxebideko webgunean sartu behar dute interesatuek, eta *Eman izena Etxebiden* sailetik berrikuntza idatzia eskuratu dezakete eta ordenagailuan bertan bete.

Aurretik Etxebiden izena emanda zutenek posta bidez jaso dute eskabidea berritze inprimakia.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

gure artekoak

OPEL VIVARO > Vivaro furgoneta 2003. urtean merkaturatu bazuten ere, 2007. urtean goitik behera berritu zuten. Mikel Tatiegi Berezaoko arduradunak azaldu digu, erabilera askotariko furgoneta dela Opel Vivaro.

Mikel Tatiegi > Berezaoko etxeko arduraduna

"Erosoa, segurua eta erabilera askotarikoa de Vivaro autoa"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

"Furgoneta izan arren, auto bezala erabiltzeko ere balio du. Erosoa da eta, ere berean, segurua. Erabilera askotariko autoa dela esan daiteke", dio Mikel Tatiegik Berezaoko kontseziariko arduradunak.

"Familiarentzat, aste bukaera pasa doanarentzat edo lanerako furgoneta gura duen edonorentzat da egokia Vivaroa autoa", dio Tatiegik nori zuzenduta dagoen galdetuta. Lehenengo auto bezala erabiltzen dute batzuek, eta lanerako furgoneta bezala beste batzuek.



Mikel Tatiegi, Berezaoko arduraduna, Vivaro furgonetarekin.

A.E.

BOST AUKERA

Opel Vivaro autoak bost ekipamendu aukera eskaintzen ditu: furgoneta, kabina bikoitzeko furgoneta, konbia, plataformadun kabina eta Tour; azken hori turismo bezala egokituta dago, eta ekipamendu aukera zabalagoa eskaintzen du. Gainera, bi luzera daude aukeran: 4,78 metro eta 5,18 metro.

MOTORRAK

Hiru motor aukera daude: 90, 114 eta 146 zaldi potentziakoak. Motor guztiak dieselak dira. Bestalde, bi aldaketa kaxa mota daude: sei abiadurakoa eta Easytronic-
eskuz aldatzekoa edo automati-

Opel Vivaro 2.0 CDTi 114 ZP

Prezioa	20.008 euro
Luzera	4,78 metro
Zabalera	1,90 metro
Maletategia	1.630 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	7,9 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	160 km/h ⁽³⁾
CO2 isurketak	214 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

koa dena. Easytronic aukera 2.5 CDTi 146 ZP motorrak bakarrik eskaintzen du.

Vivaro furgonetak bi, hiru, bost, zazpi, zortzi edo bederatzi eserleku izan ditzake. "Norberaren gustura egoki daiteke barnealdea. Eserlekuak aldatzea, gainera, oso samurra da", adierazi du Tatiegik.

Segurtasunari dagokionez, ABS eta ESP sistemak azpimarratu behar dira. ESP sistemak egonkortasuna kontrolatzeko balio du. Gainera, Vivaro autoak traxioa kontrolatzeko aukera eskaintzen du, segurtasuna bermatuz.

etxeko leihotik



Eneko Azkarate > 'eazkarate@goiena.com'

Errege Seminarioa, Bergarako herriarena

Bergarako Seminarioa hemengo erakundeena izango da aurrerantzean. Espainiako Estatuak Mendizabalen desamortizazioarekin hartutako ondasuna Uned-Bergara patronatuak eskuratuko du, milioi bat euro ordainduta. Udalarari 100.000 euro kostatuko zaio.

Pozteko moduko operazioa da, ze horrek ahalbidetu dezake eta, asmoak betetzen badira, Uned-Bergara kokatzea Arrihuriagan. Bestalde, auditorioa Seminarioan beharrean Miguel Altuna institutuak Ibargarain duen orubean egin nahi dutenez (toki egokiagoa), Aranzadi ikastolari irtenbidea ematen zaio eskaintza akademiko guztia Seminarioan batzeko; eta, San Martin ikastetxe-ari, falta zaizkion gelak Martinez Iralak kokatzeko. Bestalde, Arrihuriagan egitekoa zen liburutegiari beste kokapen bat ematen zaio herri erdi-erdian: Seminarioa. Irtenbide globala emateaz gain, konpontzen da orain dela urtebete eskolen artean bizi zen tentsio eta egonezina.

Itzalak ere baditu, tamalez, irtenbideak: atzeratu egingo dira Bergararendako ezinbestekoak diren ekipamenduak, batez ere auditorioa eta Udal Liburutegia.

"Pozteko moduko operazioa da, baina itzalak ere baditu, halere"

> **Asmoak gauzatzeko dirua ere behar da eta horixe da, hain justu, gutxi dutena gure erakundeek; krisiagatik, gutxiago. Auditorioa Bergaran, San Josepe berria Arrasaten..., ikusiko ditugu?**

> **Dendariek eta Udalak azoka antolatu dute biharko Bergaran. Horrelakoak eta gehiago beharko dituzte herriko (eta ibarreko) dendariek jendea Gasteizera erostera joan ez dadin. Zorte on!**

begi-bistan



Domingo Irala (Bergara) 2008/10/14

Argazkia: Arantzazu Ezkibel.
Testua: Arantzazu Ezkibel.

Bergarako Domingo Irala kalean martitzenean jarri zituzten palmondoak. Behin lanak amaituta, azken ukituak ematen dabil-tza. Guztira sei palmondo jarri dituzte kaleko lorategietan.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Jasone Mendizabal

TOPAGUNEA



Ane Herrero

ESKUBALOIA



Maidier Egues

KAZETARIA

Jasone Mendizabal arrasatearra da Topaguneko zuzendaria. Asteon, Mendizabalek eta Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikako sailburuordeak hitzarmena sinatu dute *Mintzalaguna* programarekin aurrera jarraitzeko. Programak 2.500 lagun ditu.

Arrasateko Ane Herrero Donostiako Akaba Bera Bera taldean jokatu du denboraldi berrian. Azken urteotan Alohna Mendiko gazte mailan ibili da Herrero. Gainera, Euskadiko selekzioarekin ere hainbat eskubaloi txapelketa jokatu ditu Herro arrasatearrak.

Maidier Egues arrasatearrak zuzentzen eta aurkezten duen *Teknopolis* saioaren denboraldi berria hasi da. Zientzia saioa eguazten gauean emango dute aurrerantzean, ETB3 katean. ETB1en eta ETB2n errepikapena emango dute, aste bukaeretan.

Xabier Odriozola (Donostia, 1968) antropologoa Euskal Herriko maskulinitas mugimenduaren bultzatzailea eta menduaren bultzatzailea eta gizon taldeen koordinatzailea da. Berdintasuna lortzeko emakumeen aldarrikapenekin bat egiten duten gizonezkoengana heldu gura du On:Giz Elkartearen eskutik. Sexu berdinketaren gaineko mahai inguruan parte hartuko du Arrasaten.

Xabier Odriozola > Euskal Herriko maskulinitas mugimenduaren bultzatzailea

"Matxismoari bultzada ematen dioten rol sexistak deuseztatu behar ditugu"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Arrasateko Emakume Txokoak antolatuta, sexu berdinketaren gaineko mahai ingurua egingo dute hilaren 23an, 19:00etan. Besteak beste, Xabier Odriozola antropologoa egingo du berba maskulinitas mugimenduari buruz. Mahai inguruan kontatuko duena aurreratu digu ondorengo lerroetan.

Hitzaldia egingo duzu hilaren 23an Arrasaten. Zeri buruz egingo duzu berba?

Friego, luego existo liburua egile Luis Cerron psikopedagogoa eta biok parte hartuko dugu. Nik gizonezkoak sexu berdinketaren aurrean dugun jarraz eta On:Giz elkartearen gainean egingo dut berba.

Zein da On:Giz elkartearen egiten duzuen lana?

Batez ere gizon taldeekin egiten dugu lan. 20 urte pasa dira Euskal Herrian maskulinitas mugimendua sortu genuela, eta urte hauetan plataforma bat eratu dugu. Gure helburu nagusiak dira gizarte sexista eraldatzea, sexismoa bertan behera uztea eta gizonezko berdintasunera bidera eroatea, emakumeek diseinatutako politikekin bat egiteko. Hori guztiori posible egiteko maskulinitas mugimenduaren aldeko apustua egiten duten gizonezkoak behar ditugu.

Berdintasunerako bidean gizonezkoek duten jarrerari buruz, ze irakurketa egiten duzu?

Gizon taldeetan lan eginez, irakurketa bat egiteko nahiko informazio bildu dugula esango nuke. Gizarte honetan maskulinitas patriarkal ereduak jaso dugu gizonezko gehienok, munduarendako eta bertan bizi diren emakumeendako eta gizonezkoendako oso kaltegarria dena. Patriarkal ereduaren bidez inposatzen zaigu txikitatik, eta horiek dira indarkeriaren, injustiziaren eta desorekaren sortzaile nagusiak. Hortaz, hezkuntzarekin sortutako rol horiek hezkuntzarekin deusezta daitezkeela uste dugu. Era berean, beste hainbat baliotan oinarritzen diren pertsonak eraiki ditzakegula uste dugu; besteak beste, demokrazia, justizia, lankidetzeta eta maitasun baliotan oinarritutako pertsonak.

Hortaz, rol matxistak desagertzeari ezinbestekoa da berdintasuna lortzeko?



Xabier Odriozola antropologoa.

DANI BLANCO

Bai. Rol sexistak dira matxismoari bultzada ematen diotenak. Era berean, matxismoa da justua ez den gizarte bizi irauten duena. Hortaz, gizonezkoak uko egin behar diegu rol sexistei, horiek dira eta emakumeak zapaltzera eroaten gaituztenak. Rol sexistek injustiziak biltzen dituzte euren baitan. Hogei urteotan, gizon taldeetan parte hartu dutenek rol sexistak deuseztatu dituzte. Baina banaka lortutako helburuek ez du askorako balio, gizartearen aldean rol sexistak aldatzen ez baditugu. Hortaz, norbanakoengatik hasita, gure helburua da gizarte aldatzea. Horren harira, banakako lana egiten dugunean prozesua barneratzeko eta fruituak emateko egin beharreko prozesua zehazten dugu.

Gizonezko guztiek dute ikuspuntu berbera?

Gizonezkoak hiru taldetan banatuko nituzke: talde batean

EREDUA

"Maskulinitas patriarkal ereduak jaso dugu gizonezko gehienok"

GIZONEZKOAK

"Emakumeen aldarrikapenaren alde daudenengana heltzen gara samurren"

EKINTZAK

"Erakundearen bitartez, hitzaldiak, ikastaroak eta mintegiak ematen ditugu herririk herri"

daude emakumeen mugimendurikiko urruti dauden gizonezkoak (Euskal Herrian %15, gutxi gorabehera). 55 urtetik gorakoak, herri txikitetan bizi direnak, ikasketa gutxi egin dutenak eta informazio gutxi dutenak sartzen dira talde horretan. Hau da, berdintasunarekin hartu-eman zuzena duten pertsonekin bizi ez diren gizonezkoak. Talde horretako gizonezkoek ez dute emakumeen aldarrikapena onartzen, gizonezkoek duten estatusaren galera ekarriko lukeela uste dute. Hortaz, kolpatuak sentitzen dira eta defentsibane jartzen dira. Era berean, talde horretako gizonezkoen artean genero indarkeria handia sortzen da.

Bigarren talde batean daude emakumeen aldarrikapenekin bat egiten duten gizonezkoak, euren burua berdintasunaren alde ikusten dutenak. Dena den, talde horren barruan beste hiru azpi-talde banatuko nituzke: alde

batetik daude emakumeen aldarrikapenaren alde daudenak, baina euren estatusaren aldaketarik gura ez dutenak; beste alde batetik, emakumeen mugimenduaren alde egin baina erabat kontentzituak ez dauden gizonezkoak daude; azkenik, berdintasuna lortu ahal izateko arazo bat dagoela onartzen duten gizonezkoak daude. Azken horiek emakumeen aldarrikapenaren alde jartzen dira, berdintasunera heltzeko euren inplikazioa nahitaezkoa dela dakite eta.

Badaude inolako interesik erakusten duten gizonezkoak?

Bai, eta horiek sartuko lirarteke hirugarren taldean: gutxi gorabehera %8. Ez dute parte hartzen eta ez dute arazoa kontontzeko laguntzarik ematen. Talde horretako gizonezkoek ez dute onartzen matxistak direnik eta berdintasunaren kontra daude. Hortaz, gure lana batez ere talde horrengana zuzentzen dugu, alde dagoen taldearekin bat egin eta berdintasunaren aldeko mugimenduak ahalik eta gizarte sektore gehien biltzeko.

Erraza da gizonezkoengana heltzea?

Emakumeen aldarrikapenaren alde dauden gizonezkoengana iristea da errazena, kontzientek dira eta. Kasu horietan eurak etortzen dira guregan, aldatu beharra dagoela ikusi baina aldaketa nola egin ez dakitelako. Gainerako kasuetan zailagoa da, berdintasunarekin dena galtzeko arriskua dutela uste dute eta.

Ze ekintza antolatzen dituzue gizonezkoengana iristeko?

15 urtean isilean ibili ginen lanean, baina azken bost urteotan gure lana ezagutzera eman dugu eta erakundeak etorri dira guregan. Hortaz, euren bitartez ematen ditugu hitzaldiak, ikastaroak eta mintegiak. Horren harira, gizon taldeak sortzeko aukera izaten dugu herririk herri.

Gizon taldeen ordezkariak batzeko Gizon Sarea sortu zenuten.

Euskal Herrian dabilten 14 gizon taldeak biltzen dituen erakundea da eta talde guztien antolakuntza eta koordinazioa egiten dituen. Gure helburu nagusia gizarteratzea da, eta lanean jarraitzeko asmoa dugu.



zabalik

Joxe Ramon Elortza

Izan ala ez izan

Debagoiengan bizi gara, kooperatiben mugimendua gehien garatu den bailaran. Lan-errodaren gehiengoa askogatik kooperatibista izanik, gure bailarako langileok ondo ezagutzen dugu zer diren demokrazia, parte-hartzea, kritika edota ekarpenak egitea, erabakiak hartzeko prozesua, kargu soziala eta ordezkarien aukeratze prozesuak, enplegu eskasiaren garaia kooperatiben arteko elkar laguntzak, e.a.

Elkarrizketa, lankideen iritziak errespetatzea, dirua aurretea eta inbertitzea, elkarrenganako solidaritatea, demokrazia jokatzeko, erabakiak bereganatzea, parte-hartzea, batasuna... egunero aplikatzen diren kontzeptuak eta jarrerak dira. Balioak, esan beharko nuke. Zenbait hobekuntzaren beharrean, baina baikor eta itxaropentsu bizi dugu errealtate hori. Horretan, gure eskualdeak badu dagoeneko eskarmentu bat, beste zonalde batzuekin alderatuta.

Dugun eskarmentu hori igarri egin beharko litzaiguke enpresatik kanpoko bizitzan ere, baina ez da hori gertatzen. Krisi ekonomiko bati aurre egiteko enpresetan erakutsi dugun batasuna ez dugu ikusten politikamunduan ditugun arazoan aurrean. Besteen iritzia ez zaigu interesatzen, alderdien artean ez dago elkarrizketarik. Kooperatiban dirua aurrezten ari garen bitartean, kontsumismoa nagusi gure eguneroko bizitza pertsonalean. Solidaritatek ez biktima eta presoekin. Norberekeria.

Bi bizitzeko era ezberdin aurrez aurre. Etorkizunari begira... zeinek irabaziko dio besteari? Izan ala ez izan! Izateko bidean, eta bakea lortzeko, alderdietako politikariek duten gaitasun eza ikusirik, zergatik ez aplikatu lan munduan erakutsitako trebezia eta jarrera horiek guk bailarakook hainbat ekimen martxan jarritz?

Eredu izango ginatete.

"Krisi ekonomikoari aurre egiteko dugun batasuna ez dugu ikusten politikan"

"Zergatik ez aplikatu laneko jarrerak bailaran hainbat ekimen martxan jarritz?"

herritarrak galdezka

OÑATIKO GAZTETXERA, ZE ADINETIK AURRERA?

Oñatiko irakurle batek deitu digu honakoa kontatuz: "Ludoteka berria 12 urtera artekoendako dela argi daukat; gaztelekua, 17 urtera artekoendako; baina jakin gura nuke gaztetxera joateko gutxieneko adina zein den".

Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateari egin diogu gure irakurleak planteatutako galdera. Hauxe erantzun digu hark: "Kodigo Zibilean oso argi esaten da Udalak bere gain hartu behar duela adingabekoen aisialdia. Hortaz, bate-tik ludoteka daukagu, gutxi gora-behera 3-12 urte artekoendako; eta gaztelekua ere badago". Baina honakoa gaineratzen du alkateak: "Gaztetxea beste alternatiba bat da, ez dago araututa. Esan bezala, Udalak adingabekoen aisialdia hartzen du bere ardurapean, baina 18 urteko adina ezin daiteke neurtzeko modua izan. Hala, baliteke, esate baterako, 16 urteko batek gustuko ez izatea gaztelekuko ekitaldi bat, gaztetxea gurago izatea... Gehiago baldintzatuko du ekitaldiak gustuko dituen ala ez".

AUTOA ELKARREKIN, ARRASATEARRENDAKO SOILIK? Hurrengo galdera ere Oñatitiki datorkigu: "Autoa Elkarrekin izeneko ekimenean Arrasateko Udalak parte hartzen duela badakit, baina arrasatearrak ez garenok ere erabil dezakegu zerbitzu hori?"

Arrasateko Udalak bat egin zuen bere egunean Autoa Elkarrekin egitasmoarekin. Helburua da jende-erraztasunak ematea antze-

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com


ko ibilbideak egiten dituztenak harremanetan jar daitezten. Hasieran, denoi zabalik dago zerbitzua, www.arrasate.compartir.org webgunean nor bere datuak sartuaz; baina Arrasate-ara bereziki egokituta dago.

Udaleko Iraunkortasun teknikari Nerea Lazpiurrek azaltzen digu zelan funtzionatzen duen zerbitzuak: "Datu base hori Kataluniako enpresa batek eskaintzen du, eta udal edo komunitate batek aukera du hori bere webgunera egokitzeko. Hortaz, leku jakin batzuk agertzen dira: Fagor, San Andres..." Hala ere, datu basea orokorra da eta edozeinek erabil dezake. Hala, menuan Oñati, Bergara... ere agertzen dira.

Nork bere datuak eta premiak sartu eta gero, ibilbide bera egiten duten lagunak harremanetan jar daitezke. Arrasateko Udalak ez du informaziorik ze talde sortu diren, harreman horiek pribatuak direlako, baina baditu webgunearen erabileraren gaineko datuak. Hala, aurtengo urtarrilean, denetara, 4.100etik gora bisita zituen guneak; irailean dituen gehien, eta iaz 425 izan zituen.

marraskiz

Unai Busturia



Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredaktzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larrait Zuberio, Arribu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikua, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldeg, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Bereziartua, Aintzane Muruamendiarriz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereziartua, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurilaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaleta Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

'Gazteak', beste serie mitiko bat euskaraz eskuragai!

Igor Leturia
eibar.org/blogak/e-gorblog

Aurrekoan, *Arturo erregea*-z ari ginela, esaten genuen apenas dagoela marrazki bizidunetako gazte-txoentzako serierik euskaraz DVDn, eta ETB1en ere oso gutxi ematen dituztela. Ba irudi errealeko helduentzako seriee-

tan panorama are okerragoa da. Urteak dira ETBk erosten dituen kanpoko serie guztiak ETB2n eta gazteleeraz ematen dituela, ETB1 bertako produktora mugatuz (honen salbuespen bakarra *Heroes* seriea izan da, eta hala ere gauza oso arraroa egin zuten: euskarara doblatu bai baina gero ETB2n eman, dualen emitituko zutela esan eta gero bete ez, euskarazko doblajea DVDraiko soilik utzi...). Noiz izango ditugu kanpoko serieak euskaraz berriz?

Lehen bai, lehen ematen zituzten irudi errealeko atzerriko serieak euskaraz, eta

onak gainera: *Cagney eta Lacey*, *Ederra eta piztia*, *Emakume bionikoa*, *Magnum*, *Quantum jauzia*, *Simon eta Simon*, *Ilunabar aldea*, *Epailea eta pilotua*, *Dallas*, *Eskugorri taldea*, *Gazte bizkorak*... Eta onenetakoa, zalantzarik gabe, *Gazteak* (*The young ones*), britaniar komedia surrealista eroa. Garai haiek bizitako nor ez da gogoratzen Neil hippyaz, Rick anarkistaz, Vyvyan punkyaz, Mike rockabillyaz edo Jerzei Balowsky maizterraz?

Ba Euskal Encodings-ekoei esker, berriz ere gozatu ahal izango dugu serie honekin, eta

plazara

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna eta Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean irakaslea da Juan-
kar Olaeta. Sexu berdintasunaren

inguruko albisteak aintzat hartuta, filosofia, erlijioa, etimologia eta beste arlo batzuetan oinarritutako gogoetak plazaratzen ditu bi

zatitan argitaratuko den artikuluan; umorerik ere ez da falta. Gaurkoan, gizona kototasunaz, arrakasta sozialaz... jarduten du.

Juankar Olaeta *

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna? (I)

Gizona, izenez "giza ona" (harrapa ezak/n) izan arren, ez da sarri, *izanez*, oso bertutetsu; eta tragikoki *bertutea* (vir, viri=arra, gizona) gizonaren berdina izatearekin parekatu nahi digute: emakumea gizonaren berdina bihurtu, eta orduantxe, emakumea ere bertutetsua (=vir =ar), alegia, arrakastatsua (exitus=irteera, kanpoaldea, itxura, ad extra lortua). Denok salbatuak, *Emmanuel!*

Orobat, Frantziako Iraultza burgesean (derradan etnozentrismo eta patriarkalean) ere *berdintasuna* lelo: denok berdina. Zerekiko berdina, ordea? Erantzuna, gordinki eta bortizki, samur-samurra: zintzoki, denok halabeharrez, gizonki, *franko* (franko-godo uler bedi), hori bai, askatasunez eta anai-arrebata-sunez, hau da, Égalité, Liberté, Fraternité. Horixe onartzen ez duen oro, noski, *atzerakoi*, *ez progresista*, *retrogrado*, *reakzionario*, *ez-moderno*, *itsu*, *ez-illustratu*, *pribilegio-zale*, *basati*, *ez-kultu*, *ez-jakin*, *biolentzia-zale*, *txokokerian murgildu*, *ez unibertsalista*, *ez kosmopolita*, *basaherriko*, *ez hiritar*... demagun, euskaldun. Ondorioz, frantses kultibatuak izan behar denok, eta moderno-modernoak.

Orain, nonbait, emakumeak ere gizon izan behar, benetan "homologatua" (etimologia librean homo, hominis= gizaki + logos= arrazoia, logika, zientzia, jakintza...) izateko, gizonaren logika hartu behar. Susmoa aspalditik banuen ere, gizon eta emakumearen arteko berdintasunaren beharraren karitik,



MIKEL ARROIABE

EITBko urriaren 2ko albistea aditu ostean, zalantzak ia-ia xatu egin zitzaizkidan:

Esatariak -emakume homologatua bera ere-: *berdintasun behar hori irudikatzen "20 mujeres de éxito"* (epaileak, sendagileak, legebiltzarkideak, idazleak, ondo exekutitzen duten exekutiboak, exekutiboko kideren bat...) *agerraldia egin zuten*. Esperotako ondorioa: *amatxo maitea, zu ez zaude "homologatuta"*, ez ei zara-eta "mujer de éxito", ez ei duzu bizitzan arrakastarik lortu. (Esan dezadan, bide batez, eta badaezpada, aitaxo, zu ere ez zaudela *persona arrakastatsu* bezala "homologaturik", ez duzu-eta lortu bizitzan

"Frantziako Iraultzan ere, berdintasuna lelo. Zerekiko berdina, ordea? Erantzuna: zintzoki, denok gizonki, franko"

"Amatxo maitea, zu ez zaude 'homologatuta', ez ei zara-eta 'mujer de éxito'; aitaxo, zu ere ez zaude 'homologatuta'"

éxito-rik, *éxito* ugari (latinetik=irteera) burutu arren-taxista izan dugu aita oraintsu arte.

Susmoa dut gaur egun bizitzaren arrakasta *ad extra* neuritzen dugula, agian, *ad intra* (= barrura begira) ezintasun gaindigaitzak ditugulako, *intra* dugunik/garenik ere lar ahazturik dukegulako.

Beharbada, hori dela-eta, etengabe *irudia* kanpora proiektatu nahian jarduten dugu, *traiektuan* (=bizitzan zehar) emankor denik gutxi *introiektatu* (= barneratu) gabe. Zinez, zer bizi- eta gizarte-*proiektu* edukiko dugu orduan, arrakasta prometeiko/patriarkal/falikoaren irudiaz haratago?

Berehala, berdintasun lortuaren eredu gisa aurkezten zaigun emakume *homologatu* exitoso bati (sendagile arrakastatsua bide da) eman zitzaion hitza, eta orduan ere, euri zaharra: *lanbide honetan, gaur egun, dagoeneko, emakumeok "dominamos"*. Alegia, gizonkeriaren arketipo patriarkala onartua, bereganatua eta hobetua: dominus= jauna, menperatu egiten duena. Nire irudikoz, Jauntxokeria larregi gure etxe (=domus) gertu eta urrunetan ere.

Barkatuko didazue, baina gizonkerietan lotsa hartzen duen honek -esan gabe doa, baita nireetan ere, noski-, ez du behar emakume itxurako gizon gero eta gehiago, ez du nahi gizarte gizona...

*Juankar Olaeta Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna da.

zer deritsozu?

www.goiena.net

Kezkatzen zaitu bankuen egoerak?

BAI	%42,9
EZ	%57,1

> BEREZIKI EZ

Estatu aberatsek ez dute banketxeen lur jotzea ahalbidetuko, baina ez dute arazo konponduko. Ez baitira ohartu sistema ekonomiko honekin ez goazela inora, diru publikoa banketxe elitistiei zuzenduz etorkizunik ez dela.

Simon

> GASTUAK MURRIZTU

Bai, kezkatuta nago. Laguntzarik ez daukagun bitartean, gure gastuak murriztea besterik ezin dezakegu egin.

Laura

> SISTEMA BERRITZEKO

Igoal krisia ona izango da sistema berritzeko. Banketxeek ez naute kezkatzen. Txarrena, zulora jausten dabilzan familiak.

Edurne

> DENOK ZULORA

Denok gorrotatzen ditugu banketxeak baina denok behar ditugu! Beraz: banketxea zulora badoa, gu ere bai. Noski!

Jesus

DATORREN ASTEKOA: AEBetako hauteskunde-ek ezer aldatuko dute?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

- top

euskaraz! Bertan jarri dituzte seriearen 12 kapituluak, gu guztion gozamenerako. On egin!

Gabriel Arestiren urteurrenean

Joxe Aranzabal
goiena.net/blogak/faroa

Aztzo lanetik irtendakoan, autoan sartu eta Angel Zelaietari entzun nion Euskadi Irratian, Gabriel

Arestiren gainean hitz egiten. Aspaldi irakurria nuen Zelaietak idatzitako biografia Arestiri buruz; hala ere, gustura entzun nuen atzokoa. Gogora etorri zitzaizkidan Gabriel Arestiren irudiak hitzaldi bat ematen Deustuko Unibertsitatean: irakurri egin zuen euskaraz, azentu arrotzarekin. Baten batek esan zuen ordurako oso gaixorik zegoela. Handik gutxira, hil egin zen.

Kontakizunean aurrera, Zelaietak ELA berri aipatu zuen, Eladioak, eta aipatu zituen orduan oso gogor egin zutelako Arestiren kontra. Aurpegia ilundu zitzaidan

orduan, garai hartan neu ere hantxe ibili bainintzen, nahiz eta artean oso gaztea nintzen. Lotsatu egiten naiz orduan izandako jarrerarekin, bidegabea zelako, eta jarrera hark elikatu dituelako, neurri handi batean, gerora etorri diren muturreko beste asko.

Lotara egiterakoan, liburu apalategian arakatu, eta Gabriel Arestiren poema liburu bat hartu nuen. Argia itzali aurretik, hark sortutako munduan barrena abiatu nintzen. Nire omenaldi xumea izan zen, Gabriel jaio zela 75 urte betetzen diren honetan.

koplak

Eñaut Uriarte

Oraingo krisia, aspaldiko hipokresia

Banketxetan likidezarako ez da dirurik geratzen aldi berian horko ugazabek heuren sakelak betetzen.

Oparotasunean lapurtu bezero askori gero orain krisia heldu darian bihurtu gure boro.

Bankuak hortxe boro gisa kumplitu dadin zigorra dirua merketu ein da baina gora doa euriborra.

Domekan euki gendun Madrilen Guardia zibilen eguna pentsa haiek gabe oraintxe bertan aurreztu dezakeguna.

Afganistanen ere badaude nik ez dakit zenbat tropa eta jende askoren kartilla hementxe dago lur jota

Nahi dabena esango dau oraintxe ekonomian doktrinak baina azken finean gu gara erru gabeko biktimak.

(Eskoriatzako) Ezker Batua, nor engainatu nahi duzue?

Pedro Lasagabaster
(Eskoriatzako alkatea)
Eskoriatza

Eskoriatzako Ezker Batuak oraindik ere ezin du gainditu 2007ko Udal hauteskundeetan jasan behar izan zuen deskalabrua. Badirudi bertako komunikabideetan falta duen protagonismoa irentsi ezinik dabilela, hedabideen *monomediaticoa* duela.

Aurreko agintaldian egun guztia hedabideen aurrean ematen zuten eta bazirudien EA eta PNV alderdiekin batera *zuzentzen* zuten Udala behar bezala atentitzeko denborarik ez zeukatela. Hain da horrela, Santa Marinar egindako Udal etxebizitza tasatuetan prezio duina lortzeko ere ez zirela kapaz izan. Baina... Madrazorekin batera argazkia ateratzeko... denak pronto. Eta orain, orduko zozketan *zorioneko* izan zirenek ezin dituzte etxebizitzak ordaindu. Bitxia benetan etxebizitza sozialen alde orduan egindako politika!

Testuinguru horren bueltan ulertu behar dugu Eskoriatzako Ezker Batuko ordezkariak Aranburuzabalako plan bereziari buruz egin duten propaganda gaiztoa. Ez inori utzi zuek engainatzen:

Aranburuzabalaren etxebizitza tasatuak eta parke publiko bat egingo dira eta orain estalita eta esku pribatuetan dagoen Deba ibaiaren zati bat bistaratu egingo da. Guztia, Eskoriatzako herriaren onerako izango da. Horrelaxe ulertu zuten Eskoriatzako udalean ordezkartuta dauden alderdi gehienek. Ez Ezker Batukoek; eurek sekula ezin izango dute esan plan honen garapenean lagundu dutenik. Ezta EAKoek ere.

Zorionez, denborak eta hauteskundeek erakutsi digute herritarrek ez direla ekintza populista eta demagogia merkearekin engainatzen. Gauzak, gutxienez, ondo egin behar dira. Ekintzek gardenak izan behar dute. Herritarrek nahi dutena entzun eta haien borondatea bete behar dugu guk. Eta, zer esanik ez, zaharkitutako estalinismo hutsalak alboratu beharra dago.

Historiako filosofo handienetako batek ondo esan zuen moduan, ezkeriarrok aktiboki lan egin behar dugu bizi dugun gizarte bidegabe hau eraldatzeko. Eraldatze horren alde lan egiteak militantzia eta sakrifizio handia eskatzen du. Beraz, teoria gutxiago eta praktika gehiago. Zoritzarrez, badirudi Eskoriatzako Ezker Batua alderdiko egungo zuzendartzak ez dituela gauzak aldatu nahi, kontrakoa esaten badu ere. Betiko historiaren bidea jarraitu nahi dutela dirudi, eta betiko historia horretan

inporta den bakarra agintearen boterea da; nabarmentzea eta maneiatzea.

Ziur naiz, denborak bakoitzaren bere lekuan jarriko gaitu!

Osakidetzari, eskerrik asko!

Amparo Osinaga Egidazu
Arrasate

Orain dela gutxi gure ama hil da, baina eskutitz honen helburua ez da gure nahigabe eta tristezia handien berri ematea, une goxo eta atsegine-na baizik. Hain zuzen, momentu hauetan jendeaurrean jarri nahi duguna honako hau da: Debagoienean Osakidetzak duen etxeko ospitaleratze zerbitzuari, gure amaren gaixotasunean zehar bi bider ezagutu ahal izan dugun zerbitzuari, eskerrak ematea. Amaren gaixotasun terminalaren berri bageneukan, baina horri aurre egiteko sekula ez da prest egoten.

Amarentzat berarentzat nahiz guretzat hain latzak izan ziren une haietan, jakin badakigu amari lagundu egin geniola; guk geuk, senideak garen aldetik, eman genion laguntza gain, profesional gaituen lan onbera ere jaso baitzuen. Hori gabe, zalantzarik ez, asko ez ere gogorragoa izango zen.

Horregatik, zerbitzu hori osatzen duten Arrasateko

taldeari eskerrak eman nahi dizkiogu, gure amaren gaixotasun eta heriotza eramaten eta gainditzen lagundu digute eta.

Zerbitzu horretan ezagutu ditugun pertsonak banan-banan izendatu beharrik ez dagoela uste dugu, baina denak beti gure gogoan izango ditugula, esker onez, adierazteko premia sentitzen dugu. Gure esker ona eman nahi diegu, baita, Debagoieneko Eskualdeko Ospitaleko eta Arrasateko anbulatorioko gainerako mediku lantaldeari ere.

Lotsa apur bat!

Jasone Zabala
Bergara

Domekan, urriak 5, Aretxabale-tako Ibarra futbol zelaira joan nintzen UDAk Iruneko taldearen aurka zuen partidua ikustera. Bigarren zatian heldu ginen, eta halakoetan gertatzen den moduan, autoa aparkatzeko tokirik ez zegoenez, espalo gainean utzi genuen beste auto baten atzean —badakit ez dela zuzenena, baina partidua egunetan ez da beste aukerarik egoten Ibarra zelai inguruan—. Partidua amaitu zenean auto bila joan nintzen etxera bueltatzeko eta hara non nire sorpresa, nire autoa kolpe batekin, kolpe ederra gainera. Halakotan —nire kontzientziak behintzat hala egiteko esaten dit— kolpea eman zidanak oharren bat edo utziko zidala

uste nuen, baina ezer ez. Kolpea eman eta hanka egin.

Konpondu nahi izanez gero nire poltsikotik ordaindu beharko ditut 250 euro. Egin duenak egindako horren bekatua berarekin darama, ez baitut sinesten kolpea eman zuela konturatu gabe eta inongo intentzio txar gabe alde egin zuenik bertatik. Nire asmoa ez da gertatutakoaren lekukoak topatzea, baizik eta egindakoak ohar hau irakurtzen badu, lotsa pixka bat senti dezala.

Eskerrak guztioi

Gorka Bikuña
(Txantxiku Arkulariak taldearen izenean)
Oñati

Irailaren 14an Oñatin jokatu zen basoko arku tiroketa txapelketan laguntzaile izan genituen senitarteko, lagun, Debagoieneko Gurutze Gorria eta batez ere herriko komertzio ezberdinei eskerrak eman nahi dizkiet.

Hauek dira: Aker, Antton, Arkupe, Boga, Izarraitz, Olakua, Ongi, Otamendi eta Portu tabernak; Etxeberria, Soraluze, Txopekua eta Urriagain jatetxeak; Mendizabal, Lizarralde eta Osi kirol dendak; Elorza Burdin denda, Gereta Ardoak, Ugarte Bana-ketak eta Sua Opariak. Mila esker benetan emandako laguntzagatik.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefona:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



OGIZUN

koop. elk.

okindegia

Argazkia Kiñu

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13



KUTXA BIZITZA-ASEGURUAK* BABESA ASEGURATUA.

Zuretarak beti ongi estalita egotea pentsatzen duzun baino errazagoa da **Kutxa Bizitza Aseguruarekin***. Zure egoera pertsonal eta ekonomikoetara egokitzen da. Eta konponbiderik egokiena da orain geroko kezkarik gabe bizitzeko.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

Biharko
Vida y Pensiones
Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.

*Kutxa Bizitza-Asegurua, Biharko Vida y Pensiones, S.A.rekin kontratatua. Kutxa da Biharko Vida y Pensiones aseguru-etxearen banku-aseguruen operadore esklusiboa; honek baimena ematen dio hari Biharko aseguru-etxearekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro administratiboa berezian inskribatua dago C0654G20336251 zenbakiarekin.

PRESTA ZAITEZ UDAZKENERAKO



Passionata®

**Iratxo Mertzeria
BERGARA**

Telesforo Aranzadi 2 - 943 76 00 79
Barruko arropa eta osagarriak



yo
ka
na

**Txokolate Opariak
BERGARA**

Barrenkale 28 - 943 77 70 54
Arropa eta osagarriak



JANET & JANET *violis*
Argila

**Maka Oinetakoak
BERGARA**

Ibargarai 8 - 943 08 28 68
Janet & Janet poltsa eta botak;
Argila zapatak eta Vialis botak.



Chloé Timberland ESCADA

ELLE DKNY

UME
ARRASATE

Garibai etorbidea 6 • 943 79 97 86
Iturriotz 23 • 943 77 02 76
3 hilabeteetatik 16 urtera



XARMANTA
ESKORIATZA

Gaztanadui kalea 21 • 943 71 53 87
Calvin Klein barruko arropa



KAPIKUA
ARRASATE

Bañez doktorea 4 (San Andresen) • 943 79 19 94
Opariak eta osagarriak



JOLAS opariak
BERGARA

Barrenkale 27 • 943 76 46 48
Uno de 50 osagarriak



badabil

umeendako
arropak eta oinetakoak

BADABIL haurmoda baino gehiago
ARRASATE
Biteri 11 • 943 08 15 40
Umeentzat zerbitzuarik onena



MARKELINE umeendako arropak
BERGARA

Herrilagunak 6 • 943 76 05 24
Neurriak 0tik 16 urtera

Herriak

Arrasate > 18-19 Bergara > 24-25 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Aldain parke publikoa egiteko proiektua onartu du Udalak > 19



> **BERGARA**
'Irakurri' kanpainarekin bat egin du Udal Liburutegiak > 26



> **ELGETA**
I. pintxo lehiaketa jokatu dute herriko tabernek etzi, domeka > 37



> **LEINTZ GATZAGA**
Kultura ondare izendatu gura dute Olaungo Sanjuanzar > 39

HIRIGINTZA > UNED ETA ERREGE SEMINARIOA

Errege Seminarioa erosita, herriaren eskura pasako da plazako eraikina

EROSKETA

Milioi bat euroren truke erosiko du Seminarioko eraikina Uned-Bergarak

PERMUTA

Udalaren eta Uneden asmoa da, aurrera begira, Arrizuriaga Unedendako izatea, eta Seminarioa, Udalarendako

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Hilabetetan negoziazioetan egon ostean, azkenean lortu dute: Madrilgo Gobernuak, Errege Seminarioaren jabeak, saldu egingo dio eraikina Uned-Bergara Patronatuari. Milioi bat eurotan salduko dio eraikina. Operazioarekin pozik azaldu dira Agurri Barruso Bergarako alkatea eta Juan Jose Alvarez Uned-Bergarako zuzendaria. "Historikotzat" jo dute lortutakoa. Atzo azaldu zituzten akordioaren zehaztasunak, hedabideen aurrean.

Patronatua osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxak, Bergarako Udalak eta Unedek. Bergarako Udalak ordaindu beharko ditu 100.000 euro Patronatuaren duen ordezkari-tzatiagatik (%10). Foru Aldundiak %63 dauka eta 630.000 euro ordainduko ditu eta Kutxak %27 dauka eta hari 270.000 euro ordaintzea dagokio.

LAGAPENA BERTAN BEHERA

Orain dela hiru urte Uned-Bergara Patronatuak eta Madrilgo Gobernuak sinatu zuten hitzarmenak zioen Errege Seminarioa lagako ziola Patronatuari Espainiako Estatuak. Lagapen hitzarmenak ez zuen epe mugarik zehazten, baina bai baldintza bat: Uned-Bergara bertan egotea. Orain, hitzarmenoi bertan behera laga eta Madrilgo Gobernuak erabaki du eraikina saltzea. Hor-



Errege Seminarioan jarri nahi du Udalak liburutegia. Horretarako, Unedek Arrizuriagara joan beharko luke.

ENEKO AZKARATE

taz, Bergarako herriarendako izango da eraikin hori aurrerantz.

ERAIKINEN PERMUTA

Eguaztenean Uned-Bergara Patronatuaren batzarrean hartutako erabakiak —Errege Seminarioa erostea Estatuari— bide ematen du beste operazio batzuk egiteko: "Lehen urratsa da", Juan Jose Alvarez esanetan. Garrantzitsuena, Arrizuriaga eta Errege Seminarioaren artean permuta egitea, hau da, Udalaren jabe-gokoa den Arrizuriaga jauregia Uned-Bergarari ematea, han jar dezan Unedek bere egoitza; eta, oster, Patronatuarena izango den Errege Seminarioa Udalaren esku uztea. Permuta aukera hori Patronatuaren mahai gainean dago eta Bergarako Udalaren zein Uned-Bergarako zuzendaritzaren nahia da lehenbailehen gauzatzea. Lehenbailehen lortu nahi dute akordioa.

IKUSPEGI ALDAKETA

Aurreko agintaldian, EAJ, EA eta Aralarrek osatutako Udal Gobernuak erabakita utzi zuen Arrizuriaga jauregian Udal Liburutegia

ipintzea eta Udalari lagako zitzaion Errege Seminarioaren zatian —elizan— auditorioa jar-tzea. Eraikinaren beste zati batean Uned-Bergarak jarraituko luke eta Aranzadi ikastolak erabiliko luke beste zatia, orain egiten duen moduan. Iazko maiatzeko hauteskudeen ostean, eta EAE-ANVren garaipenarekin, beste gobernu bat osatu zen, EAE eta Aralarren artean, eta hark beste asmo batzuk azaldu zituen. Garrantzitsuena, auditorioa Seminarioan egin beharrean, Miguel Altuna institutuak Ibargarai leian duen eraikinean —

Seminarioko patioaren ondoan dago—egitea. Miguel Altuna ikastetxeak Artabilan (Candy parean) eraikiko du eraikin berria eta 2011rako han egotea aurreikusiko du. Gobernu berriari desegokia iruditu zitzaion Errege Seminarioa auditorioa egiteko, hainbat arrazoi-gatik, Agurri Barruso alkateak azaldu duen moduan: "Batetik, edukiera aldetik oso txikia zen; bestetik, ondarea hondatu behar zen egin ahal izateko; hirugarrenik, agertokia bakarrik egon zitekeen; azkenik, hainbeste oztopo izateko inbertsioa handiegia zen".

AKORDIO HISTORIKOA

"Berreskuratzen da Gipuzkoa eta Bergararendako eraikin esanguratsu bat"

Juan Jose Alvarez Uned-Bergarako zuzendariaren iritziz, "akordioa historikoa" da, "berreskuratzen delako Gipuzkoa eta Bergararendako eraikin esanguratsu bat". Bestalde, Agurri Barruso alkatearen ustez, "aspaldiko aldarrikapena" da Errege Seminarioa udal jabe-gokoa izatea: "Eta hau lehen urratsa da". Aranzadi ikastolak, berriz, "aurrerapauso garrantzitsutzat" hartzen du Uned-Bergara Patronatuak hartutako erabakia, "ez baita berdina herriarentzat eraikina Madrilgo Gobernuarena izatea edo Uned-Bergara Patronatuarena izatea". Era berean, "ikastetxeok ditugun leku arazoak behingoz konpontzeko, Udalak eta Unedek planteatzen duten eraikinen trukea oso inportantea iruditzen zaigu".

Bestalde, Uned-Bergarako zuzendaritzak proposatu zuen Errege Seminarioa utzi eta Arrizuriagan kokatzea unibertsitate-aren egoitza. Izan ere, Bergarako Unedek ezinbestekotzat du egokitzapen obra sakonak egitea bere eskaintza akademikoa ganoraz emateko. Aukera hori begi onez ikusi zuen Bergarako Udal Gobernuak eta horretan jardun dute azken urtebetean, negoziazio prozesuan.

ETA UDAL LIBURUTEGIA?

Uned Arrizuriagara joango balitz, Udal Gobernuaren asmoa da hasiera batean, behintzat, Errege Seminarioan kokatzea Udal Liburutegia. Orain Errotalde jauregian dago, baina txiki eta deseroso dago aspalditik. Horretaz gain, Seminarioko museoa ere bertan jarri nahiko luke Udalak etorkizunean. Modu horretan, Udalak herriaren erdian koka ditzake hainbat kultura azpiegitura. Fatxada nagusia eta eraikinaren alde noblea hartuko lituzke Udalak.

Planteatzen den irtenbidearekin, Aranzadi ikastolak Errege Seminarioan jarraituko du eta bertan batuko ditu gela guztiak, baita gaur egun Martinez Irala eraikinean daudenak ere. Gauzak ondo bidean, Unedek Arrizuriagako obrak 2009. urtearen hasieran hasi nahi ditu. Horretarako, Udala lanean hasi da Jardun elkartearekin batera kokaleku berria bilatzen. Izan ere, gaur egun Jardunek erabiltzen du Arrizuriaga jauregia, gazteen-dako jarduerak antolatzen. Bestalde, Uned-Bergarak 2010eko udan lagako luke Seminarioa eta hortik aurrera Aranzadi osoa Seminarioan sartzeko moduan izango litzateke. Besteak beste, auditorioa Seminarioan ez egiteak ahalbidetuko du hori.

Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak, Bergarako Udalak eta Partaidek hartutako konpromisoaren arabera, Aranzadi ikastolak etorkizunean Martinez Irala laga beharko du —betiere, Aranzadiri irteera ematen bazaio— San Martin ikastetxeak daukan espazio arazoak konpontze aldera. Lortzeko bidean dagoen akordioak ahalbidetuko luke hori egitea.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 18	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Domeka, 19	Fdz. Corcuera	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Astelehena, 20	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Martitzena, 21	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Eguaztena, 22	Español	Araba, 4	943 79 18 65
Eguena, 23	Ruiz	Nafarroa, 1	943 79 14 09
Egubakoitza, 24	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30

BERGARA

Zapatua, 18	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Domeka, 19	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 20	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 21	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguaztena, 22	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguena, 23	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 24	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87

OÑATI

Zapatua, 18	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Domeka, 19	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Astelehena, 20	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 21	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 22	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 23	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 24	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28

ARETXABALETA

Zapatua, 18	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Domeka, 19	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Astelehena, 20	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Martitzena, 21	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguaztena, 22	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguena, 23	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 24	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakidegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67

Kiroldegiak

Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)

08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)

08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)

08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)

08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Urribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarretetik irteerak

07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietia, Mugertzta, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
07:50	07:50	08:05
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 18

Zerua lainotuta, eta zaparradak egon daitezke. Tenperaturak beherako bidearekin jarraituko du eta beroenak 20 °C-tik behera kokatuko dira.




Domeka, 19

Hobetxe aldera egingo du domekan. Euri arriskua desagertuko da eta ostarteak agertuko dira egunean zehar.

EUSKAL HERRIAN

Asteburua giro goibel eta eritsuarekin hasiko dugu. Lainotuta mantenduko da zerua eta zaparradak botoka ditu; barnealdean mardulak izango dira eta ekaitz arriskua egongo da. Domekan, lainotuta jarraituko du, baina tenperaturak gora egingo dute eta euri arriskua gutxituko da.



oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> Pastoral ikastaroa antolatu dute

Helduen pastoral-tzian oinarritzeko heziketa jaso gura dutenendako ikastaroa antolatu dute Arrasateko elizbarrutiak eta Donostiako Erligio Zientzietarako Goi Ikastegiak. Urriaren 22an hasiko da eta 60 euro da matrikula. Izenematea zabalik dago urriaren 20a arte, honako telefonoetan: 943 79 14 05 edo 943 21 24 99.

ANTZUOLA

> Berbaldia izango da bioeraikuntzaz

GEA elkarteko Jeronimo Lozanok hitzaldia egingo du bihar, zapatua, Olararen, goizeko hamarretan. Bioeraikuntzaz jardungo du. Gaztelaniaz.

BERGARA

> Euskararen ordenantzen gaineko ekarpenak

Bergarako Euskaltzaleen Bilguneak luzatu egin du euskararen ordenantzen behin-behineko proposamenari ekarpen gehiago egiteko epea. Urriaren 24a da mugaeguna. Behin-behineko proposamen hori Jardunen eskura daiteke.

BERGARA

> Berriketan egitasmo-rako laguntzaile bila

Berriketan egitasmoan euskaldun berriei laguntzeko jendea behar dute. Euskaraz jakitea eta eurekin aste-

an ordubetez jarduteko gertu egotea besterik ez da behar. Argibideak, Jardunen (943 76 08 19 / 943 76 36 61).

BERGARA

> Nafarroara mendirte-ara antolatu du Pol-Polek

Pol-Poleko beterranoak Nafarroa aldera joango dira azaroaren 16an. Gainera, aurten egingo duten azken zeharkaldia izango da, eta hori ospatzeko, bazkaria izango dute. Eskasen (640 metro) hasiko dute ibilaldia, eta Artikutzatik igarota, Lesakan amaituko dute txangoa. Argibideak Pol-Polen, 943 76 48 51 zenbakian.

OÑATI

> Arrikutzeko kobetako ordutegi berria

Arrikutzeko kobek ordutegi berria dute: urriaren 10:00-14:00 eta 15:00-18:00; eta azarotik otsailera, 10:00-14:00 eta 15:00-17:00. Argibideak: 943 08 20 00.

ARRASATE

> Gizonezkoak sexu berdintasunaren aurrean, mahai-inguru bateko gaia, egunean, hilak 23

Arrasateko Emakume Txokoak antolatuta, *Gizonezkoak berdintasunaren aurrean* delako mahai-ingurua egingo dute Luis Cerronek (psikopedagogoa eta Friegeo, luego existo liburuararen egilea) eta Xabier Odriozolak (antropologoa eta gizon taldeen koordinatzailea). Kulturaten izango da, 19:00etan.

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

TENPERATURAK

MINIMOA
Zapatua, 11

9 °C

MAXIMOA

Egubakoitza, 10

26 °C

ASTEKO

EURIA (l/m²)

6,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 8	15 °C	11 °C	5,8 l/m ²
Eguena, 9	16 °C	10 °C	0,2 l/m ²
Egubakoitza, 10	26 °C	10 °C	- l/m ²
Zapatua, 11	24 °C	9 °C	- l/m ²
Domeka, 12	25 °C	17 °C	0,4 l/m ²
Astelehena, 13	25 °C	15 °C	0,2 l/m ²
Martitzena, 14	20 °C	16 °C	0,2 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA URRIAN



Ilgora

7

Ilbete

14

Ilbehera

21

Ilberri

28

emateko, sartu 12 euro Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan, azaroaren 4a baino lehen.

BERGARA

> 1968an jaiotakoentakintada, hilaren 25ean

1968an jaiotako bergarrek kintada egingo dute. 12:30ean, hamarretakoa eta txikiteoa Deportivon; 14:15ean, autobusa Oxirondo merkatu ostan Tartufora igotzeko, eta han, luntxa eta bazkaria; 20:00etan, jaitsiera autobusez. Izenematea, Deportivo tabernan.

ARRASATE

> 1953an jaiotakoak Errioxara doaz

1953an jaiotakoak Errioxara irteera egingo dute azaroaren 8an. Viña Tondonia Haro upeltegira joango dira; txikiteoa egingo dute San Vicente de la Sonsierran; eta Ribas de Tereson bazkaldu. Izena emateko, sartu 50 euro Euskadiko Kutxan duten kontuan.

DEBAGOIENA

> Nafarroa Oinezera joateko autobusa

Debagunek Nafarroa Oinezera joateko bi autobusa antolatu ditu: Aramaio-Arrasate-Aretxabaleta eta Oñati-Bergara. Euskara elkarte-etako bazkideek 8 euro ordaindu behar dute, eta gainerakoek, 10. Txartelak euskara elkarteetan eta, Aramaion, udaletxean eta kultura etxean daude.

kale inkesta

Gazteen aisialdirako nahikoa aukera dago herrian?



Jon Madariaga
Ikaslea
Antzuola



Jon Fernandez
Ikaslea
Antzuola



Goiuri Azkarate-Askasua
Ikaslea
Antzuola



Bingen Alkorta
Ikaslea
Antzuola



Ane Martin
Ikaslea
Antzuola

Nahikoa aukera daude, gaztelekuaz gain, gazte-atea ere badagoelako; hala eta guztiz ere, gaztetxean gauza gehiago ipiniko nitzuke: billarra, esaterako. Bestalde, kiroldegi bat ere faltan igartzen dut.

Nahikoa aukera daudela uste dut. Ni gazte txokora joaten naiz, eta laster, gainera, gazte txoko berria izango dugu. Gazte txokoa ping-pona eta ordenagailuak egotea gustatuko litzaidake.

Denbora gutxi barru gazteleku txoko berria zabalduko dute. Hala eta guztiz ere, gutxitan joaten bertara, kalean ere gustura ibiltzen naiz. Jarduera berriak ipiniko nitukte gaztelekuan.

Ez naiz gaztelekura joaten, oso urrun dago-eta. Horretaz gain, gauza gutxi daude hemen gazteondako, eta kalean ere gustura ibiltzen naiz. Betiko gauzez gain, egiteko beste batzuk jarriko nitzuke.

Gazte txokoa badago, baina oso gutxitan joaten naiz, euria egiten duenean bakarrik. Gazte txokoa ondo egongo litzateke telebista eta ordenagailua ipiniko balute, baita mahai jokoak ere.

txistuak



GOIENKARIA

Noiz kendu behar dituzte sastrakak?



Herritar batek jakinarazi digu Bergarako Labegaraieta aldeko pasealekua ez dagoela oso ondo zainduta. Herritar horrek dio ez dakiela Udalaren edo beste norbaiten lana den, baina bertako hormak sastrakaz beteta daudela eta oso zikin. Dagokionari eskatzen dio inguru horri arreta handiagoa ipintzeko eta txukunago mantentzeko.

asteko datua

11

Datorren abenduaren 19an Bergarako Munibe plazan egingo den artisau azokan 11 postu egongo dira. Azoka 18:00etan zabalduko da. Bertan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea urriaren 24an, 13:30ean amaituko da. Debagoieneko eta kanpoko artisauak har dezakete parte.

ustek uste

Jasone Zabala

Nork esan du aspergarria dela neskena?

Eguaztenez egon nintzen Hondarribiak eta Biurarenak Eskoriatzan jokatu zuten Euskal Kopako finalean. Hondarribiko taldea gailendu zen 101 eta 58. Ikuskizun bikaina eman zuten bi taldeek, maila handiko partidua, taktikoki zein teknikoki bikaina.

Askok diote, nesken jokoak aspergarria dela geldoago delako. Baina nik diot: mutilena azkarragoa izateak, jokoaren kalitate hobe suposatzen du? Neska edo mutil, ikuskizuna beti ikuskizun.

Nik saskibaloian jokatzen nuen garaian hainbat entrenatzaile izan nituen. Egon zirenek gogoz jardun zuten entrenatzen, guk jokatzen ipintzen genuen gogo berberarekin. Harmailetan baina ikusle gutxi. Mutilenak morbo gehiago omen dauka. Nahiz eta nik zergatik den ez dudan orain ulertu... Honen harira eskerrak eman nahi dizkiot, Manolo Muñoz. Bera beti izan da apustuak gogor egiten duen gizona eta hori ederki erakutsi du saskibalo mundua: emakumeen aldeko apustua! Bai Euskal Kopan eta baita abenduan Eskoriatza aldera ekarri nahi duen Espainiako kopako infantil mailako aurre fasean. Horrelakoek ez gaituzte aspertzten Manolo!

5 galdera...

Javier Estella

Estella farmaziakoa
Bergara

1. Aurten katarroak beste urte batzuetan baino gogorrago joko du? Hala bada, zein da arrazoia?

Badirudi baietz. 2007an, Australian agertu zen birus batek hirukoiztu egin zituen aurreko urteetako gripe kasuak. Horregatik aurten, horri aurre hartzeko Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) hiru geruza berri sartu ditu txertoan, horietako bat Australiakoa.

2. Zein pertsonarengan du eragin handien katarroak?

Arrisku taldeak deitutakoean, gripea izateko aukera gehien dutenak sartzen dira: 65 urtetik gorakoak, gaixotasun kronikoak dituztenak, baita mediku edo zain-tzaileak... Azken horiek, gaixotasuna kutsa ez dezaten edo kutsatuak izan ez daitezten.

3. Jende askok bere kontura hartzen dituzten medikamentuak. Zeintzuk dira hori egitearen alde onak eta txarrak?

Oso ohikoa den ohitura da gure gizartean. Arriskutsua izan daiteke, gaixotasunaren detekzioa atzeratu egin daitekeelako eta bigarren mailako efektuak ekar ditzakeelako. Medikarengana joatea derrigorrezkoa da, arazo larri bat ez hain larri batengatik desberdintzeko.

4. Zeintzuk dira jendearen galdera ohikoenak hala-ko garaietan?

Galderak hainbat izaten dira, besteak beste, hauxe: "Zergatik dut katarroa txertoa ipini baldin badut?" Horren aurrean jakin behar da ohiko hozturatetik ez duela prebenitzen; "Zer daukat, gripea edo katarroa?", edo "zer egin dezaket halako egoeratan?"

5. Zein gomendio emango zenuke katarroa saihesteko?

Horrelakoetan eraginkorrena txertoa hartzea da. Osakidetza hasi du txerto kanpaina eta datorren azaroaren 15era arte egongo da martxan. Hala eta guztiz ere, farmazietan aurki daitezke gaixotasunari aurre hartzeko botikak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

HIRIGINTZA > SAN JOSEPEKO IDEIA LEHIAKETA

Herritarren parte-hartzea gura dute San Josepeko ideia lehiaketan, Kulturaten

Herritarrek aukeratu ahal izango dute bost finalistetako bat, bozketa bitartez

Martitzenean zabaldu zuten erakusketa eta azaroaren 9ra arte dago zabalik

UBANE MADERA > ARRASATE

Badabil egunotan, bai, makinatxo bat herritar Kulturateko klaustroetan bueltan-bueltan, gazte zein heldu, San Josepe harrobiaren zuloa betetzeko proposatu dituzten ideiak ikusi eta komentatzen.

Izan ere, badute zer komentatu, erakusketan dauden 26 proposamenetatik gehientsuenak dira-eta deigarri askoak.

Euskal Herri, Espainia eta nazioartetik bidali dituzte eta, oro har, proiektu guztiek proposatzen dute egin beharrekoa inguruarekin uztartuta eraiki behar dela.

ITXURA ETA IDEIA BERRIAK

Esku itxura hartzen duten eraikin sortak, kaiku itxuran inspiratutako gunea, amaraun forma dutenak, krisalidak, eraikin gardenak, lur azpikoak, eraikinen teilatuak aprobetxatzeko proposamenak, mendiaren maldan integratutakoak... denetarik dago aukeran.

Gehienek proposatzen dituzte, hori bai, etxebizitzak edo bizitokiak eraikitzea, aisialdirako edo kirola egiteko guneak, inguru berdeak, bulegoak, saltokiak edo merkataritzaguneak.

Proposamen bat baino gehiago, baita ere, hezkuntzarekin lotutakoa da: ikastetxeak, ikasleendako logelak, campus berriak eta halakoak; eta beste askok, baita ere, hotelak eta turismo zerbitzuak proposatzen dituzte.



Re-Generación: eraikin eta zerbitzuekin, zuloa bete, mendi mailaraino. GOIENKARIA



Nidier (Energiaren Hiria): energia garbia sortzeko dorreak, paretetan. GOIENKARIA

Baina horiekin batera ikusi daitezke horren ohikoak ez diren ideia berritzaileak. Adibidez, igerilekuak, elizak edo erlijio zentroak, komisaria, ospitalea, ambulatorioa, funikularra, bertako produktuen azoka, energia garbia sortzeko egiturak kooperatibaren museoa eta beste.

BOZKATZEKO AUKERA

Idea lehiaketa da Kulturaten dagoena, eta, izenak esaten duen moduan, proposamenen artean onenak, egokienak edo politenak aukeratu beharko dira. Horieta-ko lau aukeratuko dituzte epaima-

haia osatzen duten 19 lagunek. Baina herritarrek ere badute euren iritzia emateko aukera, bosgarren proposamena bozketa bidez aukeratuko da-eta.

Bozketan parte hartu ahal dute 16 urtetik gorako Arrasaten erroldatutako bizilagunek. Klaustroetan sartu eta hortxe ipini dute hatetontzia. Ondoa, txartel batzuk, proposamena idazteko. Azaroaren 9ra arte eman daitezke botoa, erakusketa itxi arte, martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30ak arte. .

BIDERAGARRITASUNA IKUSI BEHAR

Gero, proposamen horien artean bat aukeratuko dute, irabazle moduan. 88.000 euro irabaziko du horrek eta bigarrenak, berriz, 12.000 euro. Baina ideia lehiaketa irabazteak ez du esan gura proiektua gauzatu egingo denik. Naia Ruiz de Eginoren erakusketa-aren arduradunak esan duen moduan, "zona aztertu eta proiektua orografiara, herriko beharretara edo ingurura egokitzen den aztertu beharko litzateke, eta, nola ez, bideragarritasun ekonomikoa ere bai". Hain justu, epaimahaiak finalistak eta irabazlea aukeratzeko orduan, garrantzi handia emango dio bideragarritasunari.



KO: ur azalera handia, eraikin gardenak, kultura ekipamenduak eta beste. GOIENKARIA



Topografia: 500 etxebizitzatik gora, parke berdea, bulegoak eta beste. GOIENKARIA

Proposamenen ezaugarri batzuk

Suelo > Parkea, kirolgunea, etxeak, goi mailako eskolak, saltokiak...

Re-Generación > Etxeak, bulegoak, museoa, zinea, merkataritzagunea...

Fels > Kooperatibaren museoa, auditorioa, azokagunea, etxeak...

Eskua > Merkataritzagunea, eko-bulegoak, teleferikoa, kirolgunea...

Kisky > Btt ibilbidea, museoa, pilotalekua, hotela, etxeak, saltokiak...

Oihan > Golf zelaia, parke gastronomikoa, diskoteka, ospitalea...

HaratHonat > Kultura zentroa, bulego, merkataritzagunea, pasealekua...

Kaiku > Parkea, kultura ekipamendua, laborategiak, bulegoak...

Harrizate > Museoa, hotela, arte zentroa, unibertsitate egoitza...

Crochet > Igerilekua, jolas eta kirolguneak, gizarte zentroa, hotela...

Aterpe > Biblioteka, kirol zentroa, auditorioa, etxeak, bulegoak, hotela...

Tronera > San Andreerako ambulatorioa, zaharren egoitza, etxeak...

Zauria > Turismo bulegoa, zinea, biblioteka, azokak, kultura zentroa...

Topografia > 500 etxebizitza baino gehiago, parkea, lantegi, bulego...

Krisalida > Azoka, industria berritzaileak, etxeak, erakusketagunea...

Eko-amaraun > Eliza, komisaria, nagusien etxeak, igerilekua, ospitalea...

Eko-harrobia > Bisitarien zentroa, ikerketa zentroa, zinea, dendak...

Bideberde > Teknologia zentroa, oinezkoen teilatu publikoak, tranbia...

Olde > Erresidentziagunea, gizarte etxea, teknologia parkea, lokalak...

Frisch > Zineak, etxeak, aisialdi eta merkataritzaguneak, bulegoak...

Geoda > Etxebizitzak (1.053), museoa, bulegoak, jatetxeak...

Nidier > Hotela, ikasleendako etxe eta zerbitzuak, Energiaren Hiria...

InBiou > Etxeak (ikasle eta langile), auditorioa, bulegoak, liburutegia...

Oikopolis > Unibertsitatea, hondartza, ur-jauzia, palmondo basoa...

Universal > Berrikuntza campusa, etxeak, plaza, merkataritzagunea...

Karreari Oinarria (KO) > Kultura ekipamendua, bulegoak, kirolgunea...

ARRASATEKO UDALEKO HIRIGINTZA SAILA

Idoia Ibañez
ARTISAUTZA

IKASTAROAK AUKERAN URRITIK EKAINERA!

- Irazki harizko ehundegia, Idoia Ibañezen eskutik
- Ziri enkajea eta bainika, Idoia Ibañezen eskutik
- Eskulanak, Edurne Uribealgoren eskutik
- Patchwork, Carmen Burgosen eskutik
- Makramea, Idoia Ibañezen eskutik

Erdiko kale 21 - Tel.: 686 08 30 67

ELKARTASUNA > JAKI BILKETA

Elikagaiak batuko dituzte Eroskin, behartsuenendako

Iraupen luzea duten jakiak batuko dituzte Eroskik eta Gipuzkoako Elikagai Bankuak asteburuan

U.M. > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, 18:00etatik 22:00etara eta bihar 10:00etatik 22:00etara ibiliko dira elikagaiak batzen Eroski hipermerkatuan. Batutakoa "behartsuekin lan egiten duten kolektibotetan eta elkarteetan" banatuko dute, Jose Antonio Olabarria Gipuzkoako Elikagai Bankuko boluntarioak kontatu duenez.


JAKINDA NORA DOAN

Aurten, gainera, Arrasaten ere banatuko dute batutakoaren zati bat, Aita Menni ospitalearen eta Kontzezinoko mojen bitartez. "Beti erakundeen bitartez egiten dugu, eta, gainera, elikagai horiek eskuratzeko beha-

rrezkoa da Diputazioaren Ongizate Sailean izena emanda izatea, iruzurrik izan ez dadin; partikularrei ez diegu ematen janik": jangela, parroikia, emakume eta adinez txikikoei arreta ematen dieten zerbitzu eta halakoetan banatzen dute; iaz, 624.210 kilo banatu zituzten 11.480 lagunen artean.

Produktuei dagokionez, "iraupen luzea duten" jakiak eraman behar dira: arroza, leka-leak, kontserbak, azukrea, irina... "Olio da gutxien ekartzen dutena, eta hori behar-beharrezkoa da sukaldetan jarduteko", dio Olabarriak. Gainera, hipermerkatuan batzen dutenari beste %20 gehituko dio Eroskik.

Boluntarioek jardungo dute elikagaiak batzen, aurten 10. urtez. Horren harira, boluntarioak behar dituztela-eta, jendea animatu gura du Elikagai Bankuko ordezkariak (izena emateko: 943 49 37 96). Arrasatez gainera, Donostia inguruan ere batzen dituzte elikagaiak.



Santa Marina kaletik Maalako biribilguneraino ematen duen zatian eraiki gura dute parke berria

U.M.

ZERBITZUAK > ALDAIKO PARKE BERRIA

Solariuma, jolasgunea, kioskoa eta beste Aldain

Garrantzi aldetik herriko hirugarren parkea izango dena eraikitze proiektua onartu dute: Aldaiko parke publikoa, bi milioi euroko aurrekontuarekin

UBANE MADERA > ARRASATE

Aldaiko kanposantu zaharraren orubean eraikiko dute udalerriko parke berria, Aldaiko. Parke horren mugak honak hauek izango dira: Aldaigain, Santa Marina, Aldai eta Maalako okindegia zegoen lekuan egiten dabil-tzan etxe berria.

Parke handia izateaz gainera, izango dituen zerbitzuak ere ugariak eta berritzaileak izango dira: jolasgunea umeendako, paseatzeko gunea trankil egon gura duenarenadako, estalitako kioskoa, ikuskizunen bat egin eta oro har gazte jendearekin pentsatzen egokituko dutena, eta eguzkia hartzeko gunea berritzailea.

PASEALEKUA ETA JOLASGUNEA

Pasealekuari dagokionez, parkearen beheko partean kokatuko dute eta, besteak beste, jarlekuak eta zuhaitzak inguru guztian izan-

go ditu; horietako batzuk, gainera, orain dauden altzifreetako batzuk (zipresak) izango dira.

Jolasgunea, berriz, parkearen goiko partean kokatuko dute; Aldaigain kale aldera, alegia.

KIOSKOA ETA HARMAILAK

Bestelako elementu berritzaileen artean, kioskoa ere izango du parkeak. Santa Marina kale ingurura ematen duen parkearen zatian eraikiko dute. Figura irregularra izango du eta erdiko aldean, elementu zirkularra, bueltan jarleku duena. Hori guztia, gainera, lona berezi batekin estalita ipiniko dute, euria eginez gero babesa emateko parkearen erabiltzaileei. Juan Antonio Urdangarin Hirigintza Saileko teknikari-buruak emandako azalpenen arabera, "teilatutako itxura duten loneta gogor eta tela antzekoa den" halako bat ipiniko dute.

Kiosko inguruaren albo batean harmaila ere eraikiko dute, bereziki kioskoan egin ahal izango diren ekintzetako ikusleei begira edo inguruan batuko diren gazte koadrilei begira. Horrekin batera, harmaila gehiago ipiniko dituzte; kasu horretan, jolasgunean, neska-mutikoen gurasoei zerbitzua emateko.

SOLARIUMA ETA KOMUNAK

Bestalde, solariuma ere izango du Aldai parkeak. Urdangarinek emandako xehetasunen arabera, eguzkia hartzeko txokoak ipiniko dituzte: "Eguzkia Aldai aldetik dator eta inguru horretan aldapa dagoenez, gainean geratzen dira leku batzuk, zuhaitzen babesik gabe, eguzkia hartzeko erabil daitezkeenak".

Beste zerbitzu batzuen artean, iturria eta komunak egitea ere aurreikusi dute. Komunak kasuan, gainera, umeendakoak ere egokituko dituzte.

Hori guztia, baina, proiektua da oraingoz. Gauzatu ahal izateko diru-partida egokitu egin beharko diote.

HEZKUNTZA > ARIZMENDI IKASTOLAREN EGUNA

Zezen mekanikoa, jakiak eta ekitaldi mordoxka

Arizmendi ikastolaren Eguneko ekitaldiak 10:30ean hasiko dira bihar, Ferixalekuan

U.M. > ARRASATE

Iaz eguraldi eskasak galarazi egin zien Arizmendikoei ikastolaren eguna ospatzea. Hala, aurten oso gogotsu datoz, berri-tasun eta guzti, biharko (zapata) ikastolaren eguna ospatzeko. Jaialdia 10:30ean hasiko da (14:00ak arte); DBHko ikasleek grafitiak egingo dituzte.

Edurne Erauskin ikastolaren egunaren arduradunak kontatu du berritasunen artean zezen mekanikoa ekarriko dutela: "Ea gurasoak animatzen diren, txikiak puzgarrietan animatzen diren moduan". Txikienek oparia egingo diote Argitxo maskotari, haren laugarren urtebetetzeari, baina ohiko ekitaldiak ere izango dira bihar; tartean, Galizia, Andaluzia, Extremadura eta Euskal Herriko jan-edanekin txosnak eta ikasleen emanaldiak.

Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoek parte hartuko dute ospakizunean: "Oso ondo hartuko dugu beste batzuk etortzea".

**KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



HISTORIA > PAKITO ARRIARAN GOGOAN

Bi herri eta askatasuna helburu: Pakito Arriaran omenduko du Arrasatek

El Salvadorko gerran hil zen Arrasaten jaiotako borrokalaria, 1984. urtean

Gerra berean hildako Begoña Gartzia eta Marta Gonzalez ere omenduko dituzte

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
1984ko irailaren 30a, El Salvador. Herrialdea gerra zibil odoltsuan murgilduta dago. Ejerzitoaren patruila batek Farabundo Marti Askapenerako Indarrak -FMLN- taldeko kide batzuk atzeman ditu. Horien artean aurkitzen da Pakito Arriaran arrasatearra. Arriaraneke badaki, daukan informazio guztia dela-eta, ezin dutela bizirik harrapatu. Hala, besteak fusil bat eta eskuko granada birekin bakarrik uzteko konbentzitu ditu... Azkenerraino borrokatuz hil zen Arrasateko Pakito Arriaran; gorpua bere borroka lagunek aurkitu zuten gerora, balaz josita.

Jaioterritik oso urrun hil zen Arriaran, baina ezin esan erbestean hil zenik, Arrasate eta Euskal Herria beste maite baitzuen El Salvador. Militante borrokatua, askatasun beharra zuten herri txikien defendatzaile sutsua zen, borroka azken muturreraino eramateko gertu zegoen horietakoa. Amerikara joan aurretik ETAko kide izan zen, eta poliziatik ihesi joan El Salvadorrera. Han internazionalismo aktiboarekin konprometitu zen eta El Salvadorko gerra zibilean FMLN gerrillan sartuta borrokatu zen.

EUSKAL HERRIA ETA EL SALVADOR
El Salvadorren pasatako urteak arrastoa utzi zuen Arriarangen, ezbaierik gabe.

Euskal Herriarekiko maitasunaz gain, El Salvadorko herria bere aberri moduan hartu zuen. Hori argi ikus daiteke familiaridatzi zion azken gutunetako pasarte batean: "Egun batean konturatu nintzen zer den [...] euskalduna izatea, borrokalaria izatea, hemengo [El Salvadorkoa] izatea. Konturatu naiz zer den maitatzeko bi herri izatea, borrokatzeko mundu bat izatea. Ezin naiteke banandu, ezin dut hura [Euskal Herria] utzi eta hau aukeratu; ezta hau utzi eta hura aukeratu ere".

HILDAKO BESTE EUSKALDUN BI
Edozelan ere, ez zen izan Pakito Arriaran El Salvadorko gerran hil zen euskaldun bakarra. Beste bi gudari euskaldun ere hil ziren bertan: Begoña Gartzia eta Marta Gonzalez, hain zuzen ere. Hala, El Salvador Bihotzean lagun taldeak

antolatuta, merezitako omenaldia egingo diete hiru euskal borrokalariari. Omenaldiak datorren asteburuan hasiko dira eta lau egun iraungo dute; ekitaldi guztiak Arrasaten izango dira.


OMENALDIA ETA TOPAKETAK
Datorren urtean Arriaranen heriotzaren 25. urteurrena izango da; baina omenaldi ekitaldiak aurtan hasiko dituzte: hilaren 26an, hain zuzen ere. Egun horretan El Salvadorren hildakoei omenaldi ekitaldia egingo diete, eta ondoren herri bazkaria egingo dute.

Urriaren 27tik 30era, bestalde, beste hainbat ekitaldi egingo dituztela aurreratu dute antolatzaileek, Pakito Arriaran eta El Salvadorko gerra hizpide izango dituztenak guztiak. Besteak beste, bi hitzaldi izango dira Kulturaten, bi bideo emanaldi gaztetxean eta Pakito Arriaranen inguruko erakusketa Harresi aretoan. Kontzerturen bat egiteko asmoa ere badago.

'PAKITO ARRIARAN, DE ARRASATE A CHALATENANGO'


Astehena ezker, salgai da liburua

Astehenean aurkeztu zuten Donostian Pakito Arriaranen bizitza hizpide duen liburua. Ricardo Castellón eta Nicolás Doljanin dira liburuaren egileak eta 158 orrialdetan barrena eta 1980ko hamarkadako El Salvador iraultzailea islatzen duten argazkiekin lagunduta, Arriaranen bizitza kontatzen da. Biografia berezia da, liburuan lekuko ezberdinak baitira Arriaran gogoratzen dutenak. Bertakoek nola gogoratzen duten agertzen da, beste testigantza batzuen artean. 15 euro inguru balio du.



Liburuaren azala.

GOIENKARIA

Karlos Agirreurreta *Mahoma* eta Eduardo Mancebo *Portu*.

GOIENKARIA

OMENALDIA > RIP TALDEKO 'MAHOMA' ETA 'PORTU'-RI

Omenaldi xumea bikote xumearentzat

Arrasateko gaztetxean izango da, azaroaren 1ean; herriko taldeek izango dute protagonismo handien

J.B. > ARRASATE

Azaroaren 1a -santu guztien eguna- aukeratu dute Rip taldeko hildako bi taldekideei omenaldia egiteko. Eduardo Mancebo *Portu* hil zela hamar urte bete dira aurtan eta Karlos Agirreurreta *Mahoma*-k orain dela bost urte utzi gintuen. Omenduak izan dira biak, nor bere aldetik. 2001ean, esaterako, omenaldi handia jaso zuen *Portu*-k Monterron parkean. Karlos hil eta urtebetera, bestalde, Trintxerpeko Mogambo aretoan Anti Regimen eta Basurak omenaldi xumeagoa egin zioten. Baina Rip ezin daiteke biok gabe ulertu. Ez Rip, eta ezta Euskal Herriko 1980ko hamarkadako punk mugimendua ere.

RIP-EKOEN PARTE HARTZEA

Hauexek dira omenaldi xumean parte hartuko duten taldeak: Carrocerias Betoño-Rip-eko batera jole Txerrak jotzen du-, Never Surrender, Material Rechazado eta Sala Strummer. Arrasaten aski ezaguna den bakarlaririk Pascal Briggs musikari alemaniarrekin joko du.

Jabi Saies *Destruye* da omenaldiaren antolatzailea, eta aurreratu du omenaldi xumea izango dela. Ripeko kantuak entzun ahal izango direla ziurtatu du, eta taldeetik bizirik geratzen diren Bolinaga anaiek omenaldian parte hartuko dute. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira. Prezioa ere, xumea: lau euro.

KONTZERTUAK > 3.60 ARETOA

Kubako doinuak eta rocka, protagonistak aste bukaeran

J.B. > ARRASATE

Eskaintza zabala izango da aste bukaeran 3.60 aretoan. Kubako doinuak eta rocka izango dira pro-

tagonista. Kubart musika sustatzaileak antolatuta, Julio Hernandez etorriko da Arrasatera. Musikari famatua da, hainbat estilo jorratzen dituena eta Kubako musikaren aniztasuna ezin hobeto islatzen duena. Gaur izango da, 22:30ean, eta sarrerak sei euro balio du.

THIN LIZZY ETA IRON MAIDEN

Bihar, bestalde, Arrasateko rock talde gazte batek kontzertua eskainiko du, 22:30ean. Fat Lizzy eta Bacon Maiden dira -Queens of Rock taldeko kideak-, taldekide berak dituzten talde bi, eta Thin Lizzy eta Iron Maiden taldeen abestiak ezin hobeto imitatzeko gai direnak. Bi talde mitikoak gustuko dituen harriritu geratuko da bertsioren musika kalitateari dagokionez.

S. CARRASCAL S.L.**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BITTORI


ERRETEGIA


Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

 **ARCAUZ**
MUEBLES
ARETXABAETA





 **ETXE MOBEL**
ALTZARIAK
ARRASATE




 **ARCAUZ**
COCINA INTEGRAL
ARETXABAETA

FAGOR
banatzaile ofiziala



 **ARCAUZ**
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABAETA

expert
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.



GRUPO
ARCAUZ

ARETXABAETA • ARRASATE
1950•2008

DANBAKA)))))
II. MUSIKA LEHIAKETA

BARRUAN 8 ORRIALDEKO LIBURUKKA

DANBAKA)))))
I. MUSIKA LEHIAKETA

DANBAKA)))))
II. MUSIKA LEHIAKETA

Aby-Com Anal Bag Azkarter Pelox Belceblues Drakes
Igor Inalectrik Jim TNT Klakson Little Little Much
Los Cretinos Mahaster River Malenkonia Matx Ozen
Raul Lasa Scam The 5 Twisters Unnea Yotox

DAGOENENKO SALGAI

DVDa eta CDa.

Danbaka Musika Lehiaketako 2. edizioko 20 taldeen abestiak eta ikus-entzunezkoa.

Estrak, argazkiak, bideoak... Hiru orduko iraupena.

13 euro

ESKAINZA BEREZIA:

Astehenerako Goienkaria-ko harpidedunendako 10 euro.

Hemen salgai:

ARRASATE: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. /
Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

BERGARA: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

ELGETA: Espaloia kafe antzokia: Maala 2. 943 78 90 85

DANBAKA)))))

ATLETISMOA

Maialen Axpe saritu zuten Donostian

Urrezko Ezkurra jaso zuen kadete mailako Euskadiko errekorragatik

E.M. > ARRASATE

Joan den egubakoitzean, Gipuzkoako Atletismoaren III. Gala ospatu zuten Donostiako Amara hotolean. Bertan Maialen Axpe arrasatearra saritu zuten Urrezko Ezkurra-ekin, pertika jauzian Euskadiko errekor berria egitearren. Arrasateko gaztetxoak 3,32 m-ko marka egin du aurtengo denboraldian. Maialen Axpe kadete mailako Espainiako txapelketan lehiatuko da aste bukaeran, Lugon. Berarekin batera Lore Mar (3,31 m-ko marka duena) eta Jonathan Perez entrenatzailea joango dira Lugora. Bi gaztetxoek helburu bera daukate: podiuma lortzea.

4X100 M-KO ERRELEBOA

Bestalde, Arrasate Atletiko Taldeko 4x100 erreleboa zapigarren tokian sailkatu zen zapatuan Zaldibian jokaturako proban. Aurkarien maila ikusita (Reala, Atletico San Sebastian, Euskadiko eta Gipuzkoako gazte mailako selekzioak tartean ziren) arrasatearrek zaila zeukaten aurreneko postuetan sailkatzea. Arrasateko taldea ordezkatuz, Martin Berrizbeitia, Chen Jian, Josu Revuelta eta Txomin Gallastegi lehiatu ziren. Pozik etorri ziren Zaldibian lortutakoarekin, are gehiago kalean jokatzeko probaren zailtasun handiagoa kontuan izanik.



MUK GALDU EGIN ZUEN ETXEAN JOKATUTAKO LEHEN PARTIDUA.

GOIENKARIA

SASKIBALOIA > LEHEN NAZIONAL MAILA

MU lehen garaipena lortzeko beharrean dago

Javier Zurbanoren taldeak Viajes Marfil izango du bisitari domeka arratsaldean, Iturripen

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak denboraldiko lehen garaipena lortu nahi du domekan Iturripen. Javi Zurbanoren mutilek jokaturako bi partiduak galdu dituzte eta domekan, 18:00etan, Viajes Marfil taldea izango dute bisitari Iturripen kiroldegian. Oraingoan bi puntuak etxean geratzea da MUREN asmoa.

Aurreko jardunaldian Bilbon galdu zuen MUko lehen mailako taldeak, Suelbat La Peñaren aurka. Hasiara minutuetan markagailuan arrasatearrak aurretik

jarri arren, bilbotarrek 9 puntu-ko aldearekin nagusitu ziren: 83-74 izan zen azken emaitza. Atsedendian abantaila bera zeukaten bilbotarrek: 38-29.

Hirugarren laurdenean arrasatearrek abantaila puntu baten murriztea lortu zuten (58-50), baina Suelbat La Peñakoek ondo kontrolatu zuten partidua, kome-ni zitzaien erritmoa ezarriz. Javier Zurbanoren hitzetan, "batez ere defentsa lanetan asko hobetu beharra daukagu, aurkari-erri gauzak horrenbeste erraztu barik. Bilboko partiduan irudi

hobea eman genuen lehenbiziko partiduekin alderatuta baina oraindik ere gauza asko hobetu beharra daukagu. Hainbat jokalarik *entxufatzeke* daude eta argi dago guztion lana ezinbestekoa dela aurrera egiteko. Ea maila ona ematen dugun domekan".

ZAPATUAN, SENIOR PROBINTZIALA

Bestalde, probintzia mailako senior taldeak Kevian Sport hartuko du bihar, zapatua, 16:00etan Iturripen. Hiru partidu jarraian galdu ondoren, senior probintziala ere lehen garaipenaren bila aterako da bihar. Junior eta kadete mailako taldeek etxetik kanpo jokatu dute oraingo jardunaldian.

futbitoa zaldibar

PARTIDUAK

Urriak 18, zapatua	Epaileak
10:00 Dublin Irish Pub-Cipris Iritz Taberna	
11:00 Equis-Iritz taberna	Dublin
12:00 Betraye-Ekaintz taberna	Equis
13:00 Iturriotz-Iluntz	Betrayer
16:00 Abokajarro-At. Celaya	Paulaner
17:00 Paulaner-Bar Aldapa	Abokajarro

Urriak 19, domeka


Urriak 19, domeka	Epaileak
11:00 Total Disaster-HLB 108	McAwen
12:00 McAwen Dauen-Saukelu	HLB 108
13:00 Lasagabaster-Urza	Saukelu

SAILKAPENA

SAILKAPENA	P
1. Abokajarro	0
2. At. Celaya	0
3. Betrayer	0
4. Cicatrus	0
5. Dribling	0
6. Dublin Irish Pub	0
7. Ekaintz taberna	0
8. Cipris	0
9. Equis	0
10. HLB 108	0
11. Iluntz	0
12. Iritz taberna	0
13. Iturriotz taberna	0
14. Lasagabaster	0
15. McAwen	0
16. Saukelu	0
17. Total Disaster	0
18. Urza	0

Bihar eta etzi jokatu dira lehenbiziko partiduak

Guztia prest dago Zaldibarko txapelketaren ekitaldi berri bat hasteko. Zapatuan eta domekan izango dira lehenbiziko partiduak eta ikusteko dago zein taldek hartzen dion lekukoa Lasagabaster izazko txapelkunari edo Lasagabasterrekoak titulua berriro eskuratzeko gai diren. Txapelkuneko domeka eguerdian jokatu dute lehenbiziko partidua, Urza taldearen aurka. 18 talde izango dira aurtien lehiak.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

arrasatearrak kanpoan

Galder Cristobal > Ikerlaria
Shanghain bizi da

"Eguraldia zoragarria da hemen, hezetasun eta beroa maitez gero"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Galder Cristobal pasa den urteko otsailean heldu zen Singapurrera neskalagunarekin, ikerlari lanean aritzeko. Baina orain, laborategia lekuz aldatu dute eta Shanghain joan da bizi izatera. Oraindik urte pare baten hiri horretan bizi izaten jarraituko duela adierazi digu.

Cristobal eta bere neskalagunari Asian funtsezko ikerketan jarduteko laborategi bat sortzea eskatu zieten. "Hasiara baten laborategi hau Singapurren kokatuko zen, geroago Shanghain eramateko", adierazi digu

Cristobalek. Fisika eta kimika munduko ikerketa lanean dihardute biek ala biek. "Gaztez osatutako lantalde baten buru naiz eta polimeroetan eta beste arlo batzuetan lan egiten dugu. Adibidez, ikerketarako teknologia eta metodo berriak sartzen ditugu enpresa mailan. Horren ererazi digu.

"Singapur irla bat da, irla aberats bat, eta egoera hori jendearengan nabari da; bertako jendea jatorra da"



Galder Cristobal.

du bezala, mikrofluidika aipa dezaket". Orain arte, Choa Chu Kang izeneko Singapurreko auzo baten bizi izan da Cristobal: "Auzo hau txinatarrez eta indiarrez osatuta dago; kondominio edo eta urbanizazio eder baten bizi izan gara orain arte", esan digu.

JENDE JATORRA

Galder Cristobalek adierazi digu bertako jendea jatorra dela, lasaia, edukazio handikoa. "Singapur irla bat da, irla aberats bat, eta egoera hori jendearengan nabari da", jarraitu du Cristobalek. Eguraldiari dagokionez, "zoragarria, hezetasun eta beroa maite baduzu. Singapurren ez dago urtarorik eta urte guztian 25 eta 28 gradu bitartean egiten du gauez, eta 31 eta 35 gradu bitartean, egunean zehar. Hizkuntzari dagokionez, lau hizkuntza ofizial daude. Singapurreko gizarteak duen dibertsitatearen erakusle da hori: mandarina, tamila, malaioa eta ingelesa".

bere ustez



Ander Etxeberria

'Udala mendi, Udala mendi...'

Horrela hasten da bertako gurutze handian dagoen bertsoa. Igan-dean izan zen Udalatz eguna hogeita hamazazpigarren urtez. Zerbait berezia eduki behar du kareharrizko goragune honek bere eguna izateko. ...*Araba alboan, erdi Bizkai ta erdi Gipuzkoa izena...* Gainera, aspalditik egin du jendeak gora. Aipagarria da, adibidez, Udalatzekin ekiten diola Antxon Iturriza idazleak euskal mendizaletasunaren historia biltzen duen bere liburuari.

"Bertara igotzeko arrazoiak asko izan daitezke: gorputza zaindu, naturarekin bat egitea..."

Bertara igotzeko arrazoiak asko izan daitezke: gorputza zaindu, naturarekin bat egitea, sinestunentzat goikoarekin edota joandakoekin gertutasuna, tontor inguruko lasaitasuna, ikuspegi handitasuna, hor dagoelako, etab.

...*Zeruko Jaunak eukiko al au beti gaur baizen zuzena...* Munduan zeharreko leku askotan mendi sakratuak daude, eta iruditzen zait noizbait Udalatzek begirune hori izango zuela. Gaur egun, gizarte teknifikatuetan, sakratu izaera barik parke natural maila egokitzen zaie. Eta Udalako haitzak badu horren beharrik. Are gehiago hemendik eta handik zultzekotan daudenean. ...*eu aizen arte zutunik dadin euskaldunaren izena.*

txutxu-mutxua

Abaroako erretiratuen elkartekoen itsas bidaia egin dute Mediterraneoan zehar

Abaroakoek itsas bidaia egin zuten. Guztira zortzi eguneko bidaia izan zen. Bartzelonako portutik irten ziren Eivissa aldera lehenengo. Ondoren, Tunisia bisitatu zuten, eta handik Italia aldera joan ziren. Egun bakoitzean hiri ezberdin bat bisitatu zuten: Mesina, Sizilia, Napoli, Livorno, Montecarlo eta zortzigarren eta azken egunean, berriz, Bartzelonara egin zuten buelta. Itsas bidaia gehiena gauez egin zuen MSC Melody izeneko itsasontzi dotoreak. Gelditu ziren portuetan, norberak nahi zuena bisitatzeko aukera izan zuen leku guztietan. Itsasontzi barruan, gainera, egiteko ekintza ugari izan zituzten.



JOSE RIVIERE

PUB HAIZEA

arrasate

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Merkataritza > Bedelkarren Azoka

Azoka egingo du Bedelkarrek zapatuan Udal Pilotalekuan

Azoka egun osoan egongo da zabalik:
10:00etatik
20:00etara bitartean

Herrian giroa jartzea eta komertzioetako produktuak erakustea dira helburuak

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Bedelkarrek azoka egingo du zapatuan Udal Pilotalekuan. Helburua da "elkartea bera eta herriko komertzioak eta produktuak ezagutaraztea eta herrian giroa jartzea", Ander Gisasola Bedelkarko presidentek esan duen moduan. 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik azoka eta umeendako puzgarriak eta musika emanaldiak ere izango dira

DESKONTUAK

Herrian, Bedelkarko 85 zerbitzu daude eta horietatik 24 izango dira zapatuko azokan. "Komertzio bakoitzak erabakiko du zer eraman. Ez da udako saldoen azoka bat; denda bakoitzak bere produktuak ezagutarazteko azoka da eta nor bere moduan aurkeztu eta salduko ditu produktuak", dio Ander Gisasolak.

Iratxo mertzeriako Nagore Eguren, adibidez, deskontua aplikatuko die azokara eramango dituen produktuei: "Udazkeneguko denboraldiko galtzerdiak edo leotardoak eramango ditugu, adibidez, eta deskontua izango dute". Mujika jantzi dendako Trini Olabarria ere azokan izango da. "Ideia oso ona iruditzen zait. Jai giroan egingo da eta horixe da helburuetako bat, herrian giroa sortzea", dio. Iratxo mertzeriak bezala, Mujika jantzi dendak ere denboraldiko jantziak eramango ditu. "Ezinezkoa da modelo guztietako neurri guztiak eramatea



Egun goizean hasi ziren azokako postuak muntatzen.

OIHANA ELORTZA

azokara, baina aurtengo nobedadeen mostra bat, behintzat, eramango dugu. Deskontua egingo diegu azokan saltzen ditugun produktuei", aurreratu du Trini Olabarriak. Gisasola burdindegiko Anderrek ere badaki zer jarriko duen ikusgai azokan, "nobedadeak burdindegietan ere izaten dira-eta".

UDALAREKIN BATERA

Udalaren laguntzarekin antolatu du azoka Bedelkarrek. "Jaur-laritzak diruz lagundu digu eta

Udalak azpiegitura jarri digu; asko lagundu digu", dio Bedelkarko presidentek. "Aspalditxotik, hilean behin bilera egiten dugu Udaleko eta Bedelkarko ordezkariok. Udalak tokia jarri du, Udal Pilotalekua, eta azoka muntatzeko behar zen azpiegitura eta laguntza guztia", zehaztu du Enara Minguez zinegotziak.

JOLASAK, MUSIKA ETA ZOZKETA

Azokaz gain, bestelako ekitaldiak ere antolatu ditu Bedelkarrek biharko. Esaterako, umeendako puzgarriak eta zezen mekaniko bat eta Potxin eta Patxin pailazoak egongo dira umeendako frontoian bertan. Musika Eskolako trikitilariak kalejiran ibiliko dira eta Udal Pilotalekuan bukatuko dute emanaldia. Txaranga Gazteak ere beste horrenbeste egingo du. Haizezko Orkestra arratsaldean ibiliko da herriko kaleetan zehar eta Bergarako Orfeoak emanaldia egingo du frontoian, 13:30ean. Erosketak egiten dituztenen artean telebista bat zozketatuko dute.

DATUA

85

ZERBITZU BEDELKARREN

Herriko 85 zerbitzu dira Bedelkarreko elkarteko kide. Horietatik hamar ostalaritza arloko zerbitzuak dira eta gainerakoak bestelako komertzioak dira. Azokan 24 egongo dira.

Azokako komertzioak

Aldasoro oinetakoak
Anezka oihalak
Arantxa Askasibar mertzeria
Barcelo bidaiak
Bergara Piel jantzi denda
Biltoki altzariak
Gabilondo jantzi denda
Gisasola burdindegia
Goiera perfumeria
Gracian Agirre mertzeria
Herran etxetresna elektrokoak
Igarza mertzeria
Iratxo mertzeria
Itziar mertzeria
Jauja kirol denda
Kanela dekorazioa
Keros paper denda
Laket jantzi denda
Lazkano oinetakoak
Mirari jantzi denda
Mujika jantzi denda
Tantana perfumeria
Txokolata osagarriak
Xuxu jantzi denda

> LEHIAKETA

'Gomendatzen dizut' lehiaketako sariak, bertan behera

Gomendatzen dizut lehiaketako aurtengo sariak bertan behera gelditu dira. Arrazoia da gomendio kopuru txikia egon dela. Gazte Informazio Zerbitzuak bidalitako oharrrak dioenez, kategoria bakoitzean bi partaide baino ez dira egon eta ondorioz erabaki dute bi kategorietako sariak eman gabe uztea.

Aurtengo sariak bertan behera gelditu badira ere, Gazte Informazio Zerbitzuak eskerrak eman gura dizkie orain arte lehiaketan parte hartu duten guztiei.

> EUSKARA

Berriketan egiteko laguntzaileak behar ditu Jardunek

Jardun elkarteak laguntzaileak behar ditu Berriketan egitasmorako. Proiektu horretan euskaldun berriak eta zaharrak elkartzen dira astean ordubetez euskaraz berba egiteko. Dagoeneko euskaldun berri askok eman dute izena Berriketan egitasmorako, baina euskaldun zaharrak behar dira, bizpahiru laguneko talde txokoak osatu eta berriketan egiteko.

Parte hartzeko interesa duenak Jardunera deitu behar du: 943 76 36 61.

> FERIA

Elosuko azokan egindako zozketako irabazlea 9.181 da

Elosuko mendiko ganadu azokan egindako zozketako irabazlea zenbaki hauxe da: 9.181 gorria. Hiru koloretako txartelak zeuden eta kolore gorriak irabazi du saria. Txartel hori duenak sari hau eskuratu du: hainbat produktuz betetako karretilla bat.

Mendiko ganadu azoka domekan egin zuten Elosun, eta zozketa egin zuten. Eguerdian atera zuten zenbaki sari-tua: 9.181 gorria.

Portazi
ile apaindegia

Asteartean %15eko deskontua erretiratuentzat

Martoko 30 BERGARA Tel.: 943 76 52 38

Ion Murgizu Pinturak

Margoketa orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industriala

Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara
Esozia 24- 2º behe • Soraluze

Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ZERBITZUAK > IGERILEKU BERRIA

Datorren urtarrilean hasiko dituzte kanpoko igerilekua egiteko lanak

Asmoa da uztailaren 1ean zabaltzea kanpoko igerilekua; eguzkia hartzeko edo jolaserako berdegunea Ipintza aldera egingo dute

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Datorren urtarrilean hasiko dituzte kanpoko igerilekua egiteko lanak. Udalaren asmoa zen urrian hasia, baina proiektua atzeratu egin da, eta horregatik, urtarrilean hasiko dituzte. Udal ordezkariak eta teknikariak bileran egin dute proiektuarekin eta ikusi dute posible dela urtarrilean lanak hasita uztailaren 1era-ko amaitzea. Izan ere, horixe da helburua, kanpoko igerilekua uztailaren 1ean zabaltzea.

Arkitektoak hilabete honetan entregatuko dio proiektua Udalari. "Urriaren 28an jasoko dugu", dio Martin Etxeberriak,

Kirol zinegotziak. "Plano batzuk ikusi ditugu dagoeneko, aurrerapena erakutsi digu arkitektoak, baina proiektu osoa hilaren 28an izango dugu eskuetan", zehaztu du Agurne Barruso alkateak. Proiektua jaso ondoren, deialdi publikoa egingo du Udalak lanak adjudikatzeko.

BERDEGUNA, IPINTZA ALDERA

"Deialdia egin eta lanak esleitzeko bere denbora behar du, baina asmoa da urtarrilean hasia obrak. Epeak aztertzen ibili gara. Lanak uda aurretik bukatzea posible ez bada, datorren urtera atzeratzea ere pentsatu dugu,

bestela ez delako ez igerilekurik ezta berdegunerik ere egongo udan. Baina arkitektoak esan digu urtarrilean lanak hasita posible dela kanpoko igerilekua uztailaren 1ean irekitzea, eta horrela egingo dugu", dio Kirol Saileko zinegotziak. Behin betiko plano eskuetan dutenean ikusiko dute udal ordezkariak ere kanpoko igerilekuaren eta berdegunearen itxura. "Dena dela, berdegunea Ipintza aldera luzatuko dugula esateko moduan gaudete. Aukera ezberdinak aztertu ditu arkitektoak, baina azkenean modu egokiena horixe dela ikusi dugu, Ipintza aldera egitea berdegune berria. Azalera aldetik, metro karratu kopuru antzekoa izango dute lehengoak eta gerokoak", zehaztu du Martin Etxeberriak. Ur putzua zabalik egongo da, ixteko aukerarekin.

GAZTEAK > INFORMAZIO BULETINA

Gazteendako informazioa, sarean

Gazte Informazio Bulegoak kanpaina abiarazi du gazte buletin elektronikoan harpidetza egiteko

zio Bulegoak eta kanpaina jarri du martxan. Bedelkarrek zapatuan frontoian egingo duen azokan mahai bat jarriko dute aukera horren berri emateko, 10:00etatik 13:00etara.

INFORMAZIO OROKORRA

Bergarako albisteez gain, gazteen intereserako izan daitezkeen hainbat gairen informazio orokorra ere jasotzen du gazteen buletin elektronikoak, hala nola Etxebiden izena nola eman, lan kontratu bat sinatu aurretik zer jakin behar den, gazte txartela zer den, iragarriak, dirulaguntzak, kontzertuak, ikastaroak, jaiak eta zinema proposamenak.

O.E. > BERGARA

Bergarako Gazte Informazio Bulegoak kanpaina bat jarri du martxan, egubakoitzero prestatzen duen gazteendako buletin elektronikoan ezagutarazteko eta gazteei posta elektronikoz bidaltzeko. Horrela, harpidetza eginez gero, zuzenean jasoko dute gazteek informazioa.

ALBISTEZ JOSITA

Gazte Informazioak prestatzen duen buletin horrek albiste asko diru, guztiak gazteen interesekoak; besteak beste, lan eskaintzak, deialdiak eta ekin-tzak. Horien berri zuzenean jasotzeko, harpidetza egiteko deialdia egin du Gazte Informa-

HARPIDETZA EGITEKO

Informazio hori guztia zuzenean jaso dezake edozein interesatuk bere posta elektronikoa. Horretarako, harpidetu baino ez da egin behar. Hauxe da horretarako helbide elektronikoa: www.gipuzkoangazte.info.

Musikoterapia ikastaroan 11 lagunek eman dute izena

Bergarako eta Debagoien osoko 11 lagun hasi dira aste honetan musikoterapia ikastaroan. Aintzane Arana musikoterapeuta da irakaslea, eta Hellen Bonnyk 60ko hamarkadan sortu zuen *Irudi gidatua eta musika metodoa*-ren ezagutzan oinarritzen da ikastaroa, musikoterapia harko-rreran; hau da, musika entzutean.

Bigarren urtez eskaini du aurtun Musika Eskolak musikoterapia ikastaroa. Astelehenean, urriaren 14an, hasi zen eta abenduaren 2an bukatuko da.



MUSIKA ESKOLA

DRAGON ORIENTAL
Ja-retxea

Etxera eramaten dugu

Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Osintxu, Antzuola edo Soraluzera + 2 €

943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

KONDE PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

JAUJA KIROLAK

Irizar 2. **BERGARA**
943 76 14 95

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

LIBURUTEGIA > 'IRAKURRI' KANPAINA

Toki eta kultura askoren topaleku bihurtuko da Udal Liburutegia

Urriaren 24an, 6-10 urte bitarteko haurrek nork bere izena hainbat hizkuntzatan idazteko aukera izango dute 'Irakurpuntu' tailerlean



Bergarako Udal Liburutegian egingo dituzte kanpainako ekitaldiak.

GOIENKARIA

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Urriaren 24an, egubakoitzean, hasiko da aurtengo *Irakurri* kanpaina; hain zuzen, udal liburutegien egunean. Egubakoitzean hasiko den kanpainak abenduaren 18ra arte iraungo du. Kanpainaren leloa *Liburutegiak topaleku* izango da, eta helburua da kultura guztien arteko errespetua sustatzeko toki eta kultura ezberdinen topaleku izatea.

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZA
Liburutegiak topaleku kanpaina Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuarekin elkarlanean egin du Udal Liburutegiak.

Kanpaina horren barruan hainbat ekitaldi antolatu ditu Bergarako liburutegiak datoen egunetarako. Adin tarte zabalari zuzendutako ekitaldiak dira.

DENETARIKO EKITALDIAK

Kanpaina hasten den egun berean, urriaren 24an, *Irakurpuntu* tailerra egingo dute liburutegian bertan, 17:00etatik 19:30era.

Sei eta hamar urte bitarteko haurrei zuzendutako tailerra izango da. Haur bakoitzari irakurpuntu bat emango zaio doan, eta haur bakoitzak bere izena

hainbat hizkuntzatan eta grafia ezberdinetan idazteko aukera izango du. Begiraleen laguntza izango dute haurrek.

Kanpainak irauten duen bitartean, 12-16 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako literatura lehiaketa egingo dute. Liburutegi zerbitzuaren webgunean dagoen ipuinari amaiera jarri beharko diote gaztetxoek. Originala eta argitaragabea izan beharko du amaierak; eta, euskaraz edo gaztelaniaz idatzi ahaliko da. Lehiaketaren oinarriak ikastetxeetan jasoko dituzte neska-mutikoei.

Azaroaren 3an, EPAko ikasleei zuzendutako ipuin kontaketaz gozatzeko aukera paregabea egongo da liburutegian, 15:30etik 17:00etara.

BISITA GIDATUAK

Urriaren 31n hasi eta abenduaren 12ra arte, 4-6 urte bitarteko haurrentzat Leire Iruin ipuin kontalaria egongo da. Bestalde, liburutegian bisita gidatuak egingo aukera dago. Arazorik ez izateko, aurrez abisatu behar da.

> ORGANO ERROMANTIKOA

Beasaingo Loinatz abesbatzak emanaldia egingo du Gerardo Rifon organo jolearen laguntzarekin

Nazioarteko organo erromantikoaren VIII. zikloko ekitaldien artean, bihar, zapatua, Beasaingo Loinatz abesbatzak kontzertua emango du. Kontzertua, ohi bezala, 20:00etan izango da San Pedro parrokiaren Xabier Sarasolak zuzenduko du Loinatz abesbatza eta Gerardo Rifon organo jolearen laguntza izango dute. Urriaren 4an hasi zuten organo erromantikoaren zikloa. Dagoeneko bi emanaldi egin dituzte eta biharkoa hirugarrena izango da. Hilaren 25ekoa izango da azken emanaldia; Oñatiko Ganbara abesbatzarena, hain zuzen.

> IKUS-ENTZUNEZKOA

Udal Euskaltegiaren 25. urteurreneko ospakizunen barruan, Antxon Artza izango da

Bizimoduak ikus-entzunezkoaren emanaldia gaur izango da Aroztegi aretoan 19:30ean. Udal Euskaltegia 25. urteurrena ospatzen dabil eta horren harira hainbat ekitaldi antolatu ditu; tartean, Antxon Artza mendizalearena. Artza 1962an jaiotzen Iruñean. Besteak beste, TVEko *Al filo de lo imposible* saioan lan egiteagatik egin da ospetsu.

Udal Euskaltegiaren ospakizunekin amaitzeko, azaroaren 13an Iñaki Kaperotxipiren *Zetaren ibilbidea* emango dute.

> UDAL BANDA

Udal Musika Bandak Santa Marina parrokiaren eguingo emanaldia domeka eguerdian

Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean Udal Musika Bandak kontzertua emango du domekan Santa Marinako parrokiaren. 12:30ean izango da kontzertua. Bandako lagunek Chirlaque zuzendariaren *Añoranza* pasodoblearekin hasiko dute kontzertua. Ondoren, C. Saint-Saëns musikariaren *La princesa amarilla* obertura joko dute. Andrew Lloyd Webberren *Don't cry for me Argentina* ezagunarekin jarraituko dute eta amaitzeko J. Francoren *Lau urtaroak* dantzaldia eskainiko dute.

DEIALDIA > ARTISAU AZOKA

Hilaren 24a da artisau azokako eskaera aurkezteko azken eguna

Gabonetako artisau azoka abenduaren 19tik 24ra egingo da, Munibe plazan

A.E. > BERGARA

Abenduan egingo den Gabonetako artisau azokan postua jarri nahi duenak hilaren 24a izango du eskaera orria aurkezteko azken eguna.

Eskatzaileak eskaera orria bete eta Udal Erregistroan aurkeztu beharko du, hilaren 24ko 13:30ak baino lehen.

DEBAGOIENKO ARTISAUAK

Debagoieneko artisauek gainontzekoen aurrean lehentasuna izango dute. Gainera, derrigorrezkoa izango da Gipuzkoako eskulangintza tradizional eta herrikoien errolda orokorrean inskribatuta egotea. Eskaera idatziz aurkeztu beharko da, eta bal-

dintza guztiak ezagutzen dituela azaldu beharko du eskatzaileak.

11 POSTU

Gabonetako azokaren helburua da Gabon inguruan herria giroz laguntzea eta artisauei azokan parte hartzeko aukera ematea. Azoka abenduaren 19an irekiko dute, 18:00etan, eta abenduaren 24a arte egongo da zabalik. Munibe plazan izango da eta ordutegia goiz eta arratsaldekora izango da.



Eskaerak egiteko:
670 45 25 65

Eguenetik domekara zabalik
19:30etik aurrera

Artekale 1 • BERGARA

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Arexabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Arteka 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6, behe / 620 124 843 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otarora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

Bergara / Zurradero 10 / 943 76 94 55

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Arteka 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXE MARIA

Bergara / Arteka 1-1H / 943 76 43 71

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behe D - Kiroldegian

Arrasate / Mendia Jauregia.

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ELORTONDO FLOREN

Arexabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

Bergara / Ibargarai 16 / 943 76 15 75

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arexabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA

Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerías 56 / 943 79 44 22

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Arexabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 235 753

FUTBOLA > LEHEN ERREGIONAL MAILA

Bergarak Mondra hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen

Bergara bigarren tokian dago sailkapenean, Mutriku liderrarengandik bi puntura

Azken jardunaldian, aurreko zapatuan, 0-2 irabazi zuten Manu Diazen mutilek, Tolosan

EDU MENDIBIL > BERGARA

Inguruko taldeen bigarren taldean aurka jokatzen du aspaldi honetan Bergarak. Horrela, bihar, zapatua, Manu Diazen mutilek lehen erregional mailako Mondra hartuko dute Agorrosinen. Arrasatearren kontrako derbia 16:45ean jokatuko da.

Bergarak sendo jarraitzen du ligan eta bigarren tokian da, Mutrikuren atzetik. Mutrikuk jokatutako bost partiduak irabazi ditu eta Bergarak bakar baten *huts* egin du; BTLs taldearen kontrako derbian, hain zuzen. Gainerako lau neurketak irabazi dituzte mahoneroek. Joan den astean, Tolosari irabazi zioten, 0-2, Usabalen. Imanol Cabanillasek egin zituen bi golak, bigarren zatian biak.

Biharko partiduari dagokionez, Mikel Oregi baja izango da eta, bestalde, Iñaki Muxikak, Manolo Ortizek eta Markel Lazpiurrek ere ez dute jokatzerik izango, lesionatutako jarraitzen dutelako.

Agorrosinen bisitari izango duten Mondra sailkapeneko 8. tokian dago, zazpi punturekin. Azken jardunaldian 1-0 irabazi zion Mondrak Lazkaori. Zazpi gol egin eta bederatzi jaso dituzte orain arte arrasatearrek.

Manu Diaz Bergarako entrenatzaileak zera diosku: "Taldea filialak beti dira arriskutsuak presio txikiagoarekin jokatzen dutelako. Guri dagokigunez, oraingoz ondo goaz, baina lehen itzulia amaitutakoan ikusiko da noraino hel gaitzekoen".



Bergara sendo dabil etxeko partiduetan orain arte.

J. ARANTZABAL

BTLs, ZUMARRAGAN

Lehen erregional mailarekin jarraituz, BTLs Urolari egingo dio bisita bihar, zapatua,

Zumarragako Argixao futbol zelaian, 16:30ean. Joan den astean 1-2 galdu zuen BTLs Anaitasunaren aurka.



MIREN MAIZTEGI

Agustin Heis, Anglirura korrika

Agustin Heisek parte hartu zuen domekan Angliruko igoeran. Espainiako Itzulian txirindulariek nahikoa lan izaten dute Angliru igotzen eta beste horrenbeste gertatu zitzaizen korrikalariei. 13 kilometroak egiteko ordubete eta 22 minutu behar izan zituen Heisek (55 segundo hobetu zuen 2006ko marka). 371 partaide izan ziren eta Antxintxika Triatlai Taldeko kidea 80. iritsi zen. Ziurrenik Donostiako maratoia izango du hurrengo hitzordua.

ESKUBALOIA > TERRITORIAL MAILA

Soraluce BKE taldeak Urola hartuko du domeka goizean

Asteburuan Bergarako hiru taldek jokatuko dute norgehiagoka etxean

X.U. > BERGARA

Ligan orain arte jokatutako bi partiduetatik bakarra irabazi duten Bergara eta Urola izango dira domekan zein baino zein gehiago Labegaraietan. Joan den astean Muniategiren mutilek Egia hartu zuten mendean: "Egiaren kontra irabazi

eta gero, bai defentsan eta baita erasoan egiten dugun jokoa sendotu egin behar dugu", adierazi du Bergarako entrenatzaileak.

GAZTETXOEK LEHENAGO

Senior mailako partiduaren aurretik jokatuko du Unai Orgazek zuzentzen duen taldeak. Jokatu dituzten bi partiduak irabazita, 10:30ean Irun izango dute aurrez aurre.

Zapatuan ere izango da hitzordurik, 12:30ean Bergara Txikik Tolosaren kontra jokatuko du-eta.



Irudian, Mikel Plazaola, aurre denboraldian, Zarautzen aurka.

J. ARANTZABAL

labegaraieta

PARTIDUAK

Urriak 19, domeka	Epaileak
09:30 Komando Piperrak-Akabaok Niu Tim	
10:30 Zigalakatis-Niu Tim	Irubide
11:30 Irubide-Belengua	Zigalakatis
16:00 Los Latinos-Internacional	Los Blus
17:00 Errotagain-Los Blus	Internacional
18:00 Monte Taberna-Carboneros	Irish Pub
19:00 Irish Pub-Carboneros	Monte
20:00 Diego Valor-Irish Pub	Carboneros

SAILKAPENA

1. Akabaok	9
2. Komando Piperrak	9
3. Los Latinos	9
4. Zigalakatis	7
5. Errotagain	7
6. Carboneros	6
7. Diego Valor	3
8. Internacional	3
9. Belengua	3
10. Los Blus	1
11. Irubide	1
12. Niu Tim	0
13. Irish Pub	0
14. Monte taberna	0

AT Celaya eta Saukelu Abian, zortzigarren sailkatzeko lehian

Asteburuan jokatuko dute Labegaraietako areto futbol txapelketako laugarren jardunaldia. Domekan, goizez eta arratsalde, zortzi partidu jokatuko dira Labegaraietako kiroldegian.

Aurtengo ekitaldian 14 talde izango dira lehian; iaz baino bi talde gehiago, hain zuzen. Diego Valor Ile-apaindegia (Bergara), Zigalakatis eta Monte Taberna (Arrasate) eta Akabaok (Aretxabaleta-Bergara) taldeek lehen aldiz hartzen dute parte. Akabaok taldea dugu, gainera, lider postuan; oraingoz, behintzat. Nabarmenezkoa da, era berean, Zigalakatis eta Komando Piperrak taldeen liga hasiera. Iazko hirugarren postua hobetzeko bidean da Komando talde beteranoa.

Txapelketa sistemari dagokionez, liga sistema jarraituko da, joan eta itzulerako partiduekin. Lehen postuan sailkatzen den taldea izango da ligako txapeliduna eta liga amaitutakoan, kopa jokatuko da, *play-off* kanporaketa bidez.

Bestalde, antolatzaileek aditzera eman dutenez, aldaketa bakarra egin da orain arteko kirol araudian: aurkari batean aurrean ezin izango da lurretik faltarik egin aurrerantzean. Sarrera itsusiak eta indarkeria zigortzeko jarri dute indarrean aipatutako araua.

bergararrak kanpoan

Edu Muruamendiara > Dantzaria
Donostian bizi da

"Aspalditik Donostian bizi arren, ni 'Bergarakua' naiz"

NEREA MENOR > BERGARA

Ikasle garaian hasi zen Muruamendiara Donostian bizi izaten. Hasieran, herrira bueltatzen zen asteburuetan, baina dantza taldea topatu eta bertan geratzen hasi zen. Orain, bertan bizi da bikotekide eta alabarekin; "Aspalditik Donostian bizi arren, ni *Bergarakua* naiz", argitzen du.

18 urterekin informatika ikasleko asmoarekin heldu zen Edu Donostiara. Laster lagako zituen, baina, ordenagailuak. Eskola dantza talde batean sartu zen eta 16 urte eman zituen bertan, asteburuetan-eta ikuskizunak eskai-

niz. Duela hamar urte sortu zuen Aukeran dantza konpainia eta ordutik aurrera, "hiru ikuskizun egin ditugu eta dantza tradizionalaren munduan atea ireki ditugu", dio Eduk. "Oso gustura gaude". Zaletasunaz gain, dantza bergararraren lana ere bada: "Urnietako Ikastola publikoan

"Gonbidatuta zaudete azaroaren 15ean Kilometroen aurkezpenarako antolatu dugun ikuskizunera"



Edu Muruamendiara.

irakasle nabil; eta Villabonan eta Ibarren ematen ditut eskolak. Baiona aldean ere hainbat ikastaro ematen ditut".

HIRIKO ESKAINTZA ZABALA

Lanean gustura dabil eta baita hirian ere: "Giro polita dago Donostian, leku ezberdin asko daude eta egun batean gauza asko egiteko txanpa ematen du horrek. Askatasun handiagoa dago herri baten baino. Ikuskizunen eskaintza zabalagoa da eta eskolak hartzeko ere aukera handiagoa dago". Izan ere, etengabe birziklatu behar dela uste du Muruamendiara eta dantza eskolak emateaz gain jaso ere egiten ditu. Dantza Muruamendiara arlo guztietan dago, emaztea ere dantzaria da-eta.

Bergarako Kilometroetan aureskua dantza zuen eta datorren urtean Zurriolako ikastolak antolatuko dituenetan ere parte hartuko du. "Azaroaren 15ean aurkezpenarako ikuskizun berezia antolatu dugu, eta gonbidatuta zaudete", gaineratu du.

bere ustez



Yon Suinaga

Wolframio asmakizunaren 225. urtemuga

1783. urtea, Bergarako Errege Seminarioa, Elhuyar anaiek elementu kimiko berri bat aurkitzen dute. Wolframioa, taula periodikoaren 74. zenbakia. Betidanik lorpen zientifiko handienetakoa. Fausto, 28 urte, Mineralogia eta Metalurgiako katedradun Bergarako Seminarioan. Juan Jose, 29 urte, espia izateko formatua, baina bakeko garaia ziren eta gure herrira abiatzen da bere anaiarekin lan egiteko *laboratorium Chemicumean*. Euskal jatorriko eta Logroñon jaiotako anaia

argazki zaharra



Accion Catolica dantza taldea

Accion Catolica de Bergara dantza taldea agertzen da 1952ko argazki horretan. Bergarako Labegariaetan aterata dago eta taldeko 13 kide azaltzen dira bertan.

Zutik: Miren Castañares, Carmen Oiarbide, Encarnita Peña, Mertxe Lazkano, Beatriz Lazkano, Anita Agirre, Alicia San Vicente, Consuelito (?) eta Itziar Gantxegi. Makurtuta:

Maria Luisa Osinalde, Lide Oregi, Maria Luisa Basterra, Miren Suinaga.

Argazkia: Miren Suinaga.
Informazioa: Nerea Menor.

"Bergaran laborategiaren erreplika bat izatea interesgarria izango zen"

zientifikoak wolframita mineralatik metal berri bat isolatu zuen. Dударik gabe handiko aurrerapena zientziarako. XVIII. mendeko azken laurdenean, garaiko bitartekoekin, metal bat isolatzea meritua handiena izan zen.

Wolframioaren erabilera belikoa ere izan du, baina gaur egungo teknologian aplikazio handia du. Bonbillaren filamentuan, X izpieko hodieta, bitxietan, labe elektrikoetan, boligrafoaren puntan, altzairuko aleazioetan, kontaktu elektrikoetan eta abar luze baten aurkitu dezakegu. Bergaran laborategiaren erreplika bat izatea interesgarria izango zen. Elhuyarren irudierekin eta panel informatibok aurkikuntza eta Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País historia azaltzen.

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

EDEL

TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.


Bidekurutzeta 14 BERGARA

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

I. PINTXO LEHIAKETA



Urriak 19, domeka

09:00: plazatik, irteera gaztetxoendako perretxikoak biltzera.

11:30: plazan, **PERRETXIKO ERAKUSKETA.**

13:00: I. pintxo lehiaketa.

Pintxoak: 1€.

Non: Haizea tabernan, Ostatu jatetxean, Espaloia Kafe Antzokian, Iñaki jatetxean, Bolatokian, Hotelean eta Eguzkitzan.

13:30: pintxo lehiaketaren sari banaketa. Txapela eta garaikurra.

Epaimahai kideak: Ozkarbi, Intxorta, Mendi Mendian eta Gure Borda elkarte-etako ordezkariak.

Goizean zehar Hamaika bertute taldeko bertsolariak arituko dira kantuan plazatik abiatu eta tabernaz taberna.

14:00: Babajana 20€.

Menua: babak, saiheskia, postrea, edariak eta kafea.

Non: Herriko tabernetan. Hotelean pasta egongo da.

Erreserbak www.elgeta.org webgunean egin daitezke.




Elgetako Udala
Turismo saila



Maala 2 • Elgeta
Tel.: 943 78 90 85

EGUZKITZA
LANDETxea



Eibarrerako bidea z/g Elgeta
Tel.: 943 78 90 84
Sakelakoa: 679 41 66 97

**Haizea
Taberna**

Salbador 5 • Elgeta
Tel.: 943 76 82 56

**OSTATU
JATETxea**

Gudarien bidea 4 • Elgeta
943 76 80 23

IÑAKI
Jatetxea

San Roke 2 • Elgeta
Tel.: 943 76 82 83



Seigarren Zentzumena jatetxea
Elgeta hotela

San Roke 26 • Elgeta
Tel.: 617 03 39 89

BOLATOKI
taberna

Artekale 4
943 76 82 84
Elgeta

OSOKO BILKURA > ORDENANTZA FISKALAK

Ondasunen zerga %7,8 igoko dute, eta ura eta zaborra, %10

Ezker Batua-Berdeek hiru zuzenketa jarri zizkieten ordenantzei; ez zituzten onartu

EAE-ANV eta EHAKren ilegalizazioen aurkako mozioa onartu zuten hainbat aldatetarekin

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Hiru gai zituen aztertzeke, astelehenean, ezohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak, EAJko bi zinegotziak ez zeudela.

Mozioa aurkeztu zuten hainbat herritarrek EAE-ANV eta EHAK alderdien ilegalizazioaren aurka eta azken asteotako atxiloketak salatzeke. Mozioa aurkeztutako herritarrek eurek eman zituzten azalpenak eta bederatzita eskaera egin zituzten udalbatzari. PSE-EEko zinegotzi biak mozioaren aurka azaldu ziren, eta auzitegiek delituak epaitzen dituztela eta talde terroristari laguntzea delitua dela adierazi zuten. Biolentzia noiz kondenatuko duten galdetu zieten aurrez aurre zeuden herritarrei, eta Udaleko zinegotzi bik ez dutela askatasunik jakinarazi zuten: "Euskadik askatasuna behar du eta horretarako lanean jarraituko dugu", esanaz bukatu zuten.

Inaxio Garro alkatearen erabakiz, mozioaren puntuak banan-banan bozkatu zituzten. Bederatzita eskaeretako batzuk onartu egin zituzten eta beste batzuei aldatetako batzuk egin zituzten Udal Gobernuako kideek. Hala, Aralarrek eta EAK osatutako gobernuako kideek eta Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotziak baietza eman zieten eskaerari; PSE-EEko zinegotziak abstenitu egin ziren lehenengo puntuan eta gainerakoetan ezetza esan zuten.



Astelehenean egindako osoko bilkuran udalbatzako kideak eta herritarrak.

M.A.

ALDUNDITIK, %11 GUTXIAGO

Datorren urteko udal zergek zenbateko igoera izango duten ere erabaki zuten. Alkateak jakinarazi zuen Foru Aldunditik %11 gutxiago jasoko dutela 2009an (471.000 euro), eta ondorioz udal zerga batzuek igoera nabarmena izango dutela. Ezker Batua-Berdeek hiru zuzenketa jarri zituzten gobernuaren proposamenei. Ondasun higiezinaren gaineko zerga KPI bakarrik igotzea proposatu zuten. Alkateak erantzun zuten Debagoieneko gutxien kobratzen duen herria dela, eta zerga garrantzitsua dela Udalarendako. Hala, bozketa eginda atzera bota zuten zuzenketa eta hiri lurrei dagokien zerga %7,86 igoko dute; industria lurrei dagokiena, %6,75; eta baserri lurrei dagokiena, %5,77.

Ibilgailuei dagokien zergaren kasuan, kutsatzen duten araberako kobratzea eskatu zuten Ezker

Batua-Berdeetako Tomas Fernandezek. Udal Gobernuako kideek erantzun zioten automobil zaharrek -urtebete baino gehiago dutenak- zenbat kutsatzen duten jakitea oso zaila dela eta Aretxabaletan 3.000 daudela. Hor-taz, potentziaren arabera kobratzen jarraitzea erabaki zuten.

Hirugarren zuzenketa eskatzen zuten bi milioi euro baino gehiago fakturazten duten enpresei %10 igotzea jarduera ekonomikoaren gaineko zerga. Udalbatzako gainerako kideek ez zuten zuzen ikusi, gaur egungo egoera kontuan hartuta, eta %7 igotzea onartu zuten azkenean.

URA ETA ZABORRA, %10

Gainerako zerga guztiak aho batez onartu zituzten. Hala, zaborra %10 inguru igoko dute, Mankomunitateak aholkatzen duen moduan, eta urak ere %10eko

igoera izango du, iazko antzera. Gainera, gutxieneko kontsumoa baino gehiago gastatzen dutenei KPI ere igoko diete. Eraikuntza eta obren gaineko zergak ez du igoerarik izango, eraikuntzak bizi duen momentu txarra kontuan hartu dutelako.

Urats Gain zaharren egoitzako igoera KPI izango da; baita Pausoka haur eskolako ere, irailtik aurrera. Gainera, kirol jardueren gaineko tasak onartu zituzten, eta Udalaren lokalak erabiltzearen errenta ezartzea erabaki zuten: Arkupeko aretoak, Irabalbarri plazako lokalak...

LIZITAZIOA MANKOMUNITATEARI

Bukatzeke, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia enpresetan ezartzen hasiko direla jakinarazi zuen udal idazkariak, eta lana eraginkorragoa izateko Mankomunitatearen esku utzi zuten lizitazioa.

OMENALDIA

Paulo Letona abadeari omenaldia egingo diote


Urrezko ezteiak bete zituen ekainean, eta Pastoral Barrutiko kideekin ospatuko du

M.A. > ARETXABALETAKO

Eskoriatza eta Aretxabaletako parrokiek osatzen duten Leintz Pastoral Barrutiko kideekin ospatuko ditu apaizgintzaren urrezko ezteiak Paulo Letona abade eskoriatzarrak. Domekan izango da ospakizuna, hilak 19: meza Aretxabaletako parrokiaren (11:30) eta bazkaria Eskoriatzako Mendigoia hotelean (14:30). Herritar askok eman dute izena azken egunotan, eta parrokiako kideek jakinarazi digute 160 lagunetik gora joango direla bazkarira.

DEBAGOIENEAN ABAD


Eskoriatzako Marin auzoan jaioa, 1958ko ekainean izendatu zuten abade Lourdesen (Frantzia). Beti ibili da Debagoieneko lanean: Bedoña auzoko parroko, Arrasateko Eskola Politeknikoan irakasle 40 urtean, Urbarri eta Musakola auzoetan parroko, eta azken urteotan Aretxabaletan parrokoaren ondokoa. Horregatik oso ezaguna eta estimatua da Letona bailarako kristauen artean.



Paulo Letona abadea.

M.A.

propaganda
kartelak
kartak
jai egitarauak
pegatinak
liburuak
etiketak
txartelak
errekordatorioak
gonbidapenak
errebistak
inprimakiak



EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxes: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

1979urtetik
zure zerbitzura

HEZKUNTZA > INTERNET

Interneten erabileraren gaineko kezkak argitzeko hitzaldia

Gazteengan duen eragina azalduko die Ramon Barlan Bartzelonako adituak

Kurtzebarri eskolako guraso elkarteak antolatu du, eta astelehen arratsaldean da, Arkupen

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Interneten gainean gurasoek dituzten zalantza eta kezka asko jaso ditu Kurtzebarri eskolako Batera guraso elkarteak: "Zergatik gelditzen dira harrapatuta? Zergatik ezkututzen dira helduengandik? Interneten badago ezer onik gazteendako?" Galdera horiek eta beste asko dituzte gurasoek buruan, eta guztiei erantzuna topatzeko Bartzelonako Ramon Barlan irakaslea gonbidatu dute.

Teknologia berrien gainean egingo du berba Barlamek astelehenean, hilak 20, Arkupe kul-



Kurtzebarri eskolako guraso batzordea, Interneten gainean hausnartzen.

KURTZEBARRI ESKOLA

tura etxean. Lehenengo, Kurtzebarri eskolako irakasleak izango ditu entzule, eta hezkuntzarako dauden tresnen gainean jardungo du; web 2.0, esaterako.

Ondoren, 18:15ean, gurasoen txanda izango da. Gazteen ezagarrrien berri emango die -zelan komunikatzen dira, zelan jolasten dira...- eta Internetekin duten

harremana argituko die: ordenagailuaren erabileraren gaineko hausnarketa, bideojokoek heziketarako balio duten, Internet segurua zelan lortu...

KULTURA > ANTZERKIA ETA PAILAZOAK

'Carretera y manta' antzezlana eta pailazoak, egunotan

Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoen bihurrikeriek barrez lehertuko dituzte etxeko txikienak, bihar, Arkupe kultura etxean

M.A. > ARETXABALETA

Carretera y manta antzezlana eskainiko du gaur, egubakoitza (22:00), Aitziber Bilbao aktoreak, Arkupe kultura etxeko Zaraia

aretoan. Gaztelaraz da, eta debalde. Dekoratu handi barik eta itxura apala duen antzezlana da, baina energia handikoa eta publiko-arekin harreman estua lortzen

duena. Helburu bikoitza dauka antzezlana: ikusleak ondo pasatzea, batetik, eta hainbat gairen gainean hausnartzea, bestetik. Geure helburuak lortzeko borrokan egin beharra, beldurrari aurre egiteak duen garrantzia, hainbat sentimenduren aurrean sortzen den ahultasuna... eta antzeko gaien gainean jardungo du Bilboak.

PAILAZOKERIAK

Bihar, hilak 18, Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoen ikuskizuna izango dute umeeak, Arkupen (17:00), 5 euroren truke. 2000. urtea ezker lanean diharduen pailazo hirukoteak bihurrikeriarik xebleenak taularatuko ditu. Hain zuzen, Kuko eta Trukoren okerkeriei egin beharko die aurre Bolen-

waider zentzudunak, ikusle txikiak lekuko eta lagun dituela.

'ZAPATOS' ANTZEZLANA

Urriaren 24an (22:00) eta 25ean (19:00), Zapatos Teatro konpainiak *Zapatos* antzezlana eskainiko du Arkupe kultura etxean. Txaro Gallego aretxabaletarra da konpainiako kide eta aktore-etako bat, eta joan den abuztuan Udalak utzitako lokaletan egin zituzten entseguak. Estreinaldia Zizur Nagusian (Nafarroa) egin zuten eta orain Aretxabaletara datoz.

Zapaten zabortegi batean lan egiten duten bi kale-garbitzaileen istorioa eskainiko dute Txaro Gallego eta Imanol Espinazo aktoreek. Egunero altxor txikien bila dabilzan bi laguneren istorioa, hain zuzen.

> EUSKARA

Astean hasi dute 'Jotzeko prest!' pala txapelketa

Loramendi Euskara Elkarteak hirugarren aldiz antolatu duen *Jotzeko prest!* pala txapelketa hasi dute astean. Hamar bikotek eman du ize-na, eta martitzen eta eguene-tan (21:00-22:00) jokatuko dituzte partiduak Iturrigorri frontoian. Bikote gehienak aretxabaletarrak dira, baina badaude Oñatiko eta Arrasateko jokalaria ere.

Urriaren hasi eta abendua bitartean jokatuko dituzte partiduak. Abenduaren 19an daukate ezarrita finalerako eguna, eta aparteko sariak gertatuko dituzte Loramendiko kideek ordurako. Iaz, gainera, apustuak ere egin zituzten finalerako giroa berotzen joateko herrian.

> OSPAKIZUNA

Folklore eta gastronomia jaiak urriaren 26an da

Urriko hirugarren domekan egin izan dute folklore eta gastronomia jaiak, baina aurretik azken domekan izango da, hilaren 26an. Urtero legez, hainbat herrialde ordezkatzen dituzten taldeak etorriko dira abestu, dantzan egin eta bertako produktuak saltzera: Galizia, Extremadura, Errioxa, Gaztela eta Leon... Herriko plazako lanak direla eta, Mitarte eta Durana kaleetan jarriko dituzte jakiak saltzeko postuak.

Gainera, patxaran lehiketa egingo dute egun horretan. Nor bere etxean egindako patxaranak jasoko dituzte goiz partean eta epaimahaiaren erabakia arratsaldean jakinaraziko dute antolatzaileek.

> PARROKIA

Herrian grabatutako meza emango dute Euskal Telebistan

Andre Mariaren Zeruratze parrokiaren grabatutako meza Euskal Telebistako kamerekin hiru zapatutan: urriaren 25ean, 31n eta azaroaren 1ean (19:30). Grabatutako meza hori hurrengo egunean -urriaren 26an, azaroaren 1ean eta 2an- botako dute ETB2 katean (10:00).

Aste honetan bertan herriko irudiak hartzen ibili dira Euskal Telebistako hainbat lagun. Batetik, herriko kale eta bazter esanguratsuenak jaso dituzte, eta bestetik, auzo eta elizateetara jo dute bertako baselizak grabatzera. Irudiokin eta Udalean jasotako informazioarekin meza aurretik dagoen tartea osatuko dute.

GARBITU KOOP. ELK.

*Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak*

Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21
garbitu@euskalnet.net

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

AZPIEGITURAK > OÑATIKO BIZIKLETA PLANA

Erdigunean ia zazpi kilometroko bidegorria egiteko proposamena

Ander Irazustak egindako txostena Txirrinka taldearekin aztertzen dabil Udala

Hurrengo urterako bidegorriaren lehen zatia egin asmo dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Oñatiko Bizikleta Planaren behin-behineko proposamena eskuartean du Udalak. Hain justu ere, Ander Irazusta geografoak egindako azterketa. Txostenean, besteak beste, erdiguneko bidegorri sarearen oinarritzko diseinua egin du. Horren harira, ia zazpi kilometroko sarea egitea proposatzen du Irazustak. Gainera, herritarren artean bizikleta-erabilera sustatzeko, betebe-

harreko helburuak eta egin beharreko ekintzak zehaztu ditu txostenean.

Txirrinka bizikleta zaleen taldeak du Ander Irazustak egindako txostena uztailearen 16tik. Jaiei aurretik bildu ziren Irazustarekin dokumentua aztertu eta Txirrinkaren iradokizunak jasotzeko. Urri bukaeran bilera berria egingo dute, bidegorri sarearen trazatua zehaztu eta lehentasunak finkatzeko.

Horren harira, bidegorri sarearen proiektua aztertzekobiler irekia deitu du Txirrinka taldeak bihar, 18:30ean kultura etxean. Gaiarekin interesa egertu duten eragileak gonbidatu gura dituzte bilerara. Eragileek ekarpenak egin ahalko dituzte. Udala arduradunen asmoa da 2009an erdiguneko lehen zatia egitea. Horretarako, hurrengo urteko aurrekontuetan bidegorria egiteko diru-atala zehaztuko dute.

BI ADAR NAGUSI ETA LOTURAK

Ander Irazustak egindako proiektuan 3,8 kilometroko bi adar nagusi (Kurtzekua-Berezaio eta Urrutxu-Ugarkalde) eta sei bide-adar egitea aurreikusten du. Lehen adar nagusiak Kale Zaharra eta Bidebarrieta zeharkatuko luke, eta Elorregitik Oñatira Foru Aldundiak egingo duen bidegorriarekin bat egingo luke. Bigarren adar nagusiak Urrutxun eraikiko den kirol-gunetik abiatuta, Unibertsitate Etorbidea,

Portu Kale, Santa Marina, Euskadi Etorbidea eta Lazarraga kaleak zeharkatuko lituzke.

Bestalde, bi adar nagusiekin bat egingo duten sei bidegorri motzagoak aurreikusi ditu Irazustak; hain zuzen ere, Kalegoiena-Aita Lizarralde; Atzeko kale-Kalebarria-Lazarraga; Zubibarriri-Irizar-Gerriko kanto; Patrua kale-Arantzazuko Ama; Lizaur-Zubikoa; eta Errekalde. Guztira, hiru kilometro osatuko dute sei bide-adarrek.

HAINBAT MOTA

Hainbat bidegorri eredu proposatzen ditu Irazustak, hain zuzen ere, kaleen zabalera, ezaugarriak eta zirkulazioa kontuan hartuta. Hortaz, bidegorri eredu mistoa proposatzen du; hau da, zati batzuetan bizikletendako bakarririk diren bideak bereiztuko dituzte, eta beste zati batzuetan, bizikletek autoekin edo oinezkoekin edo biekien batera partekatuta beharko dute bidea.

LEHEN SEKTOREA > ARTZAINZAZA

Artzain Eskolako ikasleek eraikin berrian egingo dute ikasturtea martxora arte

Asteon inauguratu ditu Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Artzain Eskolaren eta Gomiztegi Elkartearen arditegiaren eraikin berriak

M.B. > OÑATI

Itsamendikoi Artzain Eskolak antolatzen duen ardi esnee buruzko 12. ikastaroa jarri zuen martxan astelehenean. Guztira, Txile eta Euskal Herriko 14 artzain ibiliko dira eskolak hartzen. Artzain Eskolako ikasturtearen hasiera ekitaldian, Gomiztegi Elkartearen ardi-granjaren eraikina inauguratu zuten. Ekitaldian egon ziren, besteak beste, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria; Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburu Gonzalo Saenz Samaniego; Gipuzkoako Aldundiko Landa Ingurumenare Garapen departamentuko diputatu Rafael Iribarren; Gomiztegi Elkarteko presidente Telesforo Zuriarrain; eta Itsamendikoiko zuzendari kudeatzaile Lander Arregi.

Inaugurazio ekitaldia bukatu ondoren Dublinen izandako World Cheese Award lehiaketan urrezko domina jaso zuten gaztak dastatu zituzten.

ZENTRO BERRITZAILEA

Frantziskotarrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Itsamendikoik osatzen duten Gomiztegi Elkartek sortutako eraikina



Argazkian, Nikolas Seguroa, Telesforo Zuriarrain, Juan Jose Ibarretxe, Lourdes Idoiaga eta Rafael Uribarren.

MIREN ARREGI

"zentro berritzailea" dela esan zuten arduradunek, eta ardi-hazkuntzari bultzada emango diona. Gainera, landa ingurunearen

garapen eta nekazal elikadura sektoreen prestakuntza bultzatzeko helburua du. Artzain-eskola berriak 1.300 metro koadro ditu

eta gazta egiteko sistema berria du. Era berean, ardi-granja, dena, ikasgela eta bilerak egiteko aretoa egokitu dituzte.

IKASTAROA

Antolatu dute norbera izateko ikastaroa

M.B. > OÑATI

Udal Gizarte Zerbitzu departamentuak emakumeendako ikastaroa antolatu du. Hain zuzen ere, norbera izaten ikasteko ikastaroa egingo dute urriak 27an eta 29an, eta azaroan 3an, 5ean, 10ean eta 12an. Egunero bi orduko eskolak emango dituzte, 18:30etik 20:30era arte.

GEHIENEZ, 15 EMAKUME

Ikastaroan, taldeko 15 emakume onartuko dituzte gehienez, eta izena emateko hurrenker hartuko dute kontuan taldea osatzerako orduan. Izena emateko 943 03 77 00 telefonora deitu behar dute, astelehena, hilaren 20a baino lehen.

Doaneko ikastaroa da eta Udala emakumeei begira egiten diharduen plangintza orokor baten barruan kokatu du Gizarte Zerbitzuak.

AITXURI BURDIN LANAK

Galdaragintza
Mantentze lanak

Tel.: 688 63 95 18
20230 LEGAZPI
Gipuzkoa

Kimu

Kale barria 17
Tel. 943 08 16 07

Kimu-URTxin
Loradendak

Gaztetasuna eta 30 urtetako esperientzia batera

Portu kale 5
Tel. 943 78 22 41

INGURUMENA > BESTELAKO ERREGAIK

Biomasa energia ibiliko duen galdara jarriko dute kultura etxean

Gasolioko galdara kendu eta pelleta erabiltzen duen berria jarriko dute

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Astelehenean ezohiko osoko bilkura egin zuten udaletxean. Ez ziren oso pisu handiko gaiak izan, baina bai ahalik eta lasterren abian jartzeko ekimenak, hain zuzen ere.

Lehenik eta behin, Olazar Zaharren egoitzako taberna-aretoa ustiatzeko lehiaketa izan zuten berbagai, eta hura esleitzeko baldintza juridiko-ekonomiko-administratiboak onartu zituzten.

Horrez gain, 2009. urterako herri barruko taxi zerbitzuaren tarifak onartu zituzten; eta peoi-lurperatzaile laguntzaile lanpostua hartzeko deialdia atzera bota zuten, jarri zituzten baldintzetan ezarritako hizkuntza eskakizunaren datarekin akats bat antzeman zutelako.

Udal Gobernuarendako prezakoa den beste gai bat kultura etxeko galdararena da. Hain zuzen ere, udal eraikin horretan kalefakzioa eta ur beroa izateko galdara bat dago aspalditik, gasolioarekin lan egiten duen galdara bat.

GALDARA ZAHARKITUA DAGO

Udaleko Ingurumen arduradunek jakinarazi dute kultura etxeko galdara zaharkitua dagoela eta ez duela behar den moduan lan egiten. Horregatik, galdara alda-

tzea proposatu zuten; eta, bide batez, bestelako galdara bat jartzeari, eraginkorragoa izango dena eta erregai gutxiago kontsumituko duena. Gaur egungoa ordezkatzeko duen galdara berriak erretiratu eta elkartean, Udaleko Gazte Zerbitzuan, kultura etxean eta Udaleko beste alor batzuetan emango du zerbitzua. Udalak erabili beharreko erregaia biomasa energia izatea aukeratu du, horrenbeste kutsatzen ez duelako eta kontsumoa ere txikiagoa duelako.

EGURRAREN HONDAKINAK

Azkenean, biomasako aukeren artean Udalak apropostzat hartu du pelleta erregai erabiltzen duen galdara erostea.

Pelleta egur hondakinekin egiten dute, sobratzen den egur errautsa prentsatu ondoren. Adituek azaldukoaren arabera, erregai horrek emisio txikiagoak ditu, kontsumoa ere txikiagoa da eta sortzen duen CO₂ zuhaitzek neutralizatzen dute. Horrenbestez, energia garbien

alde lan egiten duten hainbat erakundek horren erabilpena gomendatzen dute.

Udalaren asmoa da galdara lehenbailehen jartzeari, orain artekoa desegokia delako eta ez duelako lana ondo egiten. Dagoeneko hori eskuratzea onartuta dagoen arren, hainbat pauso eman behar dituzte.

IHOBE-RI KONTSULTA EGITEA

Udaleko Ingurumen Saileko arduradunek azaldu digutenez, galdararen erosketa lehiaketa publikora aterako dute laster. Baina, horren aurretik, IHOBE-ra jo dute hainbat kontsulta egiteko. Horren arrazoia da lehiaketa publikoaren pleguan ingurumen baldintza batzuk ezarri gura dituztela, eta horien gaineko azalpenak IHOBEk emango dizkietela.

Ingurumen baldintzak ezarri eta gero, galdara kontratatzeko prozedura abian jarriko dute. Hain zuzen ere, Udalaren asmoa da aurten galdara ordezkatu eta berria lanean jartzeari.

ONDAREA > BRONTZE-BURDIN AROKO ALTXORRA

Axtrokiko katiluak Madrilen egon izanaren gogoeta mahai gainean jarri dute

Eraña auzoko Axtroki inguruan aurkitu zituzten bi ontziok 1972an, kasualitatez

Ibarraundi museoan erreplikak daude, eta originalak, Madrilgo Espainiako Bankuan

I.B. > ESKORIATZA

Azken asteotan zenbait arkeologiazalaren ahotan egon dira Axtrokiko ontziak, 70eko hamarkadan Eskoriatzan aurkitu zituzten Brontze-Burdin Arokoak. Horren arrazoia da ontziok aspalditik Madrilen, Espainiako Bankuan daudela. Horren harira, arkeologiazale horiek gogora ekarri dute Jaurlearitzak altxorrek eskatzeko eskumena daukela.

ERAÑAN 1972AN AURKITUTAKOAK

Eskoriatzan hain esanguratsuak diren katilu horiek urrezkoak dira, Brontze-Burdin Arokoak, eta 1972an aurkitu zituzten Erañako auzotar batzuek, bidearen inguruan lurra mugitzen zebiltzala. Urrezkoak izateaz gain, garrantzitsuak izango zirela pentsatu zuten auzotar haiek, eta Bolibarko parroko On Kruz Abarrategirengana jo zuten.

Auzotar haiek adituengana jo zuten aholku eske eta Inazio Barandiaran arkeologoaren lantaldea ohartu zen aurkikuntza-



Argazkian, Ibarraundi museoan ikusgai dauden Axtrokiko ontzien erreplikak.

IBARRAUNDI MUSEOA

ren balioaz. Hala, Donostiako San Telmo udal museoako biltegiara eraman zituzten Axtrokiko ontziak. Eskoriatzarrek diotenez, Erañako larre hark Axtrokiko izena dauka.

Gerora, baina ez dago ziur jakiterik noiz, ontzi famatu horiek Madrilgo Espainiako Bankura eraman zituzten, eta han

jarraitzen dute oraindik. Kontua da noiz arte edota Eskoriatzara bueltatuko diren.

IBARRAUNDIN, ERREPLIKAK

Hala, Eskoriatzako Ibarraundi museoan Axtrokiko ontzien erreplikak dituzte erakusgai, baita Madrilgo Arkeologia Museoan ere. Horren aurrean, arkeologia-

zale horiek gaurkotasunera ekarri dituzte orain dela 35 urtetik gora aurkitutako antzinako urrezko ontziok.

Ibarraundi museoaren arduradunek jakinarazi digute ez dutela ontziak herrira ekartzeko eskaerarik egin, nahiz eta aukera hori ez duten baztertu, baina horrek zailtasun handiak dituela.

> PERTSONALA

Peoi-lurperatzaile lanpostua hartzeko deialdia, atzera botata

Udalak jakinarazi du atzera bota dutela irailaren 23an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (182 zenbakia) Eskoriatzako Udalean peoi-lurperatzaile laguntzaile lanpostua betetzeko egin zuten deialdia.

Atzera botatze horren arrazoia da irailaren 23an GAOn argitaratutako deialdia arautzeko oinarrietan akats bat antzeman dutela. Akats hori lanpostuari ezarritako hizkuntza eskakizunaren derrigortasun datan datza. Hori horrela, alkateak deialdia bertan behera uzteko erabakia hartu du.

> ETXEBIZITZAK

Lanak ez daudela geldi dio Promociones Eskoriatza enpresak

Aurreko astean, etxebizitza merkatuaren aldaketaren eraginez udalerrian etxeen gaineko eskaera jaitzi egin dela idatzi genuen. Horren harira, aipatu genuen Santa Marinako etxe tasatuetan hainbat lagunek atzera egin dutela, eta herri sarrerako etxeen lanak geldi daudela.

Azken etxe horiek egiten dabilen Promociones Eskoriatzak, berriz, argitu gura izan du eurak direla etxe horren bultzatzaile bakarrak, eta lanak ez daudela geldi. Azpimarratu dute urbanizazio lanak egiten dabilzala eta azarorako blokeetako bat entregatuko dutela. Are gehiago, jakinarazi dute Udalak oraindik ez duela euren gana jo.

AI SIALDIA > EZKURTZO EGUNA

Udalerriko txokoak eta antzinako jolasak ezagutu

Arizmendik antolatuta, zapatuan 2 eta 10 urte bitartekoendako jaia izango da Bolibarren

I.B. > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, Ezkurtxo Eguna ospatuko dute Bolibar auzoan 16:00etatik 19:00etara bitartean. Arizmendi ikastolako Jose Arana eta Almen guneek antolatuta dute 2 eta 10 urte bitarteko eskoriatzar guztiendako.

Aspaldiko ohitura da Ezkurtxo Eguna antolatzea. Hain zuzen ere, jai hori orain dela 12 bat urte sortu zuten, umeekin arratsalde batez kanpoan jolastu eta modu berean txikienei udalerrira hobeto erakusteko.

ELIZATE GUZTIETAN BARRENA

Lehenengo urtean ekintzak herrigunean egin zituzten. Horren ostean, urtez urte Eskoriatzako elizate guztietara joan ziren, jolasak hara eramanez. Elizate guztiak bisitatu zituztenean, bi urteko etenaldia egin zuten. Baina orain dela bi urte, ekintza berreskuratzea erabaki zuten. Hala, arratsalde-pasa herrigunean egin zuten, eta joan den urtean, berriz, Apotzaga elizatera jo zuten ume, gaztetxo, guraso eta irakasle ugarik.

Aurtengo hitzordua bihar-ko da (zapatua) eta Bolibarrera joko dute. 15:30ean irtengo da autobusa Jose Arana eskola paretik. Ume, gaztetxo eta ume txikien gurasoek erabili ahal izango dute autobusa batez ere. Helburua da ahalik eta auto gutxien igotzea Bolibarrera.

40 BAT BEGIRALE LANEAN

Bolibarrera heldu bezain laster, gerturatutako guztiei elizatea erakutsiko diete. Horren ostean, eliza barruan ipuin kontaketa egingo dute; eta jarraian jolasekin hasiko dira. Arizmendiko arduradunak ahalegin-tzen dira umeekin antzinako jolasak egiten, neurri baten joko horiek berreskuratzeko. Aurten, goitibehera, tiragoma eta bestelakoekin jolastuko dira. Bukatzeko, txokolate-jana egingo dute.

Urtero ume eta gaztetxo ugari batzen dira arratsalde hori kanpoaldean jolasean igarotzeko. Eta, ume eta gaztetxoak behar den moduan zaintzeko, irakasle eta gurasoek osatutako 40 bat begirale izango dira lanean.



Txikiak (argazkian) zein nagusiek perretxikoen gainean asko ikasten dute jardunaldiotan.

LUIS EZEIZAKO GURASOEN ELKARTEA

ZALETASUNAK > PERRETXIKOAK

Perretxikoen gaineko jardunaldiak asteburuan

Zapatuan mendira joango dira perretxikoak batzera, arratsaldean sailkatu egingo dituzte; eta domekan erakusketa eta dastatzea, plazan

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Urteroko ohiturari jarraituta, aurten ere perretxikoen gaineko jardunaldiak antolatu ditu Luis Ezeiza eskolako gurasoen elkarteak. Bihar, zapatua, eta etzi egingo dituzte, eta ekintzak herritar guztiei zabalik egongo dira.

Kaleratu duten egitarauan jartzen ez badu ere, gaur, egubakoitza, hainbat gurasok hitzordua egin dute Luis Ezeiza eskolako patioan, 15:00etan, perretxikoak batzera mendira joateko; gura duena joan ahal izango da.

Bestela, ekintza nagusiak bihar, zapatua, hasiko dira. Hala, deialdia egin dute gura duten eskoriatzar guztiek 09:00etan herriko plazan elkartu eta perretxiko bila joateko. Hala ere, badira euren kontu joaten direnak. Guztien artean batutakoa Luis Ezeiza eskolako jantokira eramango dute eta han Durangoko Errotari mikologia elkarteko kideek sailkapena egingo dute.

AHALEGIN BEREZIA

Guraso elkartekoek jakinarazi dute aurtengoa ez dela perretxikoendako urte ona. Horregatik herritarrei eskatzen diete ahalegin berezia egiteko. "Iaz errekorra egin genuen, 200 bat espezie lortu genituen. Ea aurten zer lortzen dugun!", azaldu digu elkarteko Jose Angel Urrutiak.

Hala, 16:30ean Durangoko Errotari mikologia elkartekoek perretxiko guztiak sailkatu egin-

go dituzte, eta han elkartutako herritarrek dituzten galdera eta zalantzak argitzen saiatuko dira.

PERRETXIKO MOTA GUZTIAK

Antolatzaileek jakinarazi dute perretxiko mota guztiak izango direla ongiatorriak: jangarriak, pozoitsuak... "Helburua da horiek guztiak erakustea, eta Errotari-koen laguntzarekin, horretaz guztiok apur bat ikastea", azaldu zuten Jose Angel Urrutiak.

DOMEKAN, ERAKUSKETA

Jardunaldiekin bukatzeko, etzi, domeka, asteburuan jasotako perretxikoekin erakusketa egingo dute 12:00etatik 14:00etara bitartean herriko plazan.

Erakusketa dagoen bitartean, perretxikoekin dastatzea ere izango da, eta edariak ere banatuko dituzte. Are gehiago, txartelak salduko dituzte eta 14:00etan otarre bat zozkatuko dute plazan bertan. Antolatzaileek esan digute perretxiko asko ez badaude, otarrean bestelako janariak jarriko dituztela.

Horrez gain, onddo handiena hartzen duenari sari berezi bat emango diote.



Umeez izugarri gozaten dute Ezkurtxo Eguna.

ARIZMENDI

ferrerias 14 - 1
943 71 25 78
639 99 36 58
Arrasate
garbiketak@ferlan.es

KRISTALAK ETA FATXADAK GARBITZEKO SISTEMA BERRIA

20 metroko altueraraino iristen gara

PERTSIANAK ERE GARBITZEN DITUGU

Garajeen, atarien, elkarten eta abarren mantentze-lanak eta moketen garbiketak

Antzuola moduko herri txiki baten hainbat behar beteko dituen zentro balioanitza dela azpimarratu zuten udal eta foru ordezkariak

IRATI AGIRREAZALDEGI/
TXOMIN MADINA > ANTZUOLA
Astelehenean egin zuten Torresoroa gizarte etxearen inaugurazio ofiziala. Han izan ziren, bes-

ZERBITZUAK > GIZARTE ETXEA

Torresoroa agintariak bisitatu ostean, abian

teak beste, Markel Olano ahaldun nagusia, Maite Etxaniz Gizarte Politikako diputatua, Maria Jesus Aranburu Kultura eta Euskara diputatua, Pedro Iturbe alka-

tea, udal ordezkariak eta baita herritarrak ere.

Ohorezko aurrekuaren ostean, agintariak hartu zuten hitza. Alkateak adierazi zuen eraikin

horrekin erantzuna eman zaiela antzuolarren beharrei: "Gizarte aldatzen doa eta behar gehiago daude. Torresoroan egongo dira eguneko zentroa, babespeko etxeak...; eta lehengo zerbitzu batzuk hobetuta eskainiko dira: ambulatorioa eta liburutegia, esaterako".

Markel Olanok aipatu zuen gizarte etxea erakunde ezberdinen arteko elkarlanaren fruitu dela. "Antzuolarrek eskertuko dute mota honetako espazio bat euren zerbitzura izatea, herri txiki gutxitan ikusten da-eta horrelakorik", esan zuen.

Maite Etxaniz oso pozik azaldu zen azken emaitzarekin: "Antzuolako azpiegiturek ez dute beste batzuen inbidiarik".

LIBURUTEGIA, URTE AMAIERARAKO

Oraingoz, eguneko zentroa eta erretiratuen egoitza abian dira eta babespeko etxebizitzak ere gertu daude.

Liburutegiko altzariak laster ipiniko dituzte eta udalean aurreikusitako urte bukaerarako zabaltea. Auditorioa, berriz, datorren urtarrilerako amaitu nahi dute.



Markel Olano, Maite Etxaniz eta Pedro Iturbe eguneko zentroko adinekoekin inaugurazio egunean.

TXOMIN MADINA

HEZKUNTZA > EUSKARA

Bi taldek dihardute euskara eskoletan

I.A. > ANTZUOLA
Oinarrizko mailako bi talde osatu dira ikasturte honetan Antzuolan euskara ikasteko.

Batetik, Helduen Hezkuntza Eskoletan euskara eskolak jasotzen dituzte bost lagunek arratsaldean, astean hiru egunetan. Bestalde, iluntzeetan, zortzi eta hamar lagun arteko taldea elkar-tzen da Udalak antolatutako ohiko euskalduntze ikastaroan, haiek ere astean hiru egunez.

Euskara Zerbitzukoek uste dute kopuru polita dela eta herritar gehiago animatu nahi dituzte euskara ikastera.

TABERNARIEN IKASTARORIK EZ

Udalak ahalegina egin du tabernetako eta jatetxeetako langileei 60 orduko euskara ikastaroa eskaintzeko. Asmoa zen gehien erabiltzen diren berbak, zenbakiak... erakustea. Baina jendea ez da animatu eta penatuta daude.



Iluntzeetako euskara eskoletan zortzi-hamar lagunek dihardute.

LIERNI LEGORBURU

> AISIALDIA

Ikus-entzunezkoa izango da, herriko iturrien gainean

Jose Mari Iturbek Antzuolako iturrien gaineko ikus-entzunezkoa gertatu du eta ikusgai izango da martitzenean, hilaren 21ean, 18:30ean, Olaranen. Herriko txokoetan dauden iturrien irudiak erakutsiko ditu, baita azalpenak eman ere. Bide batez, emanaldia baliagarria izango da urriaren 26an Antzuola eza-gutzeko Udalak antolatu duen ibilaldirako gertatzeko. Izan ere, ibilaldian, iturriak, karobiak eta txabolak ikusiko dituzte eta aurrez informazioa jasota joango da jendea.

> KIROLA

Etena egingo dute urtarrilerako arte txapelketan

Pilota txapelketa aurrera doa eta Iongu, Inurriagarro, Endika eta Ota daude sailkapen buruan. Datorren asteko egubakoitzean 18:00etan izango dira partiduak eta zapatuan 10:00etan. Ondoren, etena egingo dute urtarrilaren 9ra arte frontoiko lanengatik. Azken jardunaldiko emaitzak: Untzarri 17-Inurriagarro 22; Palomo 22-Balardi 15; Galardi 13-Iongu 22; Patri 17-Torre 22; Irimo 22-Txarli 14; Ota 22-Pajaro 16; Santxo 10-Endika 22; Zubi 22-Faran 13.

> ERAKUSKETA

Herritarrek egingo eskulanak, ikusgai Olaranen

Astelehenean eskulanak egiteko elkartzen den taldeko emakumeek eta eskulan ikastaroko partaideek euren lanak ikusgai ipiniko dituzte Olaranen aste bukaeran. Urriaren 18an eta 19an izango da erakusketa ikusteko aukera, 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era bitartean. Bestalde, azaroan hasiko da eskulan ikastaroa, egubakoitzetan, eta maiatzera arte jardungo dute ikasleek.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

JENDARTEA > PINTXO LEHIAKETA ETA PERRETXIKO ERAKUSKETA

Domekan jakingo da pintxo onena herriko zein tabernatan egiten duten

Turismo batzordeak I. pintxo lehiaketa, irteera eta perretxiko erakusketa, bertsolari saioak eta baba jana antolatu ditu domekarako

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Lan handia hartu du azken asteotan Turismo Batzordeko buru Edurne Alberdik. Domekako egitaraua prestatzen buru-belarri ibili da, baina pozik dago: "Ostalariek, perretxiko biltzaileek... denek ikusi dute ekimena begi onez eta helburua da Elgeta kanpotarrei ere zabaltzea. Aukera asko eskaintzen ditu gure herriak: gastronomia, mendi ibilbideak, txango laburrak... Domeka egun aproposa izango da inguruotan ibilalditxo bat egiteko, plazan perretxiko erakusketa ederra ikusteko eta tabernetan pintxo goxoak dastatzeko".



Pintxo lehiaketan parte hartuko duten ostalarietako batzuk Turismo zinegotzi Edurne Alberdirekin batera.

L.Z.

I. PINTXO LEHIAKETA

Txapela eta garaikurra eskuratuko ditu domekan pintxorik goxoenan egiten duen tabernariak. Herriko zazpi establezimenduk

hartuko dute parte: Haizea tabernak, Ostatu jatetxeak, Espaloiak, Iñaki jatetxeak, Bolatokiak, Hotelak eta Eguzkitzak. Epaimahai lanak egiten lau herritar ipiniko

dituzte: Intxorta, Ozkarbi, Mendi Mendan eta Gure Borda elkarrekin ordezkarri bana. Epaimahaiakideek 13:30ean emango dute euren erabakiaren berri. Dome-

kan, gainera, pintxoak euro bateko prezioan egongo dira taberna guztietan.

Baba jana egiteko aukera ere egongo da. Hogei eurotan babak, saiheskia, edariak, postrea eta kafea emango dituzte jatetxe guztietan, hotelean kenduta. Hotelean beste menu bat eskainiko dute. Erreserbak www.elgeta.org webgunean egin daitezke.

PERRETXIKO ERAKUSKETA

Domekan perretxikoak batzeko irteera ere egingo dute 09:00etan abiatuta. Bildutako aleekin eta asteen zehar Pello Gorrotxategik, Jose Antonio Irazabalek, Alex Arantzabalek, Alejandro Cristobalek, Carlos Fernandezek eta Benedikta Arotzenak batutakoekin erakusketa jarriko dute herriko plazan. 11:30ean, jatekoak diren perretxikoak, pozoitsuak eta hilkorrak direnekin batera aurkituko ditugu. Hori bai, denak ondo bereiztuak eta sailkatuak.

Bertsoak ere ez dira faltako. Tabernaz taberna Hamaika Bertute taldeko bertsolariak arituko dira.

> KOMUNIKABIDEAK

Hilaren 23an, Oxel Erostarbe alkateak kazetarien eta herritarren galderak erantzungo ditu GOITBn

Goiena Telebistaren *Magazine* berrian izango da Oxel Erostarbe alkatea egunean, hilak 23. Eneko Azkarate kazetariaren galderak erantzungo ditu 19:45ean hasiko den zuzeneko saio baten. Ikusentzuleek ere, ordea, izango dute telefono bidez edo Internet bidez alkateari euren galderak edo kezak azaltzeko aukera. Telefonoz egitekotan, 943-25 05 03 zenbakira deitu behar duzue eta zuzenean egingo diozue galdera alkateari. Internet bidez egitekotan, bidali zuen mezua www.magazine@goiena.com helbidera.

> PILOTA TXAPELKETA

40 urtetik azpikoek aste bukaera honetan emango diote hasiera 4 t'erdiko pilota txapelketari

Aste bukaera honetan beteranoak eta gazteak kantxan ikusiko ditugu herriko pilota txapelketaren barruan. Gaur, 20:30ean hasita, aurrez aurre izango dira J. Monterroso-S. Ramos eta U. Alkorta-J. Arantzabal; P. Larrea-M. Elkoro eta A. Morales-F. Zenitagoia; L.A. Alkorta-Gorka Bolinaga eta A. Arantzabal-A. Telleria; J. C. Errasti-J. Belamendia eta J. Bolinaga-I. Izagirre. Domekan, 12.00etan hasita, D. Peñalver-T. de Vega eta S. Gorrotxategi-A. Osoro; K. Goenaga-R. Basauri eta A. Arantzabal-A. Telleria.

> ERAKUSKETA

Galdeketa aldeko sinadura bilketa egingo dute domeka eguerdian, hilak 19, herriko plazan

Domekan sinadura bilketa egingo dute herriko plazan, 11:30etik 13:30era. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak herri galdeketa debekatu ostean, EAJk, EAK, EBk eta Aralarrek aurkeztutako adierazpena sinatzeko aukera izango dute herritarrek. Bakea eta normalizazio politikoa lortzeko galdeketa beharrezkoa dela jostzen du agiriak. "Sinatzeko gonbita egiten diegu iritzia eskubidea urratu zaiela uste duten herritarrei", esan dute bultzatzaileek.



ZEZILIO TOTORIKAGUENA

Erretiratuak, Landako urtegiaren arratsalde pasa

Euriarekin, baina hilaren 8an arratsalde pasa polita egin zuen 26 laguneko taldeak Landako urtegiaren. Elgetako erretiratuaren elkarrekin antolatutako ekintza izan zen eta ederto ibili zirela esan digute.

Podologoaren hurrengo bisitaren berri ere eman digute. Hilaren 23an etorriko da. Txanda hartzea ezinbestekoa da 943 76 80 77 telefonoan.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

CIE Recyde

CIE RECYDE, S.A.U.

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
www.cieautomotive.com

AENOR
ER-0182/2/95
ISO 9002
GS 9000
ISO/TS 16949

UDALA > HIRIGINTZA

Udal Gobernu arduratuta dago Plan Orokorra atzeratuta doalako

Aurreproiektuari proposamenak egiteko aukera izango dute herritarrek

Udala Stoa enpresak aurreproiektua bidaltzeko zain dago

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Plan Orokorren aurreproiektua martxoaren amaizuta egotea zen udalbatza berriaren asmoa, baina hilabetea amaitzeaz dago eta aurreproiektua bukatzeke dago oraindik. Udal Gobernuko ordezkariak haserre daude eta jakinarazi nahi dute lanean gogor dihardutela plana lehenbailehen amaitzeko.

Kontua da udalbatza berria gobernura iritsi zenean aurreko

korporazioak Stoa enpresarekin garatutako aurreproiektua atzera bota zuela: "Ez geunden ados planak jasotzen zituen gauza askorekin. Hori horrela, sei hilabeteko etena eskatu genion enpresari, gauzak hobeto pentsatu eta gure kriterioak eta helburuak hobeto finkatzeko. Denbora tarre horretan herritarrekin bildu ginen eta euren iritziak jaso genituen", azaldu du Asier Agirre alkateak.

Hori guztia egin ostean Stoa enpresari bidali zioten herritarrengandik jasotako informazio guztia eta beharrezko dokumentazio guztia, Plan Orokorren aurreproiektua gara zezan.


Udala orain Stoa enpresak aurkeztuko dion proiektuaren zain dago. "Aurreproiektuak bukatuta behar luke, baina zain jarraitzen dugu. Hona ez da inolako dokumentaziorik iristen.

Haserre gaude, baina baita arduratuta ere, herritarrek kezkatuta ikusten ditugulako".

DESADOSTASUNAK

Udaleko Hirigintza batzordeko arduradunak kezkatuta daude: "Gauzak nola joan diren ikusita, guretako garrantzitsuak diren oinarriak kontuan hartuko ez dituzten beldur gara. Dena dela, ikusi egin behar da zer aurkezten diguten. Zentzu horretan, gauza bat esan nahi diet herritarrei. Guk gure helburuak eta kriterioak defendatzen jarraituko dugu", azaldu du Asier Agirrek.

Hirigintza batzordekoek azaldu dute Plan Orokorren aurreproiektua jaso bezain laster eta ezer onartu baino lehen herritarren eskura ipiniko dutela. Aramaioarrek euren proposamenak egiteko aukera izango dute.



Eguneko zentroaren plano. Proiektu guztia udaletxeko osoko bilkuren aretoan dago ikusgai.

HARITZ MAILLO

ZERBITZUAK > EGUNEKO ZENTROA

Lurgorri pasealekuan eraikiko dute eguneko zentro berria

Zortzi pertsonarendako lekua egongo da; proiektua osoko bilkuren aretoan dago ikusgai

A.B. > ARAMAIO

Urte askotako eskaria izan da Aramaion eguneko zentro baten beharra. Bada, hilabete gutxi barru, herriko adineko pertsonen Arrasatera joan barik Aramaion bertan egoteko aukera izango dute.

Udalak erabaki du dagoeneko non eraiki eguneko zentroa, Lurgorri pasealekuan, eta

proiektua ere garatu dute dagoeneko. Interesa dutenek osoko bilkuren aretoan ikusi ahaliko dute proiektu guztia.

130 metro koadro inguru izango ditu. Eguneko zentroaren gela nagusiak hainbat funtzio beteko ditu: jantokia egongo da bertan eta baita atsedeen lekua ere. Horretarako, sofa eta eserleku berezi batzuk ipiniko dituz-

te. Ekintzak egiteko ere erabiliko da gela nagusi hori.

Sukaldea, biltegia, garbitegia eta erizaintza gela ere izango ditu zentro berriak. Bestalde, bi komun izango ditu: komun arrunta bat eta geriatrikoa bestea.

Proiektuaren aurrekontua 161.000 euro da eta enpresek 15 eguneko epea daukate proposamenak aurkezteko. Lanak adjudikatu ostean, sei hilabeteren buruan amaitu beharko dituzte lanak.

> ABIADURA HANDIKO TRENA

Debagoieneko AHT Gelditu Elkarlanak argazki rallya antolatu du Aramaion zapaturako

Zabola auzoan Abiadura Handiko Trenaren lanek aurrera jarraitzen dute. AHT Gelditu Elkarlaneko kideek uste dute txikizioa egiten ari direla, eta hori salatzeke argazki rallya antolatu dute zapaturako Aramaion. "Lanak aurrera doaz eta kalte handiak egiten ari dira Zabola inguruan. Bi erreketan ere sekulako sarraskia egiten ari dira. Hori erakutsi nahi dugu eta bailara mailara zabaldu", azaldu du Mila Elortza AHT Gelditu Elkarlaneko kideak.

Ateratako argazkiekin erakusketa antolatzea da asmoa. Ahalik eta jende gehien biltzea nahi dute. Taldeka banatuko dira eta gune desberdinetan argazkiak aterako dituzte. 10:00etan elkartuko dira guztiak, Aramaio plaza. Debagoieneko AHT Gelditu Elkarlanak ibarreko jendea mobilizatu nahi du protesta horretan parte har dezan.

> PROIEKTU BERRIAK

Irisgarritasun Plana eta haurren jolasparkearen proiektua osoko bilkuren aretoan ikusgai

Kultura etxe pareko zelaiaren zati batean haurrendako jolasparke berria egingo dute. 140 metro koadro inguru ditu eta denetariko jostailu eta ziburuak ipiniko dituzte bertan.

Baina parkearena ez da osoko bilkuren aretoan ikusgai dagoen proiektu bakarra. Udalak jaso du dagoeneko Adir enpresak Aramaioarako garatu duen Irisgarritasun Plana, eta proiektu hori ere herritarren eskura ipini du. Planean, Aramaioko oztoko arkitektoniko nagusiak jasotzen dira eta horiek konpontzeko irtenbideak proposatzen dituzte. Hilabete barru Jaurlaritzan aurkeztuko dute, baina herritarren kezka eta iritziak ezagutu nahi dituzte lehenik. "Herritarrek kaleetan eta auzoetan proiektuak jasotzen ez dituen zenbait oztoko ikus ditzakete. Finean, haiek dira euren ingurua hobeto ezagutzen dutenak. Proposamen horiek proiektuan sartzen saiatuko gara", azaldu du Haritz Maillo Udaleko aparejadoreak.

> AZPIEGITURAK

Bentamotzen hasi dituzte dagoeneko lanak, eta Arriolakoak lehiaketara atera dituzte

Datozen hilabeteotan auzoetako azpiegiturak hobetzeko zenbait proiektu eta lan ipiniko ditu martxan Udalak. Zalgona, Errotaberrin, Arriolan, Untzillan eta Bentamotzen egingo dituzte lan handienak. Guztira, azpiegiturak hobetzera 1.200.000 euro inguru bideratuko ditu Udalak.

Bentamotzen hasi dituzte dagoeneko azpiegiturak hobetzeko lanak. Udalak Besaide enpresari adjudikatu dio proiektua 45.152 euroko aurrekontuarekin. Lan garrantzitsua egingo dute Bentamotzen: argia, ura, gasa, saneamendua eta asfaltatzea.

Arriolako azpiegiturak hobetzeko proiektua, bestalde, lehiaketara atera dute. Lan horietarako aurrekontua 457.771 euro da. Argiteria publikoa, saneamendu sarea eta gasaren hoditeria berria ipiniko dituzte. Enpresek 15 eguneko epea daukate lehiaketara aurkezteko.

Euskal Kultura

Ondarearen zerrenda orokorrean sartzeko lehen pausoak ematen hasi dira

XVIII. mendekoa da baserria eta Arabara zihozenendako ostatu izateko eraikia izan zela uste dute

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Olaun aldean dagoen Sanjuanzar baserria Euskal Kultura Ondarearen zerrenda orokorrean sartzeko lehen pausoak ematen hasi da Jaurlaritza. Monumentu izendapenaz sartu gura dute zerrenda horretan, kultura interesa duela arrazoituta. Izendapenaren prozesua dagoeneko hasi dute, eta orain jendaurrean jarri dute alegazioak egin eta egokitzen jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko.

OSTATU IZATEKO ERAIKIA

Arlaban errepidean gora -Dorletako Ama Birjinaren irudi paretik- joanda dagoen lehen baserria da Sanjuanzar. Deba ibaiaren sorrerako arroan dago, Hiruerreketara bidean. XVIII. mendekoa da. Gatzagako Udalak jasotako informazio batzuen arabera, San Juan ebanjelariaren izenean eraikitako baseliza egon zitekeen bertan sasoi baten. Jaurlaritzak jasotako informazioen arabera, ostera, Arabara bidean ostatu izateko eraikia izan zen. Oraindik, gainera, jatorrizko itxura dauka etxeak.

Eraikinarekin batera inguruko lurra ere sartuko dituzte zerrendan: baserriko fatxada nagusitik 50 metrora eta atzeko partetik 35 metrora dagoen gutzia, zirkulu itxurako larraina osatzen duten harlangaitzezko hormatxoak barruan direla. Inguru hori guztiori sartzearren arrazoiak da bertako ingurumena eta parajeak babestea. Jaurlaritzak dio katalogatutako ondarsuna behar bezala babesteko beharrezkoa dela inguru hura mugatzea. Hala, baserriaren izaera, inguruko lursailak eta sarbidea babestuko dituzte.

BASERRIAREN EZAUGARRIAK

Hiru isurkiko teilatua duen eraikina da Sanjuanzar, eta familia bakarrekoa. Oinplanoa laukizuzena da: 19,50 metro zabal eta 16 metro sakon. Hego-mendebaleko aldean zati bat du erantsita, eta egurra gordetzeko erabiltzen dute. Harriz egindako hormatxoak ditu baserriko aurreko parteko lursailan, eta zirkulu formako larraina eta ortua mugatzen dituzte hormatxo horiek. Etxearen hormak, ostera, berdinduta daude eta zuriz margotuta.

Hego-ekialdera begira dagoen fatxada da baserriko fatxada nagusia. Beheko solairuan arku bat dauka, hareharriz eginda-

KULTURA > ONDAREA

Kultura ondare izendatu gura dute Sanjuanzar baserria



Arlabango errepidean gora Deba ibaia jaiotzen den Hiruerreketara bidean dagoen Sanjuanzar baserria.

MIRARI ALTUBE

koa, eta arkuaren alde banatan bi leiho ditu, harlanduz eraikiak. Arkupetik dago antolatuta solairua bi aterean bidez. Ezkerreko atetik ukuilura sartzen da, eta orri zabaleko ate handia da. Eskuinekoa zurezko ate sendoa da, eta etxeko ezkaratzera sartzen da. Ezkaratzetik sukaldera sartzen da, eta eraikinaren hego-ekialdean dago kokatuta hori. Eskailerak ere badaude ezkaratzean eta bertatik lehen solairu-

ra -gelak- eta teilatupera igo daiteke -ganbara. Ipar-ekialdeko fatxadan beste sarrera bat dauka etxeak.

BEHIAK, TXERRIAK ETA OILOAK

Ibartzabal ahizpak bizi dira Sanjuanzarren, Marilu eta Pantxi. Adinean aurrera joan arren, oraindik lurra lantzen eta abereak zaintzen jarraitzen dute. Hortaz, sasoi bateko baserriaren bizimodua egiten dute, base-

rrari askotan galdu dena. Behiak eta txahalak dituzte, txerriak, ahuntzak, oiloak eta untxiak ere bai; eta, zelan ez, txakurrak eta katuak. Eta ardiak kendu zituztela ez dira urte asko pasatu. Gainera, ortua dute etxerako barazkiak jasotzeko. Onartzen dute lan handia dela guztiak behar bezala gobernatzea eta ez dutela lehengo sasoirik, baina abererik gabeko baserria oso hotza iruditzen zaie, eta osasu-

nak laguntzen dien bitartean eta ahal duten heinean, behintzat, abereak izaten jarraituko dute.

HERRIKO MONUMENTUAK

Gatzaga herria bera monumentu historikoa da, eta, jauregiak eta etxe dotoreak daudenez, hainbat eraikin ditu izendatuta Jaurlaritzak kultura intereseko monumentu: Errosario kalean bost daude, Pilar kalean bi eta Santiago kalean beste bi.

Pantxi Ibartzabal > Sanjuanzar baserriko ugazaba

"Ganbarako amaraunei ere atera zieten argazkiak"

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Eskutitz bidez jakin dute berria Sanjuanzar baserriko ahizpek, baina ez diote aparteko garrantzirik eman. Izendapenean kultura ondarearen ikerlari Josu Tellabidek zerikusiren bat izan dezakeela uste dute.

Zer iruditu zaizue berria?

Egia esateko, behar bezala ez dakigu ezer. Eskutitza jaso genuen, egia da, baina asti barik gabiltza azken egunotan eta gainbegiratu besterik ez diogu egin.

Baina izendapena ona izango dela uste duzue?

Ez dakit ba... Batzuek diote baietz, eta beste batzuek esan digute mugak jarriko dizkigutela; etxea konpondu

gura izanez gero, adibidez. Hala ere, uste dut barruko konponketak egiteko arazorik ez dugula izango.

Badakizue zelan izan den prozesua?

Seguru ez, baina azken lau urteotan Josu Tellabidaren bisita izan dugu hiru edo lau bider, azkena aurtengo udaberrian. Suhiarekin batera etorri zen orduan eta argazkiak atera eta atera ibili zen, ganbarako amaraunei ere atera zielakoan nago.

Sekula konpondu duzue baserria?

Leiho batzuk berritu eta teilatua konpondu bai, baina obra handirik ez dugu sekula egin, eta horregatik izendatu gaituztela uste dut.



M.A.



Quintero Hondarribia-Irun taldeko kapitaina, Arturo Aguado Euskal Federazioko presidentearen eskutik saria jasotzen.

i.s.



Biurrarena taldeko Delgado kapitaina txapeldunordeen saria jasotzen. IMANOL SORIANO



Lovelace partiduko jokalaria onena izan zen.

IMANOL SORIANO

SASKIBALOIA > EUSKAL KOPAKO FINALA ESKORIATZAN

Erreboteek eta hirukoek eman zioten garaipena Hondarribia-Irun taldeari

HONDARRIBIA-IRUN

101-58

BIURRARENA-UPV

Hondarribia-Irun > Quintero (5), Suarez (2), Santos (8), Dapo (10), Gortman (14), Rad (9), Todorova (13), Echeberria (2), Lovelace (33), Bravo eta Checa (5).

Biurrarena-UPV > Delgado (10), Gabilondo (3), Melina, Olabarria (7), Mallabiabarrena (9), Navarro (21), Nash (4) eta Balerdi (2).

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 24-20. Bigarren laurdena: 44-31. Hirugarren laurdena: 70-46. Laugarren laurdena: 101-58.

Bestelakoak > Intxaurtxueta kiroldegiko harmailak bete egin ziren.

Lehen zatia parekatua izan bazen ere, hirugarren zatian apurtu zuen partidua Hondarribiak

Lovelace amerikarra izan zen partiduko jokalaria onena; nagusi errebotean, 33 puntu sartu zituen

JASONE ZABALA > ESKORIATZA

Final polita jokatu zuten eguzten arratsaldean Hondarribia-Irun eta Biurrarena-UPV taldeek Eskoriatzako Intxaurtxueta kiroldegian. Eta azken emaitzak (101-58) argi erakusten du hondarribiarrek maila bat gorago dagoen zergatia.

LEHEN BI LAURDENAK PAREKATUAK

Lehen minutuetan bi taldeak joko eta intentsitate aldetik paretsu irten ziren kantzara, bai Mugu-

ruzaren neskak (Biurrarena) eta baita Joan Albert Cuadrat-enak (Hondarribia) ere. Hala eta guztiz ere, Hondarribiko Gortman jokariak lehen minutuetatik erakutsi zuen nagusitasuna taula azpian eta eraso eta defentsako errebotetan jaun eta jabe izan zen. Baina hasierako minutuetan Arantzazu Muguruzaren neskek ederki eutsi zioten Hondarribiarren intentsitateari, eta markagailuan ez zen alde handirik egon atsedenaldian (44-31). Lehen zatiaren amaieran,

baina, Biurrarena taldean jokatzen duen Itziar Mallabiabarrena arrasatearrak—hasierako bostekoan atera zen— kolpe bat izan zuen aurrepegiaren eta minutu batzuetan jokatu gabe egon zen. Haren lana txukuna izan zen— 9 puntu.

HIRUGARREN LAURDENAK ERABAKI

Hirugarren laurdenean partidua apurtu zuten hondarribiarrek, eta Muguruzak zera adierazi zuen: "Fisikoki behera egin dugu hirugarren laurdenean; aste guztian zehar gogor aritu gara entrenatzen ligako partidurako eta hori jokalariek asko nabaritu dute".

Momentu hartan, eta erreazioaren bila, Biurrarena taldea kantxa guztiko presioa egiten hasi zen, baina hondarribiarrek ederki apurtu zuten presio hori; eta markagailuko diferentziak

gora egin zuen nabarmen (70-46). Azken hamar minutuetan Cuadrat-en neskek behin eta berriz kontraerasoko jokoa egin zuten; hiruko marratik ere esku fina dutela erakutsi zuten. 12 hiruko sartu zituzten guztira—zazpi azken laurdenean—; Biurrarenakoek, berriz, bi. Azkenean 43 puntuko diferentzia hondarribiarren alde (101-58). Partiduko saskirantzaille nagusia eta jokalaria onenaren saria eraman zuena Hondarribia taldeko Lovelace amerikarra izan zen (33 puntu). Txapeldunordeen saria Biurrarenako kapitain Delgadok jaso zuen eta txapeldunarena, berriz, Hondarribia-Irun taldeko Quintero kapitainak. Aurten goa Eskoriatzian jokatu den hirugarren Euskal Kopa izan da eta hirurak Hondarribiak irabazi ditu.



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

SVMS
SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO



Itziar Mallabiabarrenak partidu txukuna jokatu zuen.

IMANOL SORIANO



Zaleek ikuskizun polita ikusi zuten finalean.

IMANOL SORIANO

NOLA IKUSI DUZU FINALA?



Joan Albert Cuadrat
Hondarribiko entrenatzailea

"Errespetuz jokatu dugun finala izan da"

Pozik nago egindako partiduekin, serio jokatu dugu, beste taldearenganako eta koparenganako errespetuz; hori zen gure lehen helburua. Azkenean, mailen arteko diferentzia nabaritu da.



Arantzazu Muguruza
Biurarenako entrenatzailea

"Azkenean nabaritu da maila diferentzia"

Prest gentozen; bagenekien bi taldeen arteko diferentzia handia dela. Ilusio handia geneukan partidu honetan; lehen zatia parekatua izan bada ere, azkenean nabaritu egin dugu diferentzia.



Manuel Muñoz
Eskoriatza KEko presidentea

"Partidua lehiatua izan da hasieran"

Lehen zatian oso lehiatua ikusi dut partidua, baina mailen arteko diferentzia asko nabaritu da. Aurtengoa Eskoriatzan jokatu den hirugarren Euskal Kopa izan da eta laugarrena ekartzen saiatuko naiz.



Itziar Mallabiabarrena
Biurarenako jokalaria

"Hiruko jaurtiketekin ondo asmatu dute"

Ondo hasi garen arren, atsedena diaren ondoren hiruko jaurtiketetan hasi dira asmatzen eta hortxe joan dira. Azkenera arte borrokatu gara eta pozik gaude finalean egindako lanarekin.

> IKASTAROAK

Batuka gazte eta body balance ikastaroen ordutegia zabalagoa

Batuka gazte eta body balance udan eta irailean izandako arrakasta ikusita, Oñatiko Udaleko Kirol Zerbitzuak kiroldegiko eskaintza handitzea erabaki du. Hemendik aurrera body balance ikastaroak eguaztenetan ere egongo dira, 10:15ean. Batuka, berriz, eguazten eta egubakoitzetan izango da, 17:30ean. Informazio gehiago eskuratu edo ikastaroetan izena eman nahi duenak Zubikoara jo dezala edo 943 71 63 75 telefonora deitu.

> ERRUGBIA

Seniorrek etxean eta neskek Getxon jokatu dute

Asteburuan badaude hitzorduek errugbiari dagokionez. Horrela, senior mailako mutilak Arratiko Txekorrak taldearen aurka jokatu dute Mojategin bihar, 16:30ean; neskek Getxoren zelaian jokatu dute bihar, 12:00etan; eta domekan, errugbi eskolako kontzentrazioa egongo da, Irun, Hernani, Ordizia, Atl. San Sebastian, Bera-bera, Eibar eta Arrasateko taldeekin.

> ATLETISMOA

Soraluze-Bergara kroserako izenematea zabalik dago

Azaroaren 1ean egingo dute Soraluze-Bergara krosa, Olatz Rementeria memoria. Izena emateko epea zabalik egongo da azaroaren 1era arte. 10 euro balio du izenematea eta Bergarako Lazkano oinetako dendan eta Mapfire aseguru etxean egin daiteke; Oñatin, Zero Km-a dendan.

Egunean bertan izena eman nahi duenak ere aukera izango du. Ordaindu beharrekoa 15 euro izango da.

> ZIKLO-KROSA

Urtarrilaren 10era atzeratu dute Osintxuko proba

Azaroaren 9an egitekoa zen Osintxuko ziklo-kros proba urtarrilaren 10era arte atzeratu dute antolatzaileek.

Arrazoia da Behobia-Donostia maratoiaren egun berean dela, eta antolatzaileek adierazi dute egun horretan Osintxuko antolatzeke zailtasunak izan dituztela. Adierazi dute parte-hartzaile gutxiago egongo lirakeela egun horretan eta nahiago dutela urtarrilera arte atzeratu.



BERGARA
San Lorentzo

ERREZTASUN ORDAINKETAK

APARTAMENTUAK 1 eta 2 logelakoak, garaje eta trastelekuak

Eraikitzailea



Sustatzailea



Argibide eta salmenta

943 42 44 30

www.ormak.es

Apartamentuak

152.000€-tik aurrera

25.300.000 pta



Aretxabaletako aurrelari Arriaga, Ondarroako Aurrera taldearen kontrako partiduan.

GOIENKARIA

FUTBOLA > PREFERENTEA

Preferenteko guztiek etxean, eta erregionalean, derbia

Berio hartuko du Aloña Mendik, Pasaia Mondrak eta Ondarroaren bisita izango du Aretxabaletak; erregionalean, Mondra eta Bergara aurrez aurre

XABIER URTZELAI > BERGARA

Asteburuan futbola gura duenak izango du non aukeratu. Haste-ko, preferenteko hiru taldeek etxean jokatu dute. Aretxabaletak Ibarra futbol zelaietan izan duen hasiera txarra zuzendu gura du; izan ere, etxetik kanpora batu dituzte etxean galdutako puntuak. Hala, Gordobilen mutilek sailkapenaren erdi-erdian dagoen Ondarroako Aurrera izango

dute domekan bisitari (16:30). Mondrak ere badu etxean zer zuzendu. Azkargortaren taldeak orain artekoak baino emaitza hobekak lortzeko gaitasuna du, hor ez dago dudarik, baina partidu bakarra irabazi dute, eta hori da sailkapenaren atzealdetik gertu ikustearren arrazoia. Bihar, berriz, joan den astean etxean galdu egin zuen Pasaiaren bisita izango dute Mojategin.

Aloña Mendik, berriz, gola egiteko erraztasun handia erakutsi du orain arte (11), eta joan den astean Anaitasunaren etxean barkatu izana (4-4) Beriori ordainarazi gurako diote etzi, (16:30).

ERREGIONALEAN, DERBIA

Mondrak eta Bergarak, berriz, derbia jokatu dute asteburuan Agorrosinen (zapatua, 16:45). Mondra sailkapenaren erdian dago, eta joan den astean Tolosa mendean hartuta (0-2) Bergara dagoeneko bigarren da sailkapenean. Diazen mutilek ez dute porroterako tarterik; Agorrosinen ez, behintzat.

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPEKETA

Ford Mugarri Arrasatek kategoriaz jaitsi berri den Hondarribiaren bisita izango du

X.U. > BERGARA

Liga hasiera gogorra izan du Ford Mugarri Arrasatek. Egia eta Barakaldo kontrario gogorrak

baziren, bihar Iturripen izango den Hondarribia goiko kategoriatik jaitsi berri den taldea da: "Horrelakoekin kontuz ibili

behar da, goitik datozenek lan egiteko beste dinamika bat izaten dutelako. Egia da orain arte ez dutela aldeko emaitzarik izan, baina zeinen kontra jokatu duten izan behar da kontuan", adierazi du taldeko entrenatzaile Edu Orgazek.

ALOÑAKO NESKAK

Verkol Aloña Mendiko gazte mailako neskek ere Euskadiko Txapelketan dabilta buru-belarri. Horiek Kukullagaren kontra jokatu dute bihar Zubikoako kantuan (17:45).

Aurtengo ligan talde horrek norgehiagoka bakarra jokatu du, joan den astean Usurbilen kontra. Emaitza ez zuten aldeko izan (24-19), eta etxean saiatuko dira bihar denboraldiko lehenengo puntuak batzen.



aste bukaerako hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila

Girona-Reala
Zapatua. 18:30. Montilivi
Eibar-Cordoba
Domeka. 18:00. Ipurua

Preferente maila

Aloña Mendi-Berio
Domeka. 16:30. Azkoagain
Mondra-Pasajes
Domeka. 17:00. Mojategi
Aretxabaleta-Aurrera
Domeka. 16:30. Ibarra

Lehen erregionala

Bergara-Mondra
Zapatua. 16:45. Agorrosin
Antzuola-Eibartarrak
Zapatua. 16:00. Estala

Anaitasuna-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Txerloia
Urola-BTLS
Zapatua. 16:30. Argixao

Bigarren erregionala

Gazteak-Bergara
Zapatua. 15:30. Unbe

Ohorezko mailako
gazteak, Euskadiko liga
San Martzial-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Gal
Lengokoak-Bergara
Zapatua. 16:00. Donostia

Ohorezko mailako gazteak
Eibar-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Unbe

Lehen mailako gazteak
Aretxab. Arizmen-Mondra.
Zapatua. 17:30. Ibarra.

Bergara-Eibartarrak
Zapatua. 15:30. Ipintza

Ohorezko mailako
kadeteak
Aloña Mendi-Beasain
Domeka. 12:30. Azkoagain

Elgoibar-Arrasate
Domeka. 12:00. Mintxeta

Aretxa-Arizmen-Zumaiako
Zapatua. 15:30. Ibarra

Bergara-Eibar
Domeka. 12:00. Ipintza

Lehen mailako kadeteak
Bergara-Aretxabaleta B
Domeka. 10:00. Ipintza

Soraluze-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Eozia

Arizmendi: atsedena

Ohorezko mailako

infantilak
Zumaiako-Bergara
Zapatua. 11:00. Aita Mari

Beasain-Aretxab-Arizmendi
Zapatua. 10:45. Igartza

Lehen mailako infantilak

Eibartarrak-Aloña Mendi
Domeka. 17:00. Unbe

Infantil txiki

Lagun Onak-Arrasate
Domeka. 12:00. Ipintza

Aretxa-Arizmend-Elgoibar
Domeka. 11:00. Ibarra

Bergara-Eibar
Zapatua. 11:30. Ipintza

Emakumezkoen liga
Arizmendi B-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Almen

Mondra-Eibartarrak
Zapatua. 17:00. Mojategi

Arizmendi:atsedena

Emakumezkoen F8 Kadet.

Beti Ona-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Iraeta

Emakumezkoen F11

Kadeteak
Mondra-Bergara
Zapatua. 10:00. Mojategi

Anaitasuna-Arizmendi
Zapatua. 16:00. Txerloia

Alebin mailako mutiak
Amaiak Bat-Bergara
Domeka. 10:00. Azkoagain

Eibar-Arrasate
Domeka. 10:00. Azkoagain

Aloña Mendi-Aretxabaleta
Domeka. 11:15. Azkoagain

ARETO FUTBOLA

Bigarren maila
Eraso-Aloña Mendi
Gaur. 21:30. Donibane

Gazteak
Aloña Mendi-Goierri
Zapatua. 12:00. Zubikoa

SASKIBALOIA

Lehenengo maila
MU-Viajes Marfil
Domeka. 18:00. Iturripe

Gipuzkoako seniorrak
MU-Kevian Sport
Zapatua. 16:00. Musakola

Cafes Aitona-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Donostia

Gipuzkoako ligako senior
maila, emakumezkoak
Eskoriatza-Internacional
Zapatua. 18:00. Intxaurtx.

Gazte maila, gizezkoak
Cafes Aitona A-MU
Zapatua. 18:00. Donostia

Aloña Mendi-Oiartzungo
Zapatua. 11:45. Zubikoa

Gazte maila, emakumeak

Eskoriatza: atsedena

Bergara-Easo Loloia
Zapatua. 18:00. Mariaren L.

Kadete maila, gizonak

Atco. SS- MU Besaide
Zapatua. 10:45. Donostia

Internacional-MU Udalatz
Zapatua. 16:00. Donostia

ERRUGBIA

Senior mailako mutiak

Arrasate-Arratiko Txekorrak
Zapatua. 16:30. Mojategi

Senior mailako neskek

Getxo-Arrasate
Zapatua. 12:00. Fadura

Infantil mailako mutiak

Errugbi eskolen
kontzentrazioa
Domeka. 10:00. Mojategi

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketa

Ford Mugarri-Bergara
Zapatua. 16:00. Iturripe

Bigarren territoriala

Arrasate-Rotula Estudio
Domeka. 10:00. Iturripe

Aloña Mendi-Iñautsi
Domeka. 12:00. Zubikoa

Gipuzkoako gazteak, giz.
Aloña Mendi-Ereintza
Zapatua. 16:30. Zubikoa

Arrasate-Leizaran
Zapatua. 17:45. Iturripe

Gipuzkoako kadeteak, giz.
Ereintza-Berezo Aloña
Zapatua. 15:45. Errenteria

Bergara-Irungo Gazteak
Domeka. 10:30. Labegarieta

Bergara Txiki-Tolosa
Zapatua. 12:30. Labegara.

Gipuzkoako gazte neskek
Chapime Arrasate-Aiala
Domeka. 11:45. Iturripe

Gipuzkoako kadete neskek
Jauka-Bergara
Zapatua. 11:30. Mutriku

Euskadiko txapelketako
gazte mailako neskek
Verkol Aloña-Kukullaga
Zapatua. 17:45. Zubikoa

Euskadiko txapelketako
kadete mailako neskek
Verkol Aloña-Kukullaga
Zapatua. 16:00. Zubikoa



'Eskoriatzako MTB martxa' domekan, 09:30ean

Izena emateko lehenago joatea komeni da. Bi ibilbide egingo dituzte: luzeak 38 kilometro izango ditu, eta motzak, 27 kilometro.




> **JAIKAK**
Oñatiko Udala pozik dago San Migelek izan duten harrerarekin > 44



> **DANBAKA**
Lehiaketako lehenengo emanaldia, gaur, egubakoitza > 45

> **ARITZ ALUSTIZA**
Bergararra da, 24 urte ditu eta musika du gustuko; horren barruan, soinu txikia jotzen du Emon taldean. Ikaslea eta bidaien eta igeriketaren zalea da > 50



The Commitments: soula eta bluesa Espaloian

Talde dublindarrak kontzertu bakarra emango du Euskal Herrian: Elgetako Espaloian, bihar, zapatua, 22:30ean



Bederatzi musikarik osatzen dute egungo The Commitments. Soula eta bluesa uztartzen dute, eta bi orduan entzulea hunkitzeko gai dira, artista ezagunen kantuak jota.

GAZTELUPEKO HOTSAK

JOKIN BEREZIARTUA > ELGETA

Eskaintza berezi batekin dator kigu Elgetako Espaloia Kafe Antzokia. Izan ere, asteburuko ikusten ez den kontzertua izango da bihar, 22:30ean. Hain justu, The Commitments talde irlandarra dator, eta Euskal Herrian emango duten kontzertu bakarra izango da biharkoa.

ZINEMA TRANPOLIN

Talde dublindarra Alan Parker zinemagilearen *The Commitments* (1991) filmarekin lortutako arrakastaren ostean egin zen ospetsu. Zinemak mundu osoan

birak egiteko atekak zabaltzen zizkien eta, aldaketak aldaketa, taldearen esentziak bere horretan jarraitzen du. Euren zuzenekoak filmean islatzen den espiritua-ren lekuko garbiak dira. Aldarrikapena, jostaketa eta adiskidetasuna ardatz hartuta, The Commitments taldearen kontzertuak jai apartak dira, zuzeneko dantzagarri eta hunkigarriak.

Bestalde, taldearen erreperitorioa Amerikako musika beltzaren alfabetoa da. Soulak eta bluesak eman dituen artista onenen kantuak jotzen dituzte, Amerikako hegoaldeko -Mem-

phis, Alabama...- eta Detroiteko soularen 1960ko hamarkada amaierako eta 1970eko hamarkada hasierako harribitxietan oinarritzen diren abestiak.

Bi orduko emanaldia izango da, eta, beraz, hainbat kantu joko dituzte. Batzuk aipatzearen, gizonaen artean, Wilson Pickett-en *In the Midnight Hour* eta *Take Me To The River* eta Otis Redding handiaren *Try A Little Tenderness* eta *Hard to Handle*. Eta nola ahaztu orduko emakumeen ahotsak; besteak beste, Aretha Franklinen *Chain Of Fools* eta Tina Turne-

rrek ezagutarazi zuen Ann Peeblesen *I Can't Stand The Rain* kantuak entzun ahalko dira.

SARRERAK, MARTXA ONEAN

Gaztelupeko Hotsak-ek lotu du talde dublindarraren kontzertua. "Proposamen zabal eta interesgarria" delako ekarri dute, eta Errabal egitarauaren barruan antolatutako ekitaldia da.

Sarrerak Espaloian eros daitezke, 15 eurotan aurretik eta 18 eurotan egunean bertan. Aretoa betetzea espero dute, eta, beraz, adi ibili beharko du sarrerak eskuratu nahi dituenak.



Errosaixo Bixamona egunean parte hartze handia izan zen; denetarikoz mozorroak ikusteko aukera izan zen.

GOIENKARIA

ÕNATIKO JAIK > UDALAREN BALORAZIO POSITIBOA

Eguraldia lagun, jaietako ekitaldi gehienak jendetsuak izan dira

Aukeran eta Deabru Beltzak taldeen emanaldiak, errekoradoreen ikuskizuna eta pilota partidu profesionalak izan dira ekitaldi arrakastatsuenak

JOKIN BEREZIARTUA > ÕNATI

Amaitu dira Oñatiko San Migel jaiak. Urtero bezala, egitarau zabalak ez du aspertzeko unerik utzi eta eguraldia, oro har, alde izan dute oñatiarrek.

Jaiak amaitu ostean balorazioa egitea egokitzen da, hurrengo urtera begira jaiak hobekien izan daitezkeen. Udala oso pozik agertu da aurtengo jaietan izan den parte hartzearekin. Jaiak iraun duten sei egunetan zehar eguraldi ona izan da nagusi, eta antolatutako diren ekitaldi gehienetara jende asko hurbildu da. Gainera, Udalak ekitaldietan jendearen parte hartzea handia izan dela jakinarazi du. Beraz, oñatiarrek, aurtengo jaietan parranda egin eta ondo pasatzeaz gain, jaiak aurrera eramateko *busti* egin direla esan genezake.

DANTZA ETA ANTZERKIA

Udalak adierazi duenez, Aukeran dantza taldearen eta Deabru Beltzak antzerki taldearen emanaldiak jende asko erakarri zuen. Udalak adierazi duenez, gerturatutakoak txundituta gertatu ziren errekoradoreen abileziekin. Pilota partidu profesionalak ere "azken urteetako jende-

tsuenak" izan zirela esan du Udalak. Izandako arrakasta ikusita, gainera, datozen urteetan ere pilota partiduak Errosaixo-domekan jartzea erabaki dute.

HERRI EGUNA, JENDETSUA

Udalak Herri Egunaren balorazioa egiteko orduan, ekitaldi guztien artean bi ekitaldi nabarmendu ditu: Aimar Irigoien eta Izeta II.a harri-jasotzaileek eskainitako ikuskizuna eta Benta Zaharreko Mutiko Alaiek kaleak girotzeko egindako lana. Azken ekitaldi hori ere errepikatzeke asmoa agertu du Udalak.

Errosaixo Bixamona egunean ere, bestalde, oñatiarrek ezin

hobeto erantzun zuten eta giro aparta izan zen kaleetan. Denetarikoz mozorroak ikusteko aukera izan zen.

ERAGOZPENAK ERE BAI

Aurten, baina, azken uneko arazoak direla medio egitaraua moldatu egin behar izan dute. Irailaren 29ko Fadunito konpainia kataluniarrak, garraio arazoak tarteko, emanaldia bertan behera utzi zuen azken unean. Euren ordez, Patxin eta Potxin kontratatu zuten; Udalak dioenez, "presaka eta korrika". Garraio arazoek ere Italiako Tarantella orkestraren urriaren 5eko arratsaldeko emanaldia bertan behera uztera behartu zuten, Oñatira lau orduko atzerapenez heldu baitziren. Hala ere, gaueko kontzertua arazo barik eman zuten.

BARRAKEN AUZIA

Barraken prezioa jaisteko egin zen sinadura bilketaren aurrean, gauzak argitu nahi izan ditu Udalak. Apirilaren 17ko Gobernu Batzordean hitzartu zen euro eta erdiko prezioa barraketako arduradunekin izandako negoziazioen emaitza izan zen. Herri bakoitzeko jaiak ezberdinak direla zehaztu du Udalak, eta, beraz, ezinezkoa dela toki guztietan baldintza beretan lan egitea. Hori bai, Udalak argi utzi gura du datorren urtean ahalik eta prezio txikiena lortzen saiatuko direla.

DATUA

1,5
EURO

Aurtengo barraketan bidaia bat egiteak, ohiko egunetan, euro eta erdi balio izan du; eta prezio murriztuen egunean, euro bat. Hurrengo urtean Udala ahalik eta prezio txikiena lortzen saiatuko da.

ANTZERKIA > 'ARRAINEN BAZKA' ÕNATIN

Lan jazarpenaren irudikapen bikaina ikusgai Santa Anan

Ttanttaka antzerki taldearen 25. urteurrenaren barruan aurkezten den obra da 'Arrainen bazka'; sona handiko aktoreek antzezten dute

JOKIN BEREZIARTUA > ÕNATI

Lan jazarpena jaso duen biktimak bere buruari egindako hainbat galdera planteatuko ditu domeka honetan Oñatiko Santa Ana antzokian ikusgai izango den obrak.

Arrainen bazka antzezlan Donostiako Ttanttaka antzerki taldeak dakarren proposamena da. Antzerki talde veteranoak 25 urte bete ditu aurten, eta urtemuga ospatzeko antzezlan ezberdinak estreinatuko dituzte.

Antzezlan etzi izango da, 19:30ean. Sarrerak kultura etxean daude salgai hamar eurotan: goizez, 10:00etatik 13:00etara, idazkaritzan; eta arratsaldean, 16:30etik 20:30era, harreran.

LAN KRITIKOA

Lan munduko errepresioari buruzko drama horretan, besteak beste, duintasunaren prezioaren kontzeptua da eztabaidagaietako bat. Hau da, lanpostuari eutsi ahal izateko norbera zer jasateko gertu dagoen planteatzen du. Lan munduaz haratago, gizartearen erretratu kritikoa egiten du, eta gure gizartea baliorik gabea, protestarik egin gabe eroso bizi izatera ohitua dena eta besteez arduratzea zentzugabekertzat hartzen duena dela dio *Arrainen bazka* lanak.

Euskarazko emanaldian hauek dira aktoreak: Sara Cozar, Aitziber Garmendia, Jose Kruz Gurrutxaga, Asier Hernandez eta Mikel Losada.



Sara Cozar eta Mikel Losada aktoreak, *Arrainen bazka* obran.

TTANTTAKA

ZINEMA > GORGONTZOLAKO FILM LABURREN VI. JAIALDIA

Bihar emango dute Aratz elkartearen 'Amapolia' lana

J.B. > ARETXABALETAKO

Aratz elkarteak (Aretxabaletako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko taldea) bigarrenegoz hartuko du parte Gorgontzoko film laburren jaialdian. Aurtengo ediziora *Amapolia* izeneko filmarekin aurkeztuko dira. Lan horrek Atzegik antolatzen duen Donostiako jaialdian lehen saria eskuratu zuen, eta ziur Italiatik ez direla esku hutsik bueltatuko.

HERRIKO KALEETAN GRABATUA

Amapolia-ren grabazio lanak otsailean amaitu ziren. Aretxabaletako kaleetan grabatu zen eta munduko edozein herritxoko moduan aurkezten da. Alkate diktadore baten kontrako matxinada kontatzen da lanean.

Aratzekoak eguaztenean joan ziren Gorgonzolarantz. Euren filma bihar arratsaldean emango dute eta domeka gaueko Aretxabaletan izango dira.

MUSIKA > DANBAKA

Bakarlari bat, heavy-thrasha, garage-rocka eta thrash-death doinuak aukeran

Arrasateko bi talde eta Mallabiko bat eta Abadiñoako bat arituko dira Danbakako hirugarren edizioako lehen kontzertuan

IKER BARANDIARAN > ELGETA

Azkenean heldu da askok espero zuten eguna: Danbaka musika lehiaketako hirugarren edizioaren kontzertuen hasiera.

Aurten lehiaketak dituen berrikuntzen artean nabarmendu behar da Debagoieneko taldeez gain, Durangaldeko eta Debarreneko taldeek ere esku hartzeko aukera izan dutela. Ez hori bakarrik, zuzenean arituko diren taldeak 20 beharrean 24 izango dira. Hortaz, sei kontzertu egun izango dira, horri urtarrileko finala batuta.

MUSIKA ESTILO DESBERDINAK

Danbakak dauzkan berezitasunei eutsita, edizio honetan ere kontzertu bakoitzean ahalik eta musika estilo gehien batzen saiatu dira antolatzaileak. Horren helburua da musika estilo zehatz bat entzuten duten zaleek bestelakoak ere entzuteko aukera izatea.

Hona hemen gaurko (egubakoitza) proposamena: ingelesez abesteko gaitasun handia daukan Mery May Arrasateko bakarlaria, Damudot Mallabiko heavy-thrash taldea, The 5 Twisters Arrasateko garage-rock talde beteranoa eta Abadiñoako Ymotek thrash-death-metal indartsua.



DAMUDOT | Mallabia

Damudot Jonek, Gribik eta Polutok osatzen dute gaur egun. Taldeak dagoeneko zazpi urteko ibilbidea dauka, eta kontzertu ugari egin dituzte, batez ere Bizkaian, baina baita beste eskualde batzuetan ere. Hasieran laukotea bazen ere, aspaldian hiru lagun dabilta taldean. 2006. urtean Funky Factory estudioan grabatu zuten lehen maketa, *Gerraren jabe* izenburupean. Gerora, hainbat bildumatan esku hartu dute. Euskaraz egindako heavy-thrasha egiten dute.



THE 5 TWISTERS | Arrasate

Arrasateko boskote horrek bigarren aldiz esku hartuko du Danbaka musika lehiaketan. Jokin, Yago, Iose, Goro eta Beni 2005ean hasi ziren taldearekin buru-belarri eta ordutik hona kontzertu ugari egin dituzte. 2006an estreinako diskoa kaleratu zuten, eta iaz *25 Mondra Underground Hits* bilduman kantu bat argitaratu zuten. Arrasatear horiek garage-rocka eta punk-rocka egiten dute, gaztelaraz eta ingelesez abestuta. Aspaldian kantu berriak idazten dabilta.



MERY MAY | Arrasate

Maria Fagan arrasatearrak oso txikitatik erabakita zeukan musikaria izan gura zuela. Hala, oso gaztetxotan gitarra jotzen hasi zen eta azken urteotan bakarlari moduan kontzertuak ematen hasi da. Pop-rocka egiten du, AEBetako folkaren kutsu handia daukana, eta abesteko, bere ama hizkuntzetako bat den ingelesa erabiltzen du.

Bitxikeria moduan, Faganek bi alditan esku hartuko du aurtengo Danbakan: Mery May moduan eta Foxy Boxxi taldeko abeslari gisa.



YMOTEK | Abadiño

Abadiñoako boskote hori 2006an sortu zuten David, Javi, Rober, Iban eta Asierrek. Taldeak bilakaera esanguratsua izan du eta emaitza irmoa lortu du. Ibilbide horretan, Euskal Herrian barrena sarritan jo dute, eta, besteak beste, Hora Zulu eta Su Ta Gar taldeekin batera izan dira hainbat agertokitan.

Euren eskaintza thrash-death-metalaren alorrean koka dezakegu, eta taldekideek kantuak ingelesez abesten dituzte.

KONTZERTUA

Gaur, egubakoitza. 22:30.

Elgetako Espaloia.

5 euro (Gazteak, 3 euro).

- > Mery May
- > Damudot
- > The 5 Twisters
- > Ymotek



LURSAILA BALDIN BADUZU, ZURE NEURRIKO ETXEA SEI HILABETETAN PREST

Zbb

C/ZORROLLETA, 5
01015 GASTEIZ
T. 945 29 06 06
615 78 28 23
WWW.ZBB.ES

hildakoak

- **Juan Arenaza Garitaonandia.** Eskoriatzan, urriaren 10ean. 77 urte.
- **Benito Gabilondo Albisua.** Bergaran, urriaren 10ean. 89 urte.
- **Benedicto Ugarte Ugarte.** Oñatin, urriaren 11n.
- **Juan Antonio Ena Enekotegi.** Bergaran, urriaren 11n. 85 urte.
- **Jose Luis Irizar Baltategi.** Oñatin, urriaren 12an. 73 urte.
- **Luis Mari Arana Ezkibel.** Bartzelonan, urriaren 12an. 74 urte.
- **Eulalia Madinabeitia Aiaga.** Aretxabaletan. urriaren 13an. 83 urte.
- **Eusebi Usabiaga Muxika** Arrasaten. urriaren 14an. 95 urte.
- **Maria del Carmen Albizua Barañano.** Arrasaten, urriaren 15ean.

ESKER ONA

Maria del Carmen Albizua Barañano

Cirilo Mondragonen alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko urriaren 15ean.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko urriaren 17an.

ESKER ONA

Luis Mari Arana Ezkibel

Bartzelonan hil zen 2008ko urriaren 12an, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko urriaren 17an.

ESKER ONA

Jesus Eguren Irazabalbeitia

Bergaran hil zen 2008ko urriaren 8an, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko urriaren 17an.

ESKER ONA

Manoli Ubierna Imaz

Bergaran hil zen 2008ko urriaren 7an, 70 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko urriaren 17an.

ESKER ONA

Jose Luis Irizar Balzategi

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 12an, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko familixian izenean.
Haren arimaren aldeko meza, zapatuan urriaren 18an, 19:50ean Agustinoen elizan izango da.



Oñatin, 2008ko urriaren 17an.

URTEURRENA

Rosarito Letamendi Zelaia

Bigarren urteurreneko meza zapatuan, urriaren 18an, 19:00etan Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Beti topatzen zenuen barre egiteko arrazoiren bat eta horrela gogoratuko zaitugu, irrifarrez.




Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Vicente Ugarte Igartua

Carmen Telleriaren alarguna

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urriaren 18an, 19:00etan Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Felisa Zubia Markuleta

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urriaren 18an, 19:00etan Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Josu Bolinaga Aretxaga

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 19an, 12:50ean Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

Elena Asensio Gomez

Luciano Sanzen alarguna

Sorian hil zen 2008ko irailaren 1ean, 96 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan, urriaren 19an, 12:00etan Bergarako Santa Marina elizan izango da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otarora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **120 euro.**

ASTELEHENEKO GOIENKARIAKO harpidedunak: 90 euro

Prezio berezia: egubakoitzeko eta GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **110 euro.**

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle. (CIES)



OROIGARRIA

Mikel Odriozola Igartua

Oñatin hil zen 2005eko urriaren 17an, 50 urte zituela.

*Orbelen sasoiari joan hintzen
heu ere sasoiari
ta guk ezin etsi.
Udazkenero,
orbekak jaustean,
oingotxe sasoiari...
aurten ere, Miel,
guk ezin etsi.*



Ettxekoak
Oñatin, 2008ko urriaren 17an.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net



Ainhoa Urrutia eta **Iban Gorosabel** oñatiarrak bihar ezkonduko dira. Ondoren, familia eta lagunekin ospatuko dute. Zorionak bikote, eta ondo-ondo pasa zuen ezkontza egunean. Lagunen partetik eta familiako guztien partetik laztan handi bana.



Oñatiko **Ramon Irizar** eta **Arantxa Igartzabal** orain dela 50 urte ezkondu ziren, urriaren 18an. Bihar, urrezko ezteiak ospatuko dituzte familiakoekin. Seme-alaben eta biloben partetik, zorionak, patxo handi bana eta orain arte bezala jarraitu.



Jon eta **Rox** aretxabaletarrak bihar ezkonduko dira Apotzagako elizan. Ostein, Etxe-Aundi jatetxera joango dira bazkaltzera. Etxeko eta lagun partetik zorionak eta urte askotarako, bikote! Izan zoriontsuak.



Moises Arriaran eta **Tere Intza** urriaren 15ean ezkondu ziren Angiozarren, orain dela 50 urte. Moises eta Tere bihar ospatuko dituzte urrezko ezteiak etxeokoen. Zorionak eta urte askotarako, bikote!



Dabid eta **Mainer** atxabaltarrak Galartzako elizan ezkonduko dira bihar, zapatua. Familiakoen eta lagun partetik, ondo pasa biharko eguna. Zorionak, bikote eta izan orain arte bezalako zoriontsuak. Laztan handi bana eta orain arte bezala jarraitu!



Orioko **Asier Sanchez** eta Aretxabaleto **Oneka Davila** bihar ezkonduko dira Aretxabaleto Goroeta auzoko elizan. Bazkaria Zarauzko Otxaurreta jatetxean egingo dute. Etxeko guztien partetik zorionak bikote eta ondo-ondo pasa! Patxo handi bana.



Mainer Altube eta **Gorka Zelaia** oñatiarrak bihar ezkonduko dira Oñatiko Araotz auzoko parrokan. Zorionak bikote, lagun eta familiaren partetik. Zuen ezkontza eguna egun borobila izan dadila. Laztan handi bana eta izan zoriontsuak!

bono fotoa

Bere garaian Mexikoko poeta eta prosalari bikainetarikoa izan zen Juana Asbajeren (1651-1695) eskultura Madrilgo parke batean dago. Sor Juana Ines Gurutzekoa bezala ezagunagoa zenak aita debagoienekoa zuen. Ze herritakoa?

Argazkia eta galdera >
Miguel Angel Elkoroberezar



SUPER AMARA

Super Amarak emandako

60 euroko erosketa-txartela

zozketatuko du
GOIENKARIAK
asmatzaileon artean!

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK.....
TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara


AURREKO ZENBAKIKO GALDERA ETA ERANTZUN EGOKIA:

Joan den astean galdera gure erruz gaizki jarri genuenez, parte-hartzaile guztiok sartu zarete zozketan. Barkatu eragozpenak.

GALDERA ZUZENA: Gaur egun Txantxiku Ikastola eta Gaztelekua dauden eraikin honen beheko solairuetan bazegoen beste zerbait 80ko hamarkada amaiera arte... Zer?

ERANTZUN ZUZENA: Azoka edo berdura plaza.

Bergarako **Juan M. Cerdeira**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!



1. KONTZERTUA // ELGETAKO KAFE ANTZOKIA

urriak
17
EGUBAKOITZA
22:30

SARRERAK ETA ABONUAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 25 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 18 EURO

KAMISETAK //
SALGAI DAUDE:
1> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN

KAMISETEN SALNEURRIA: 1> 12 EURO 2> 22 EURO 3> 30 EURO

INFORMAZIO GEHIAGORAKO WWW.DANBAKA.COM

MERY MAY

ARRASATE

DAMUDOT

MALLABIA

THE 5 TWISTERS

ARRASATE

YMOTEK

ABADIÑO

DANBAKA))))))

III. MUSIKA LURRI ETAKA

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEAK



Aritz Alustiza > Musikaria eta irakaslea

"Aldaketarako bidean taldekide berrien bila eta kantuak sortzen dihardugu"

Soinu txikia eskuetan duela ezagutuko du batek baino gehiagok. Aritz Alustizak trikitia ez ezik oro har musika du gustuko. Musikak ematen dio lanerako zein aisialdirako aukera. Emon taldeko kide da eta trikitali eskolak ematen ditu Bergaran eta Zaldibarren. Lanak, elektronika ikasketek eta taldeak tar- te bat uzten diotenean igeri egitea du gustuko.

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Elektronika ikasketak egiten dihardu bergarar horrek. Eskolatik irten eta gurea etorri da soinu txikia hartuta, musika baita bere bizitzako zati garrantzitsu bat. Eskolak ematera joan aurretik tarte bat hartu du gure galderei erantzuteko.

Soinuak zein leku betetzen du zure bizitzan?

Soinua baino gehiago, oro har musika da toki garrantzitsua betetzen duena. Musika da erlaxatzeko modu bat, parranda egiteko modu bat... Soinu txikia kasualitatez aukeratutako zerbait izan zen. Etxean betiko trikitalia entzuten zen, baina nik ez nuen hain gustuko, nahiago nituen trikitali doinu berritzaileak. Kontzerturen bat entzunez zaletu nintzen eta 11-12 urterekin hasi arren, serio antzean 15 urterekin heldu nion.

Ikasle izatetik irakasle izatera pasa zinen.


Bai, hala da. Nik irakasle mordoia izan nuen, baina azken urteetan batik bat Maixa Lizarribar. Bergarako musika eskolan irakaslea behar zutela eta Maixaren bitartez hasi nintzen han. Jarduneko trikitali eskolan ere badihardut eta Zaldibarren ere hasiko naiz eskolak ematen. Banuen herritik irteteko gogoia, eta aukera polita izan daiteke.

Trikitaliak lanerako ez ezik bidaiatzeko aukera ere eman dizu, ezta?

Bidaia batzuk egin ditut trikitaliaren kontura. Italiara joan nintzen. Argentinan ere egon nintzen gero; jendeak harritu ninduen batik bat, oso jende jatorra da eta oraindik jarraitzen dugu harremanetan. Bi hilabetez, hango eskal etxeetan trikitalia, txalaparta, dantza... erakustera joan ginen. Ikasteko baino gehiago zen nolabait Euskal Herrira gerturatzeko modu bat. Emon taldearekin Bartzelonako Tona herrian ere izan nintzen kontzertu bat ematen. Aurten, Aste Santuan Kuban izan naiz Hamaika Bertuteko bertso-lariekin. Kubako paisaia gehiago gustatu arren, esperientzia politagoa izan zen Argentinakoa.

Edonon jotzen duzu trikitalia. Azkenaldian batik bat Emon taldean. Isilik zabilzate, ordea.

Taldean aldaketak egon dira eta gure asmoak pixka bat aldatu direnez, fase bat amaitu da eta berri bati ekingo diogu. Bestelakorik entzun dugun arren, taldekideon artean ez da haserrikerik



IRATI AGIRREAZALDEGI

PERTSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak:** Proiektu Mekanikoen Garapena eta Erregulazio eta Kontrol Sistemak. **Trikitalari bat?** Xabier Solano. **Musika talde bat?** Deabruak Teilatueta, azkenaldian askotxo nabil entzuten. **Abesti bat?** Hertzainak tal-

dearen *Esaiok*. **Egindako bidaiarik politena?** Argentinara joan nintzenekoa. **Gustura egingo zenukeen?** Kanadara. **Parrandarako toki bat?** Bergaran egin ditut onenak. **Eta biharamunerako?** Ohean ondoen. **Amets bat?** Orain bezala jarraitzea.

egon, baina bi abeslariak eta gitarrak joleak taldea utzi dute. Bestalde, tronpetak jole bat eta tronboi jole bat sartu dira. Aldaketarako bidean taldekide berrien bila dihardugu, eta baita gure kantuak sortzen ere. Penaz egin dugun arren, hainbat kontzertu bertan behera utzi ditugu eta beste eskaintza batzuei ezezkoa eman diegu.

Hortaz, laster Emonek eman- go du zeresanik?

Bai, dudarik gabe. Asmoa da datorren udaberrirako erreper- torio propioarekin hastea, eta baita grabazioren bat egitea ere. Gainera, orain kontzertuetan ez ibiltzeak aukera ematen digu entsegu gehiago egiteko eta kan- tu berriak sortzeko.

Azken kontzertuetan txapele- kin atera zineten hainbat tal- dekide. Itxura zaintzen duzue?

Orain arte askorik ez dugu zaindu, baina aurrerantzean badu- gu asmoa ukitu berezi bat emate- ko taldeari agertoki gainean; ez jantziekin bakarrik, oro har tau- la gainean irudiarekin. Antzer- kian, dantzan... zaintzen dute janzkera, ba musikan zergatik ez?

Dena ez da musika, ordea; ikas- ten ere badiharduzu, ezta?

Aurten Elektronikako modu- lu bat egiten dihardut eta aurrez Mekanizazioko beste bat egin nuen. Baina ez daukat garbi gero- ra zertan lan egin nahi dudana. Baliteke nire ikasketekin zeriku- sia duen zerbait izatea. Izan ere, musikatik bizi izatea...

Rock-and-rollak ez omen du dirurik ematen. Eta trikitaliak?

Musikak oro har ez du diru askorik ematen. Gure taldeko jardunetik bizi izateko adina diru ateratzerik ez dut espero; taldea zaletasuna da, ez lanbidea.

Baduzu beste zaletasunik?

Igeri egitea dut gustuko, bai- ta kontzertuetara joatea ere. Azkena Kilometroetan entzun nuen Deabruak Teilatueta. Iaz Benicassimen egon nintzen, musika jaialdian, talde mordoia entzuten, baina gainontzean ez naiz kontzertuetara urrutira joan zalea; inguruan aurkitzen dut gustuko musika.

Aurrerantzean zertan jardute- ko asmoa duzu?

Musika ez dut utziko. Ez dakit eskolak ematen zenbat denbo- ran jarraituko dudana, baina soi- nua jotzeari ez diot utziko.

INFORMATIKA > 'Software libre euskaraz' izenburupean ikastaroa izango da Kulturaten urriaren 16tik abenduaren 4ra bitartean, Arrasateko Gazte Bulegoak antolatuta. Ander Elortondo software librean aditua dena arduratuko da ikastaroaz eta gai horren gainean berba egin digu.

Software libre: askatasuna eta euskara

Askatasuna da software librearen ikurra. Lau oinarriko askatasun aldarrikatzen ditu: askatasuna programa erabiltzeko; askatasuna aztertzeko eta aldatzeko (ondorioz kodeak eskuragarri egon behar du); askatasuna programak kopiatzeko eta banatzeko; eta azkenik, askatasuna programak hobetzeko eta komunitateari berriz emateko.



Ander Elortondo >
Librezale elkartearen kidea

JAKINTZA ELKARBANATU

Kodea askatasunez ikusteak eta hobetzeak dakarren abantaila nagusia jakintza elkarbanatzea da; elkarlanean programak hobetzea, hobekuntzen onuradun gizarte osoa dela azpimarratuz. Abantaila praktikoa honetan oinarrituz *Open Source* mugimendua sortu zen.

Software librearen mugimendua (*Free Software Foundation*), alde praktikoa gain, balio etikoa defendatzen ditu. Softwarea jakintza da eta jakintza trabarik gabe banatu behar da. Jakintza gordetzea gizartearen aurka jardutea da, adierazpen askatasunaren murrizpen bezala ulertuz.

ITZULPEN DENON ESKURA

Kodea eskuragarri egoteak nahi den hizkuntzara itzultzeko aukera ematen du, filosofia bera jarraituz, eta itzulpen hori guztiontzat eskuragarri egongo da. Honela, itzulpen hori beste programa batzuk itzultzeko erabil daiteke.

Gure kasuan, programak euskaraz izateko eta programa gehiago euskalduntzeko askata-

"Programak euskaraz izateko eta programa gehiago euskalduntzeko askatasuna ematen du"

"Filosofia zabal honen aldekoek komunitate ireki bat sortu dute elkarri laguntzeko"

suna esan nahi luke horrek. Edornork egindako euskarak eta hurrengo programa euskaratzeko erabil daitekeenez, lan izugarria aurrezten da eta askoz programa gehiago euskara daitezke. Software libre da etorkizuneko munduan euskara sustatzeko biderik onena, zalantzarik gabe.

KOMUNITATE IREKIA

Software libreaz dihardugun honetan, ezin aipatu gabe utzi filosofia zabal honen alde daudenek komunitate ireki bat sortu dutela, non elkarri laguntzeko presuntasuna agertzen duten. Inter-

net bidez elkarri laguntzeko foro, blog eta wiki zerbitzuak daude. Programa konkretuen foroak, software librearen aldekoen blogak etab.

Euskaraz mugimendu honetan aitzindari www.librezale.org taldekoak ditugu, bertan programak euskaratu, euskal programak banatu eta foroaren bitartez elkarri laguntzeko aukera ematen dute besteak beste.

NOLA IZAN LIBRE ETA EUSKALDUN?

Hainbat maila daude parte hartzeko orduan. Lehena eta garrantzitsuena, guztion eskura dagoena, erabilera da. Erabil ezazu software librea.

ADIBIDE ESANGURATSUAK

Software librean ia dena egin daitekeen arren, hona hemen adibiderik esanguratsuenak eta non lortu:

Merkatuko Internet nabigatzaile onena *Firefox 3* (<http://www.mozilla-europe.org/eu>) librea da.

Openoffice bulego lan guztiak egiteko aplikazioa: <http://eu.openoffice.org/index.html> helbidean euskarazkoa lor dezakegu.

Gnu/Linux sistema eragilea. Ehunka banaketa dauden arren famatuena: *Ubuntu* (www.ubuntu.com), *Suse* (www.opensuse.org), *Mandriva* (www.mandriva.org) edo *Fedora* (www.fedora.com).

Beste askorentzat garrantzitsuena software librea doan izatea da. Zertan ari zara programa piratak erabiltzen, libre eta euskaldunak doan dituzu eta?

teknologia berriak

> TELEFONOAK

Telefono funtzioa betetzen duen ordulari modernoa diseinu berritzailearekin

Sakelako telefonoen funtzioak dituzten ordulariek, itxura zatarrak dute gehienetan. Baina honako honek diseinuari dagokionez txukunagoa ematen du. GB bateko barne memoria, bluetooth sistema, soinu erreproduzitaile eta ahots grabagailua, kalkulagailua, alarma eta telefono gehienek eskaintzen dituzten baliabideak dauzka.

Salneurria: 103 euro.



Leptik zintzilik ipintzeko ere diseinatuta dago.

> SOINUA

Dendetan eta sarean salgai dago jadanik iRiver etxeko Spinn soinu erreproduzitailea

Diseinu eta funtzionaltasun aipagarriak ditu Spinn erreproduzitaileak. 3,3 hazbeteko ukipen pantaila birakaria eta DMV telebista digital eta FM irrati sintonizadoreak ditu. Hainbat soinu (MP3, WMA, OGG, FLAC y ASF) eta bideo (MPEG4, WM9 y WMA) formatu onartzen ditu 4, 8 eta 16 GB. Bi daude aukeran eskuragai: lau GBkoa eta zortzi GBkoa.

Salneurriak: 183 euro eta 213 euro (edukieraren arabera).



Itxura modernoa ematen dio aluminiozko akaberak.

> OSAGARRIAK

Ordenagailu eramangarria eta 'gadget'-ak eguzki plaken bitartez kargatzen dituen motxila

Ordenagailu eramangarria eta beste aparailuak babestean gain, kargatu nahi baditugu eta gainera energia garbiarekin, Powersafe Kyoto eguzki motxilak horretarako aukera ematen du. Baterian pilotutako energiarekin kargatu ahal izango ditugu aparailuak, eta baterian motxilaren kanpoko aldeko bi eguzki plakekin kargatzen da.

Salneurria: 180 euro.



Gadget-ak kargatzen dira motxilarekin batera.

KOMUNIKABIDEAK > IRAGARKI SAILKATUAK

Ibarreko iragarki laburrak, Euskal Herri osora

Aurrerantzean GOIENKARIAn eta 'Goiena.net'-en agertzeaz gain, Euskal Herri osoan zabalduko dira iragarki laburrak, baita gurean besteak jaso ere

USOA AGIRRE > ARRASATE

Euskarazko iragarki laburrak biltzen dituen Euskal Herriko ataria aurkeztu dute: *Iragarkilaburrak.com*. Ehunka iragarki kontsultatzeko eta norberarena sartzeko aukera ematen du.

Euskarazko 23 hedabide egin dute bat ekimenarekin, tartean Goienak, GOIENKARIAn eta *Goiena.net*-en bitartez. *Berría*, *Hitza* eta beste zenbait tokian

tokiko hedabide ere badaude proiektua bultzatu dutenen artean. Ekimenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

INTERNETEN ETA PAPERAREN

Iragarkilaburrak.com-ek Interneten ipini du iragarki laburren azoka, baina paperean ere banatzen da. Egubakoitzetan banatzen da proiektua bultzatu duten egunkari edo aldizkariarekin.

GOIENKARIAn urriaren 24tik aurrera jasoko dute irakurleek. "Ataria Euskal Herri osoa izanda, gure irakurle eta erabiltzaileei aukera ematen die beren eskualdetik kanpoko iragarkiak ipintzeko, baita beste eskualdeetakoak kontsultatzeko ere. Hala, orain arteko iragarki sailkatuen zerbitzua osatu dugu", dio Eneko Azkaratek, Goienako informazio kudeatzaileak.

Aurrerantzean GOIENKARIAn eta *Goiena.net*-en agertzeaz gain, Euskal Herri osoan zabalduko dira iragarki laburrak eta GOIENKARIAn irakurri ahal izango dira Euskal Herrikoak.



Euskarazko 23 hedabide egin dute bat ekimenarekin, tartean Goienak.

berriak

> 'ZAHARRAK BERRI'

Amuska emakume elkarte mintzagai, beste batzuen artean

Oihana Elortza kazetariak zuzendu eta aurkezten duen *Zaharrak berri* saioan hainbat gai landuko dituzte datorren eguaztenean Goiena Telebistan. Besteak beste, Amuska elkarte izango da protagonista: Eskoriatzako Emakumeen Elkartea, hain justu. Horretaz gain, Bergarako erretiratuen etxeko kideek egin duten eskularen erakusketa ere ikusi ahal izango duzue. Guztia, 20:30ean.

> 'GOIENA MAGAZINEA'

'Goiena magazinea' egunero kontu berriekin GOITBn

Joan den astean eman zioten hasiera Goiena Telebistan *Goiena magazinea* saio berriari. Egunero egingo den elkarrizketaz gain, magazineak hainbat tarte izango ditu, hala nola Debagoieneko elkarteak gertutik ezagutze-ko aukera, osasunaren tartea eta lehen sektorearen gainekoa. Horretaz gain, egueneran sariak banatuko dituzte 943 25 05 03 telefonora deitzen dutenen artean. Animatu!

> ARRASATE IRRATIA

Perretxikoak batzeko aholkuak eta etxebizitza kontuak

Irratian, datorren asteko protagonistetako batzuk perretxikoak eta etxebizitza kontuak izango dira. Perretxikoek dagokien, perretxikoak batzeko garaian gaudela-eta, haiek batzeko orduan kontuan hartzeko aholku batzuk eman goituzte. Etxebizitzetako dagokien, berriz, Zerrajerako etxebizitzak berabagai izango dituzte, oraingoan, alokairuzko etxebizitzekin lotutako azken berriak jakinarazteko.

> ARRASATE IRRATIA

Sarrerak, 'Ohean' lana eta The Maharajas eta Los Cretinos ikusteko

Jose Luis Abuin masajistaren masajeaz gainera, oraingoan, antzerkirako eta musika kontzerturako sarrerak zozkatuko dituzte. Antzerkiari dagokionez, *Ohean* antzezlanaren ekarriko du Maskarada taldeak. Kontzertuari dagokionez, berriz, The Maharajas talde suediarra eta Arrasateko Los Cretinos taldeak ikustera gonbidatuko dituzte entzuleak. Zozketan parte hartzeko: *irratia@goiena.com*, *goiena.net* (irratikobloga) edo 943 25 05 05.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 21:45

Josu Loroño elkarrizketatuko du Iker Barandiaranek

Algortakoa da Josu Loroño kirol kazetari eta aurkezlea; hura gertutik ezagutuko duzue 'Ilunpean'-en

GOIENKARIA > BERGARA

Getxoko Algorta auzoan jaio eta bizi da Josu Loroño kazetari eta aurkezlea. Jesus Loroño txirridulari ospetsua zenaren semea, kirolzale amorratua da. Horren adierazle da horrenbeste urtean ETB telebista katean landu duen kirol kazetaritza. Athleticzale amorratua da, gainera, Josu Loroño, eta harro ematen du aditza bere zaletasun hori.

Egun, utzia du dagoeneko kazetaritza eta aurkezle mundua, eta EAJko zinegotzia da Getxoko Udalean. Horretaz guztiaz gehiago jakin gura baduzue, aukera bikaina duzue *Ilunpean* saioan.



JOSU LOROÑO Kazetaria EAJko zinegotzia da gaur egun Getxon. GOIENKARIA

'DANBAKA' > MARTITZENA ETA EGUENA, 22:00

Danbaka lehiaketako kontzertuak, martitzen eta egueneran GOITBn

GOIENKARIA > BERGARA

Gaur emango zaio hasiera Danbaka musika lehiaketari. Beraz, Elgetako Kafe Antzokian ez da deskantsurako aukerarik izango, harik eta urtarrilaren 16ko finalera arte. Goiena Telebistak, nola ez, Danbakako saio eta

kontzertu guztiak grabatuko ditu eta gero, horiek ikusteko aukera eskainiko du. Hala, zuzenean ikusi ezin duenak izango du Danbaka jarraitzeko beste aukerarik ere; izan ere, hamabostean behin, egubakoitzetan egingo den Danbakako saio

bakoitzean eskainiko diren lau kontzertuak telebistaz ikusteko aukera egongo da.

Gaur, Danbakako lehen saioan, Damudot, Mery May, The 5 Twisters eta Ymotek taldeek joko dute. Talde horietako baten kontzertua datorren martitzenean, hilak 21, ikusi ahal izango duzue eta beste bat, berriz, eguenean, hilaren 23an. Falta diren biak ikusteko aukera izango da urriaren 27tik 31rako astean, bata martitzenean eta falta dena eguenean. Egitura hori jarraituko dute gainontzeko kontzertu eta saioekin ere.

telebegi

Oihane Agirre > oiagirre@goiena.com

Obama ala Ino?

Obama ezagunagoa da geurean, bertako politikariak baino. Diputazioak egindako inkestak harridura sortu du hainbat komunikabidetan. Hortxe daukagu telebistaren indarraren adibiderik garbiena, eta horretan adituak dira amerikarrak. Politikari mediatikoagorik ez dago munduan. Telesail bat balitz bezala, hainbat ataletan jarraitu ahal izan ditugu AEBetako hauteskundeak. Astean egin dute azken agerraldia telebistan eta saio horretan erabaki da zein izango den hurrengo presidentea.

Baina geurean, zein ote da ezagunagoa? Ino Galparosoro ala Obama? McCain ala Paco Gartzia? Neure zantzarik ditut. Ez dut uste gure ibarreko politikariek gipuzkoar politikariek bezain puntuaketa baxua jasoko luketenik. Ibarreko politikariak mediatikoagoak direla uste dut. *Goiena magazinea* izenez estreinatu dugun formatu berriak ibarreko hainbat pertsonekin solasean jarduteko aukera paregabea eskaintzen digu. Tartean, ibarreko politikariak, eguenero geurean. Eta gainera zeuk ere aukera daukazu zuzenean galderak egiteko.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera!

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean (elkarrizketa)
Kantaka (musika)
Zaharrak Berri (pertsonekin nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepaso
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com) edo goiena.net atarian, irratiko bloga)

11:55 Arrasateko albisteak, labur.

12:05 Euskadi Irratiko albistegia

12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 Igo Autobusera! (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 17

13:15 Emisio hasiera. 13:15 Marrazki bizidunak. 13:45 Ur eta lur. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 16:15 Ikusten. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 18:00 Ilunpean. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Magazinea. 20:30 Gure Saltsan. 21:00 Magazinea. 21:45 Solaskide. 22:15 Berbaire. 23:45 Magazinea 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 18

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak eta . 11:00 Ur eta lur. 11:30 Ikusmira. 12:00 Wase-makp. 12:30 Golb tb. 13:00 Eltze beroa-Gure saltsan. 14:30 Solaskide. 15:00 Erreportajea-Goitb. 16:00 Marrazki bizidunak. 18:15 Ilunpean. 18:45 Erreportajea-Ttapa. 19:15 Berbaire. 20:15 Golb tb. 20:45 Ikusten. 21:15 Ilunpean. 21:45 Solaskide. 22:15 Erreportajea-Goitb. 22:45 Musikantoi. 23:15 28 Klip. 23:45 Erloklip. 00:15 Emisio amaiera.

Domeka, 19

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak eta . 11:00 Erloklip. 11:30 Perretxikoen mundua. 12:00 Ikusten. 12:30 Ikusmira. 13:00 Erreportajea-Goitb. 15:00 Solaskide. 16:00 Eltze beroa-Gure saltsan. 17:30 Marrazki bizidunak. 19:15 erreportajea-Ttipa. 19:45 wasemak. 20:15 Musikantoi. 20:45 Solaskide. 21:15 Berbaire. 22:15 Erreportajea-Goitb. 23:15 Musikantoi. 23:15 28 Klip. 23:45 Erloklip. 00:15 Emisio amaiera.

Astehena, 20

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Itsasoari begira. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Mugaz kanpo. 15:45 Ttipa-pako erreportajeak. 16:15 28 Klip. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Blogtb. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Harmailatik. 22:15 Erreportajea. 23:00 Goiena Magazinea 23:45 Emisio amaiera.

Martitzena, 21

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Futbola 13:45 Ikusten. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Harmailatik. 15:45 Solaskide. 16:15 Itsasora begira 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak: Futbola. 17:45 ttipa-pako erreportajea. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Danbaka. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Ilunpean. 22:30 Mugaz kanpo 23:00 Goiena Magazinea. 23:45 Emisio amaiera.


Eguaztena, 22

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Ikusmira. 14:15 Gure saltsan. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Blogtb. 16:15 28 Klip. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Solaskide. 18:15 Ur eta lur. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak: Muka Muka 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Zaharrak berri 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Erreportajea. 22:30 Perretxikoen mundua. 23:00 Goiena Magazinea 23:45 Emisio amaiera.

Eguena, 23

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Marrazki bizidunak. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ikusmira. 15:45 Mugaz Kanpo. 16:15 Perretxikoen mundua. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 18:00 Erreportajea. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Danbaka. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Berbaire. 22:45 Ttipa-pako erreportajea. 23:15 Goiena Magazinea. 23:45 Emisio amaiera.

Debagoieneko GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ARETXARGI

Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

RELE

Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e. arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza
• Hormigoizko estruktura eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

IGELTSEROAK

DE LA TORRE IGETLSEROTZA

Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

ITURGINTZA

ARETXABAleta ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

EGIA ITURGINTZA

Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar dokorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretanak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

KONPONKETAK

MULTIARREGLOS

Arrasate
• Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
• Instalazioak; Geletan antenak, telefonoenkableak...
• Jartzeak: Koadroak, lanparak gordiank...
• Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak...
Tel: 699 60 97 08

LEIHOAK

ARGI-PLASTIC

Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate
• Lehieta eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

LEIHATEK

Arrasate
• Lehieta eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleihoa errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

DAVILA MARGOAK


Aretxabaleta
• Margoak orokorrean
San Migel 7, 3d.
Tel.: 646 22 41 09

Urriak 17-23

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Dantza



ARRASATE

> 'Hnuuy Illa' dantza ikuskizuna egingo dute Kukai eta Tanttaka taldeek

Hnuuy Illa antzerki eta dantza ikuskizuna ikusteko aukera dago etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean. Joseba Sarrionandiaren testuak ardatz gisa hartuta, amodioa, desamodioa, bakardadea, erbestea... ukitzen ditu lan horrek.

Musika



ARRASATE

> Julio Hernandez kubatarrak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza

Julio Hernandez musikari kubatarrak kontzertua egingo du 3.60 aretoan, 22:30ean, Kubart promotoreak antolatuta. Kubako troba tradizionala gaur eguneko erritmoekin batzen ditu. Joseba Britek ere joko du. Sarrera 6 euro da.

Antzerkia



ARETXABALETA

> 'Carretera y manta' antzezlan egingo du Aitziber Bilbao aktoreak gaur

Carretera y manta antzezlan egingo du Aitziber Bilbaok. Helduendako da. Bi helburu ditu: bat, dibertitzea; bestea, gogoraraztea zein garrantzitsua den gure helburuengatik borrokatzea. Kultura etxean da, 22:00etan; sarrera, doan.

bere ahots kementsuarekin, eta Jens Lindberg, 60ko garra bizirauten. *In Pure Spite* euren laugarren diskoa da, eta hor, erakusten dute garaje-rock etiketa txiki geratu zaiela eta benetako rock-and-roll talde bat direla.

Los Cretinos talde arrasatearrak ere joko du gau horretan. Urriaren 24an, 3.60 aretoan.

Erakusketak

ELGETA

> 'Libelandula' marrazki eta poema erakusketa

Maite del Rey eta Maider Zubillagak prestatutako *Libelandula* delako erakusketa dago ikusgai Espaloia antzokia. Eurek egindako marrazkiek eta poesia lanek osatzen dute. Urri osoan dago ikusgai.

ARETXABALETA

> Beatles taldearen inguruko erakusketa dago hil osoan

Pop musikaren aitzindari Beatles taldearen inguruko erakusketa multimedia dago kultur etxean urri osoan.

Honako elementuak ditu: panel biografikoak; merchandising-a, musika eta ikus-entzunezkoak; diskoak; biografia...

Bisita ordutegia: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

BERGARA

> Mari Paz Alustizaren margolan erakusketa, Aroztegin

Mari Paz Alustizak hainbat margolan ditu erakusketan Aroztegi aretoan. Azaroaren 2a arte egongo da zabalik.

Maritzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan: 12:00-14:00.

ARRASATE

> San Josepe harrobiaren ideien lehiaketako lanak, ikusgai

San Josepe harrobi zaharra biziberritzeko ideien lehiaketara aurkeztutako lanak jendaurrean ipiniko dituzte Kulturaten.

Azaroaren 9a arte.

BERGARA

> Jon Balentziagaren margolan ikusteko aukera

Jon Balentziaga bergararren hainbat margolan daude ikusgai kultura etxean. Urriaren 25a arte dago zabalik.

Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-21:00; zapatuetan: 12:00-14:00.

Bestelakoak

ANTZUOLA

> Auto klasikoek geldialdia egingo dute Antzuolan etzi

Beasainen urtero auto klasikoek kontzentrazioa egiten dute, eta auto horiek

Antzerkia

ARETXABALETA

> Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoaren emanaldia

Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoaren emanaldia egingo dute umeendako bihar, zapatua. Sarrera 5 euro da.

Bihar, zapatua, kultura etxean, 17:00etan.

OÑATI

> Umeendako 'Karabas' antzezlan egingo dute bihar

Umeei zuzendutako *Karabas* delako antzezlan egingo dute bihar, zapatua. Sareak (Euskadiko Antzoki Sarea) antolatuta emanaldia, herritarrei antzerkia gerturatzeko kanpainaren amaiera gisa.

Sarrerak salgai daude kultur etxean, 3 eurotan.

Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:00etan.

Musika

ELGETA

> Danbako lehiaketako lehenengo kontzertua gaur

Danbako musika lehiaketako lehenengo kontzertua izango da gaur, egubakoitza. Ymotek (Abadiño), Mery May (Arrasate), Damudot (Mallabia) eta The 5 Twisters (Arrasate) dira taldeak.

Gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

BERGARA

> Disko-jartzaileak izango dira Ziripot tabernan

Disko-jartzaileen emanaldiak izango dira Ziripot tabernan. El Txef A & The Gonzo & Olasolo DJak ibiliko dira gaur, egubakoitza; eta Koldo Intermusic & Miximal, bihar, zapatua.

Emanaldiak 23:00etan hasiko dira.

BERGARA

> Decepcion Rock taldeak kontzertua egingo du

Arrasateko Decepcion Rock taldeak musika emanaldia egingo du Pol-Pol tabernan.

Bihar, zapatua, 22:00etan.

BERGARA

> Hainbat herrialdetako musika ipiniko dute Arranon

Musika jaialdia egingo dute Arrano tabernan. Euskal musika, mexikarra, jamaikarra eta beste batzuk ipiniko dituzte.

Bihar, zapatua, 21:00etan hasita.

BERGARA

> Musika bandaren kontzertua egongo da etzi, domeka

Udal Musika Bandak kontzertua egingo du. Honako errepertorioa joko dute: *Añoranza* (A. G. Chirlaque), *La princesa amarilla* (C. Saint-

Saëns), *Don't cry for me, Argentina* (A. L. Webber) eta *Lau urtarok* (J. Franco).

Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzenduko ditu musikariok.

Etzi, domeka, Santa Marina parrokian, 18:30ean.

ELGETA

> The Commitments talde irlandarraren kontzertua

The Commitments soul eta blues estiloko talde dublandarrak kontzertua –Euskal Herriko bakarra– egingo du Espaloia antzokian.

Bihar, zapatua, Espaloia antzokian, 22:30ean.

ARRASATE

> 70 eta 80ko hiru tributu talde bihar, zapatua, 3.60 aretoan

Zenbait tributu taldek joko dute 3.60 aretoan: Fat Lizzyk (Thin Lizzy), Bacon Maiden-ek (Iron Maiden) eta Queens of

Rock-ek (70eko eta 80ko hamarkadetako taldeen bertsioak).

Bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 22:00etan.

BERGARA

> Abesbatza eta organo kontzertua daude bihar, zapatua

Beasaingo Loinatz abesbatzak eta Gerardo Rifon organo joleak kontzertua egingo dute. Abesbatza Xabier Sarasolak zuzenduko du.

Bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

ARRASATE

> The Maharajas taldeak kontzertua egingo du

The Maharajas taldeak kontzertua egingo du urriaren 24an, *In Pure Spite* (Bloody Hotsak) diskoa aurkezteko. Talde beterrano horrek bi irudi handi ditu gaur egun: Mathias,

PROPOSAMENA

OÑATI

> 'Mobbing'-aren gaineko 'Arrainen bazka' antzezlan

Euskadiko Antzokien Elkartek (Sarea) antolatuta, *Arrainen bazka* antzezlan egingo du Tanttaka taldeak etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean. Euskadiko Literatura saria irabazitako lan horrek *mobbing*-a edo lanean egiten den jazarpenaren gaia ukitzen du. Hainbat galdera planteatzen du: "Zein da duintasunaren prezioa? Ze jaseteko gertu nago lanpostuari eusteko?".

Sarrerak, salgai kultura etxean: umeena, 3 euro, eta helduena, 10.



geldialdia egingo dute etzi, domeka, Antzuolan. 12:00ak aldera ailegatuko dira, eta luntxa izango dute Herriko plazan eta beste leku batzuetan. Eguraldi ona badago, 50 bat auto etorriko direla espero dute.

Etzi, domeka, 12:00etatik 13:30era.

ESKORIATZA

> **Perretxikotara irteno dira Luis Ezeiza ikastetxeak**

Perretxikoak batzeko irteera antolatu dute Luis Ezeiza ikastetxe gurasoek biharko, zapatua. 09:00etan batuko dira herriko plazan. 16:30ean, perretxikoak sailkatuko dituzte ikastetxe jantokian. Etzi, domeka, perretxikoaren erakusketan eta dastatzea izango dira herriko plazan, 12:00-14:00. Herriar guztiak daude parte hartzera gonbidatuta.

Irteera bihar, zapatua, herriko plazatik, 09:00etan.

ARRASATE

> **II. Historia eta Zinema jardunaldietako film emanaldia**

Arizmendi ikastolako antolatutako Historia eta Zinema bigarren jardunaldietako lehen filma emango dute martitzenean: *Sierra de Teruel* (Andre Malraux, 1939). Gero, Huheziko irakasle Andres Gostinek hitzaldia egingo du.

Urriaren 21ean, martitzena, Kulturategi areto nagusian, 18:00etan.

BERGARA

> **Antxon Artzak ikus-entzunezkoa emango du**

Antxon Artza piraguista eta abenturazaleak *Bizimoduak* delako ikus-entzunezko saioa emango du, Bergarako Udal Euskaltegiak antolatuta.

Gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:30ean.

ARETXABALETA

> **Che-ren ibilbidearen gaineko diapositibak**

Hego Amerika motorrean, Che-ren ibilbidea delako diapositiba emanaldi egingo du Sapochonco elkarteak egunean, kultura etxean.

Urriak 23, kultura etxean, 19:30ean.

OÑATI

> **Futbolin txapelketa jokatuiko dute gazteek**

Futbolin txapelketa antolatu dute gaurko, egubakoitza, gazteek topalekuan. Izena hantxe edo gazte bulegoan eman daiteke. Sari banaketa datorren egubakoitzean egingo dute, hilaren 24an.

Txapelketa gaur, egubakoitza, topalekuan, 18:00etan hasita.

BERGARA

> **Bedelkarreko merkatarien azoka pilotalekuan**

Bergarako merkatarien elkarreko azoka egingo du bihar, zapatua, pilotalekuan, 10:00etatik 20:00etara. Denda bakoitzak bere produktuak saltzeko postu bat izango du. Telebista bat zozkatuko dute erosleen artean.

Bihar, zapatua, 10:00-20:00.



Happy, un cuento sobre la felicidad

Zuzendaria: Mike Leigh.

Aktoreak: Sally Hawkins, Alexis Zegerman, Andrea Riseborough. Erresuma Batua, 2008. 118 min. 7 urtetik gorakoendako.

Mike Leigh Britainia Handiko zuzendari handienetariko bat da, *Secretos y mentiras*, *Todo o nada*, *El secreto de Vera Drake* edo gure pantailatan estreinatutako *Topsy Turvy*-k, esate baterako, garbi uzten duten bezala. Zuzendariak entseatzeari garrantzi handia ematen dio: aktoreekin egindako lanaren bitartez, gidoia burutzen joango da. Horrela, ondo ulertzen da bere zineman aktoreek eta pertsonaiek duten garrantzia. Aktoreak eta pertsonaiaik bat egiten dute eta kontatzen zaigun guztia sinesgarri bihurtzen da.

Happy, un cuento sobre la felicidad komedia bat da, baina hori bai, oso momentu dibertigarriak izan arren, badu bere kutsu dramatiko ere. Filmak bizitzari aurre egiteko auden modu desberdinak erakusten dizkigu: Poppy, istorioaren pertsonaia nagusia, ia beti pozik azaltzen da eta eguneroko ustekabeei irribartsu aurre egiten ahalagintzen da. Badaude ere ia beti umore txarrez eta frustratuak bizi diren pertsonaia. Norgehiagoka existentzial horretan gertatzen dira filmaren momentu onenak. Bi pertsonaien arteko azken eztabaida benetan hunkigarria da: drama eta komedia aldi berean gertatzen dira, eta bi pertsonaien barnea ederki antzeman daiteke. Momentu askotan barrea lortzeko exagerazioarekin jokatzen bada, azkenean, pertsonaia gertuko erretratua helitzen zaigu. *Happy, un cuento sobre la felicidad* ez da, erdarazko izenburuak aditzera eman dezakeen moduan, azaleko komedia ez tutsu bat, badu sakontasuna eta epeltasuna pertsonaiengana hurbiltzerakoan; lan dibertigarria eta zirrargarria da. Tamalez, gure pantailatan bakarrik gaztelaniara bikoiztutako bertsioa estreinatu denez, aktoreen lan bikaina murriztuta heldzen zaigu.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Che, el argentino
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 20:00.
Astelena: 20:30.

Las crónicas de Narnia: el príncipe Caspián
Domeka: 17:00.

Irina Palm
Eguena: 20:30.

ELGETA ESPALDIA

Azuloscrocasinero
Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

Asesinato justo
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.

Asterix en los Juegos Olímpicos
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ GURIDI

Vicky Cristina Barcelona
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

La conspiración del pánico
17:30, 20:00, 22:30.

El reino prohibido
17:30, 20:00, 22:30.

Diario de una ninfomana
17:30, 20:00, 22:30.

Quemar después de leer
16:50, 18:45, 20:35, 22:40.



Benicio del Toro aktoreak egiten du *Che* Guevararen rola.

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Camino

Espainia, 2008. Zuzendaria: Javier Fesser. Aktoreak: Nerea Camacho, Carmen Elías. Benetako gertakizun baten oinarritutako film horrek 11 urteko Camino neska toren istorioa kontatzen du. Hilzorian dago eta, era berean, maitemindu egiten da.

Quemar después de leer ****

AEB, 2008. Zuzendaria: Joel eta Ethan Coen. Aktoreak: George Clooney, Frances McDormand, John Malkovich, Tilda Swinton. 96 min. Cox agentea bota egin dute CIAtik. Gainera, emaztea tranpetan ari zatzatza. Hiriarren beste puntan, Lindak zirugia plastikoa egin nahi du, eta Chad lankideari kontatzen dio. Cox-ek gordetako informazio disko bat topatzen dute biek...

La carrera de la muerte ***

AEB, 2008. Zuzendaria: Paul W.S. Anderson. Aktoreak: Jason Stratham, Joan Allen, Tyrese

Tropic thunder

17:30, 20:00.

Sexykiller
22:30.

Sangre de mayo

18:45.

Asesinato justo
17:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Camino
17:00, 19:45, 22:30.

Los limoneros
17:00, 19:45, 22:30.

El niño con el pijama de rayas
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

The women
18:00, 20:15, 22:30.

Los girasoles ciegos
18:00, 20:15, 22:30.

Happy, un cuento sobre la felicidad
18:00, 20:15, 22:30.

Mamma mia!
17:00, 19:45, 22:30.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Lepel (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:15, 16:20, 18:20.

Asesinato justo
20:05, 22:05, 00:05.

Che, el argentino
19:30, 22:00, 00:30.

Reflejos
18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

RH (euskaraz)
12:15, 16:15, 17:50.

Viaje al centro...
12:15, 16:05, 18:05.

Sexykiller
12:15.

Max Payne
12:15, 16:05, 18:10, 20:15, 22:20, 00:25.

Quemar después de leer

16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

El reino prohibido
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

El niño con el pijama de rayas
17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

Tropic thunder
12:15, 16:00, 18:15.

Camino
12:15, 15:50, 18:30, 21:30, 00:15.

La conspiración del pánico
18:00, 20:10, 22:20, 00:30.

Diario de una ninfomana
12:15, 15:45, 17:55, 20:05, 22:15, 00:25.

Wall-E
16:20, 18:20.

Mamma mia!
12:15, 15:40.

La carrera de la muerte
20:25, 22:30, 00:35.

Espiritu del bosque
12:15, 16:25.

The women
12:15, 15:30, 17:40, 19:50, 22:00, 00:10.

Corredor de fondo
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Space chimps
12:15, 16:30.

Una conejita en el campus
20:20, 22:15, 00:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelena, ikuslearen eguna (jaiegunetan, ez).

ÁBACO BOULEVARD

El reino prohibido
15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

Max Payne
16:00, 18:05, 20:15, 22:25, 00:30.

El niño con el pijama a rayas
16:05, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Diario de una ninfomana
16:05, 18:15, 20:25, 22:40, 00:45.

Tropic thunder
15:50, 18:05.

Una conejita en el campus
16:10, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Reflejos
15:50, 18:10, 20:25, 22:45, 01:00.

Quemar después de leer
16:10, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Santos
16:10, 18:20.

Vicky Cristina Barcelona
20:30, 22:35.

La carrera de la muerte
15:50, 18:00, 20:15, 22:30.

Asesinato justo
16:00, 18:10, 20:20, 22:35.

La conspiración del pánico
15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

nire aukera



Leire Zamakola
Agorrosinaren irakaslea Bergara

"Kantabriara noa asteburu pasa"

Zapatu goizetan, Bergarako eskola kirolen koordinatzailea naizenez hemendik zehar egoten naiz, umeekin lanean. Geratzen den egun eta erdian ahal dudana egiten dut, eguraldi ona egiten badu mendira joaten naiz batzuetan, Kalamuara adibidez; bestela, ahal dudana moduan aprobetxatzen dut denbora.

Ahal dudanean udako etxera joaten naiz asteburu pasa eta neguan eskiatzera Izabara. Zapatua honetan saskibaloi jardunaldi dugu umeekin eta gero Kantabria aldera joango naiz asteburu pasatzera.

Eibarko izan arren, Bergaran zabilta lanean.

Bai. Agorrosingo fitness gelan bi ordu egiten ditut goizean eta bi arratsaldean. Egurdira, hiru egunetan, heziketa fisikoko eskolak ematen ditut Mariaren Lagundian eta Bergarako eskola kiroleko koordinatzailea ere banaiz.

Noiztik zabilta Agorrosin lanean?

Irail erdialdean hasi nintzen lanean. Jende asko etortzen da, orduaren arabera jende kopuruan aldaketa handia dagoen arren, txiki gelditu da gimnasioa.

Bergaran egiten duzu kirolak?

Kirola praktikatzeko denbora luzerik ez daukat, baina normalean Eibarko kiroldegira joaten naiz. Gimnasta ohia naiz, baina orain boleibola da gehien gustatzen zaidan kirola.

Kirola egiteaz aparte, ikustea ere gustuko duzu?

Baita ere. Boleibola eta igeriketa sinkronizatua, adibidez. Ikusgarriak diren kirolak gustuko ditut gehienbat.

Kirolaz aparteko zaletasunik baduzu?

Bidaletza eta musika entzutea. Talde bat aukeratzen, Eibarko naizenez, Su Ta Gar aukeratu nuke.

Mihia luzatu eta zakua hartu

LEHIA Oñatiko Ganbara abesbatzako bi kide izan dira 'Mihiluze' saioan, zuzendariari erronka egin ostean

PROBAK 'Esamesak' eta 'Eroglifikoak' probak izan dira zailenak; 'Imintzioka' eta 'Potokumeak', dibertigarriak

MIHILUZEENAK Debagoienetik hamar bikote inguru izan dira saioan eta bigarren aldia da zakua gurera etorri dena

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI
Mihiluze ETB1 telebista katean astelehenerik egubakoitzera iluntzero ematen duten lehiaketa da. Hizkuntzarekin gozaten dute lehiakideek eta ikusleak gozarazten dituzte euskara ardatz hartuta egiten dituzten jolasekin.

Bazter guztietako jendeak hartzen du parte, baita debagoiendarrek ere. Azken bi asteotan Oñatiko eta Arrasateko bi lagunek jardun dute saioan: Xabier Mugartzak eta Roberto Madinabeitiak. "Ganbara abesbatzako kide gara eta zuzendaria *Mihiluze*-ra joan zen. Saioa ikusi eta brometan esan genion berak baino diru gehiago irabaziko genuela", esan digu Robertok.

Probarik zailenak *SMSak* eta *Eroglifikoak* izan dira eurendako. "Batik bat denbora mugarengatik. *Imintzioka* proba eta *Potokumeak* dibertigarriak iruditu zitzaizkigun", dio Robertok.

Parte hartu ez ezik, 14.225 euroko zakua ere eskuratu dute. "Aurreko astean finalera iritsi ginen, eta huts bategatik ez genuen

nez zakua lortu, ez genuen espero. Finalean estropaden gaia tokatu zitzaigun, eta, Xabi kirolzalea denez, asmatu egin genuen. Dirua banatu egingo dugu; nik etxea ordaintzeko erabiliko dut, baina oraindik ez dugu jaso", dio.

Saioa eman dutenean konturatu dira jende askok ikusten duela. Robertoren esanetan: "Berriozarren nago irakasle eta ikasleek, baita A ereduok ere, eta gurasoek esan didate ikusi nautela telebistan. Korukoak, berriz, hasi dira eskean, ea ez ote ditugun gonbidatu behar... Zerbait emango diegu; hortaz, ez daitezela horrenbeste kezatu..."

IBARRERA BIGARREN ZAKUA

Bikote hori ez da gurean zakua lortu duen bakarra. Ane Odriozola legazpiarrak eta Iñaki Urionabarrenetxea arrasatearrak 20.755 euroko saria eskuratu zuten. Saiotik ibarreko hamar bikote pasa dira eta badaude *casting*-a egin eta oraindik joan ez direnak ere. Hortaz, aurrerantzean ere debagoiendarrek izango dira *Mihiluze*-n.



LEHIKIDEAK Oñatiko Xabier Mugartza eta Arrasateko Roberto Madinabeitia bi astez agertu dira saioan.

MIHILUZE

ahobero

"Kantatzearen truke krisia amaituko balitz Eurovision lehiaketara joango nintzateke, baita bainujantzian ere"
 Miguel Angel Revilla >
 Kantabriako presidentea

Krisia amaitu baino krisia eragingo luke beharbada bainujantzia soinean ipini eta kantuan hasiko balitz. Oilar bakoitzak bere kantua omen du, baina ozenegia da batzuenak.

iturri onetik

Muniategiandikoetxea artistaren lanak Aroztegin izango dira ikusgai azaroan

Azaroaren 7tik 30era bitartean izango da aukera Aroztegi aretoan Manu Muniategiandikoetxea artista bergararren lanak ikusteko. Muniategiandikoetxearen asmoa da pare bat koadro handi, muntaia bat, marrazkiak eta eskulturak ipintzea. Lehen aldia da Aroztegin bere lanak erakusten dituen eta Bergaran, aurrez, behin baino ez du egin erakusketa, orain dela hamar urte pasa, kultura etxean.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Chaho eta Aresti

Txiripak bilduko zituen urteurrenak ospatzerakoan. Hain zuzen, egunotan dira 150 urte Agosti Chaho zuberotarra hil zela eta 75 bete dira Gabriel Aresti bilbotarra jaio zenez geroztik. Eta nik koherentzia handia hartu diot oraingoan txiripari.

Biak ere idazle izaki, irakurle eskas honek ez dizkizue haien idazlanen meritua azalduko, lotsa hondarren bat badut oraindik. Aldiz, bi gizonen nire ustez dituzten balio konpartituak aipatu nahi ditut: euskaltzaletasuna ariman, modernotasuna jarreran, militantzia bihotzean, heterodoxia buruan, eragiteko indarra luman...

Behar bezainbat estimatu ez bazaie ere, majo astindu zuten nor bere sasoiak Agostik eta Gabrielelek. Non dira gure garai nahasi honek behar dituen akuiluak?

ai, ene!



Hegazkina txori baten hegaldiekin

Hegazkina ote da? Txori bat agian? Etorrizuneko hegazkina ote den diote batzuek, edo hegazkin artean kamuflatutako txoria bestela.

www.divierteme.com



Eraman dotoretasuna zure etxera



Zubillaga auzoa 1
 OÑATI
 Tel.: 943 71 63 22
 Faxa: 943 78 15 51

